2018-03-16 EGUBAKOITZA / 765. ZENBAKIA / 18. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena

Zu hemen zaude.




Urkulu urtegiaren aurreko bizipenak, erreportajean

Josep Pamies sendabelarretan adituari elkarrizketa



# BERTAKO JAKIAK SUSTATZEN

Eskualdeko ekoizleak eta kontsumitzaileak batzen dituen Ereindajan elkarteak Bergaran irekiko du beste salmenta gune bat / 2

Ereindajaneko ekoizle eta langile batzuk Arrasateko dendan. XABI URZELAI

## Ireki zutenetik urtebetera, "pozik" dira Arantzazuko aterpetxearen kudeatzaileak / 34

## 1.080 euroko pentsioa aldarrikatuz, Duintasunak dei egin die herritarrei zapaturako / 4




**'EZKONTZAK' GEHIGARRIA** / 21

## Erdi Aroko Elgeta ezagutzeko aukera izango da domekan, bisita gidatu antzeztu baten bitartez / 19

## Arkupe aretoak jasoko du film laburren Huhezinema jaialdia martxoaren 21etik 23ra / 40

**SINADURAK**


MANEX ARRIOLABENGOA / 20

PATXI OLABARRIA / 6

JOSU ZUBIA / 35

INES ALDAI / 10

AINTZANE OIARBIDE / 48





Ereindajaneko ekoizle eta langile batzuk Arrasateko salmenta gunean. XABI URZELAI

# Bertako jakiak, eskutik eskura

Duela bost urte ekindako bidean da Ereindajan egitasmoa. Kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko zubi lana egitea da horren asmoa. Eta eskaintza zabaltzeko lanean dihardu: salmenta gune berria zabalduko dute Bergaran, esaterako

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Bertako ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zubi lana egin guran, Ereindajan egitasmoa sortu zuen herritar talde batek duela bost urte. Ordutik, garatuz doa egitasmoa; ugaritzen, bere eskaintza. Gaur-gaurkoz, Arrasaten dute salmenta puntua –lekualdatu guran dihardute–, eta Bergaran zabalduko dute laster –maiatza hasieran–. Beraz, eskaintza zabaltzeko lanean daude murgildurik, beti ere, helburua argi izanda: "Lehen sektorea biziberritzeaz aparte, herritarren eta lurraren osasunaren alde dihardugu". Finean, "elikadura burujabetza" dute xede.

Eta "indartzen" doa proiektua. Horren adierazgarri 2017ko datua: urte horretan 70.000 euro ordaindu zizkieten Debagoieneko baserritarrei. Aurrera begira, gainera, kopurua biderkatzea litzateke bultzatzaileen asmoa: "Bergaran irekiko dugun salmenta puntua lagungarri izango dugu horretarako", diote.

**Bazkideak, proiektuaren oinarri**

Gaur-gaurkoz, 150 familiak dute bat egina egitasmoarekin –bazkide dira–; eta, horiez aparte, 30 ekoizle leudeke. Eurena ez da edozelako zeregina. "Proiektu kolektiboa da, bazkideen artean pentsatzen, eraikitzen eta erabakitzen dena. Finean, bazkideak eurak dira proiektuaren zutabe eta sostengu", azaldu dute bultzatzaileek.

Hori horrela, eta horien garrantziaz jakitun, Ereindajanek zenbait abantaila ditu adostuak bazkideendako: erabakiak hartzeko eskubidea izateaz aparte, %5eko deskontua dute euren erosketetan, besteak beste. Eta hainbat produktu erosteko lehentasuna ere badute. Hori bai, Ereindajanen bultzatzaileek argitu dute edonork eros dezakeela euren salmenta gunean.

**Bertakoa, osasuntsua, justua...**

Bestetik, hainbat balore dituzte finkatuta euren ekinbidean. Tartean, erdigunean jarriak dituzte produktuak bertakoak eta osasungarriak izatearen baldintzak. "Kontsumo eredua eraldatuz, tokiko garapena bultzatzea dugu helburu. Eta, modu berean, nekazaritza ekologikoa dugu ipar. Horretarako, gehigarririk gabeko produktuak jartzen ditugu herritarren eskura, sasoian sasoikoak", diote.

Eta, horrekin batera, azaldu dute kontsumo eredu "justu" baten alde dihardutela: "Prezio justuak –ekoizlearentzat– eta arrazoizkoak –kontsumitzailearendako– aurkituko ditu Ereindajanera datorrenak". Tartean, izaera kooperatiboaren emaitza dute hori: "Proiektuak elkarlana du oinarrian. Ekoizleen eta kontsumitzaileen artean eraikitzen da aurrera begirakoa".

Hori horrela, ohikotasunaz gaindiko prezio politika darabil –irabazi asmorik gabeko erakundea da–. "Saltoki handiek miseria bat ordaindu ohi diete baserritarrei. Horren kontra, Ereindajanen ekoizleak eurak dira prezioak finkatzen dituztenak", argitu dute. Eta beste era batera banatzen dute salmentekin lortutako dirua: "Saltoki handietan, normalean, lortutakoaren %20 besterik ez diete ordaintzen baserritarrei. Hemen, alderantziz. Hau da, irabazien %80 eroaten dute baserritarrek; eta Ereindajanen esku geratzen da gainerakoa".

Bada, ibarreko ekoizleek astean behin eroan ohi dituzte euren produktuak salmenta gunera. "Astelehenetan, eskura dugunaren zerrenda bidaltzen dugu bertara. Eta duten beharren araberako eskaria egiten digute", dio Nere Aspiazuk, ekoizle bergararrak. "Batzuetan, eskaintza baino handiagoa da eskaria. Horri aurre egiteko aukerak aztertzen gabiltza", gaineratu du Aitzol Iturbe ekoizle antzuolarrak.

**Hitzaldiak eta tailerrak**

Gainera, salmentara mugatu barik, askotariko ekintzak antolatzen dituzte egitasmoaren bultzatzaileek –normalean, salmenta gunean bertan–. Tartean, hitzaldiak, erakusketak, ikastaroak eta produktu dastatze saioak egiten dituzte urtean zehar. "Proiektuaren helburuen artean dago sentsibilizazioarena. Horren bidean antolatzen ditugu halako ekimenak", azaldu dute.

**Aurrera begira**

Bestalde, dutenarekin konforme ez, eta aurrera begirako erronkak finkatu dituzte Ereindajanekoek: bazkidetza dute erdigunean. "Nabarmen" igo gura dute bazkide kopurua: "Bertako produktuen eta nekazaritza iraunkorraren alde egingo duen mugimendu indartsua sortu gura dugu ibarrean". Horretarako, bazkidetza kanpainak jarriko dituzte martxan "epe motzean".



**AITZOL ITURBE**
ANTZUOLAKO EKOIZLEA

"Kontsumitzailearengana heltzeko bide berriak dakartzate halako egitasmoek. Ez dugu salmentengatik egiten, elikadura burujabetzarengatik baizik".



**NERE ASPIAZU**
BERGARAKO EKOIZLEA

"Proiektu garrantzitsua da nekazaritza ekologikoaren bueltan dihardugunondako. Herriarendako erosoagoa den salmenta gune bat dakar".



**GARI ITURBE**
KONTSUMITZAILEA

"Jaten duzun horrekiko konfiantza dakarkizu bertako produktuak erosteak. Eta ibarreko ekoizleak laguntzeko balio badu, harik eta hobe".



**ARANTZAZU GABIRIA**
KONTSUMITZAILEA

"Ereindajanek zubi moduko bat eraiki du ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean. Hor erosita, badakigu zer jaten dugun. Garrantzitsua da hori".



Ekimenaren aurkezpen prentsaurrekoa egin zuten martitzenean, Txantxiku Ikastolan. IKER OÑATE

# Elkartasun krosak, Bernat Etxepare Lizeoaren alde

Baionako Bernat Etxeparek abiatu duen diru bilketa kanpainan laguntzeko elkartasun krosak antolatu dituzte ibarreko ikastolek martxoaren 23rako. Hain zuzen, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran eta Arrasaten egongo da korri egiteko aukera

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Asteon aurkeztu dute Baionako Bernat Etxepare Lizeoari laguntzeko egitasmoa: martxoaren 23an elkartasun krosak egingo dituzte ibarreko bost herritan –Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran eta Arrasaten–. Eta bultzatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte "elkartasun keinuarekin" bat egitera: "Kutsu herrikoia izango dute lasterketek. Herritar orok izango du parte hartzeko aukera". Hain zuzen ere, Bergarako Aranzadi, Oñatiko Txantxiku eta Leintz bailarako Arizmendi ikastolek bultzatu dute egitasmoa.

Interesa duenak, euro baten truke eskura dezake elkartasun kroseko dortsala. Eta Bernat Etxepare Lizeokoentzat izango da bertan bildutako dirua: "Herri guztietako elkartasun kutxak emango dizkiegu". Gainera, bultzatzaileek jakinarazi dute Baionako ikasleen "ordezkaritza zabala" izango dela Debagoieneko zenbait hitzordutan. "Bergarako eta Eskoriatzako ekintzetan esku hartuko dute", argitu dute.

### Era guztietako ekintzak

Askotariko ekintzak antolatu dituzte egun horretarako; egitarau propioa du herri bakoitzak. Bada, goizean zehar egingo dituzte ikasleen krosak, eta, arratsaldean, gainerakoenak. Zehatz esanda, Oñatin, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten 18:00etan hasiko dute herri krosa; eta, Bergaran, aldiz, 19:00etan. Egunean bertan eskura daitezke horietarako dortsalak.

Esan moduan, martxoaren 23an izango da krosaz aparteko eskaintzarik. Tartean, bigarren eskuko azoka solidarioa egingo dute Bergarako plazan. Eta bertarako materiala biltzen dihardu Aranzadik: "Gura duenak, ikastolara bertara eroan dezake azokarako materiala".

**OÑATIN, BERGARAN, ARRASATEN, ARETXABALETAN ETA ESKORIATZAN EGINGO DITUZTE KROSAK**

### 'Hazten gaitu, hazten dugu'

Berriki, diru bilketa kanpaina jarri du martxan Baionako Bernat Etxepare Lizeoak, *Hazten gaitu, hazten dugu* izenpean. "Kontuan izan beharra dago bigarren hezkuntzako ikasketak euskaraz eskaintzen dituen beste lizeorik ez dela Ipar Euskal Herrian. Beraz, euskaraz ikasi gura duenak bertara joan beharra du", azaldu dute herri krosen bultzatzaileek.

Hori horrela, eskaintza pedagogikoa indartzeko hautua egin zuen lizeoak. Eta horretan dihardu 2016az geroztik; fase berrian, 300.000 euro lortu gura zituen horrek eskatutako inbertsioari aurre egiteko. Horretan laguntzea da kanpaina berriaren helburua. "Oraindik 50.000 euro behar dituzte hornidura guztiak lortzeko", diote antolatzaileek.



Uribesalgo eta Krespo, txapelarekin. EUSKAL HERRIKO MUS FEDERAZIOA

## Uribesalgo eta Krespo bikotea, Euskal Herriko mus garaile

Bikote bergarararrak bere egin du Euskal Herriko txapela. Asteburuan zuten hitzordua, Uztaritzen (Lapurdi)

**I.O.** DEBAGOIENA

Ibarrean badago musean egiteko ohitura. Eta horren adierazgarri aurreko asteburukoa: Vicente Uribesalgo eta Eloi Krespo bikote bergarararrak bere egin zuen Euskal Herriko txapela. Uztaritzen (Lapurdi) zuten hitzordua, eta egun osoan zehar hainbat mus partida jokatu behar izan zituzten txapela eroateko. Gainera, izan zen Debagoieneko beste ordezkaririk ere.

"Egia esan, ez genuen uste txapela lor genezakeenik. Ez ginen asmo horrekin joan. Beraz, garaipena lortuta, ezin uka pozik gaudela", aitortu du Uribesalgok. Hain zuzen, goizean hiru partida jokatu behar izan zituzten; bertan erdietsitako emaitzei esker lortu zuten bukaerako faserako sailkatzea.

### Estreinako bikotea

Gainera, Euskal Herriko txapelketa izan da Uribesalgo eta Krespo bikotearen estreinakoa. "Orain arte sekula ez dugu batera jokatu; bai, ostera, elkarren kontra. Hala ere, ondo moldatu gara, komunikazio ona mantenduz eta erabaki egokiak hartuz", dio Krespok.

## Ibarrean ere igarri da herri eskoletako greba deialdia

Irakasleen %75 inguruk egin dute greba, sindikatuen arabera; Jaurlaritzaren esanetan, %45ekoa da datua

**I.O.** DEBAGOIENA

Hezkuntza publiko ez unibertsitarioko langileak grebara zeuden deituak asteon –eguaztenean eta eguenean–. Eta ibarreko ikastetxe publikoetan igarri da hori. Bakoitzak, dena den, bere erara egin du bat grebarekin, sindikatu guztiek ez baitzuten dei bateratua egina bi egun horietarako: langile guztiak deitu zituzten ELAk eta Steilasek, eta, soilik irakasleak, LABek. Hain zuzen ere, *Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki* lelopean egin dute protesta; EAEko hiriburuetan egin dituzte manifestazioak. Sindikatuen arabera, EAEn irakasleen %75 inguruk egin dute greba; Eusko Jaurlaritzaren arabera, berriz, %45 ingurukoa da datua.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak dio "justifikatu bariko" greba dela. Horren aurka egin du ELAk: "Grebaren datuak mantentzen dira. Mobilizazioei zilegitasuna kentzeko ahaleginek ez dute funtzionatu". Eta negoziazio mahaietan "edukiak" jartzeko eskatu du, "hezkuntzaren beharrei erantzuten dietenak" .

# "Pentsio duinen" aldeko aldarriek bizirik darraite

Azken bi hilabeteetan sekulako indarra hartu dute pentsionisten mobilizazioek eta indar hori areagotuz doa; Duintasuna elkarteko kide diren Mikel Olabarria eta Marian Esnaola izan ziren atzo Bergaran, herritarrei gaiaren gaineko azalpenak ematen

**Eneko Azurmendi** DEBAGOIENA

Urtarrilean abiatutako protesta xume haiek sekulako indarra hartu dute. Egun, milaka herritar dira kalean "pentsio duinak" eskatzen ari direnak.

Atzo, eguena, gaian adituak diren Mikel Olabarriak eta Marian Esnaolak pentsioen gainean jardun zuten Bergarako osoko bilkuren aretoan, Duintasuna elkartearen izenean. "Elkartea bera aurkeztera etorri gara eta, batez ere, pentsioen gaia nola ikusten dugun adieraztera", azaldu du Olabarriak.

Duintasuna elkarteko kideak pentsioak %0,25 igotzearen aurka agertu dira –urtero igo daitekeen gutxienekoa–. Era berean, igoera hori KPI-aren arabera igotzearen alde daude eta, horrez gain, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan beharko litzatekeela aldarrikatzen dute. "Europako Gutun Soziala hartzen dugu filosofia moduan. 23. artikuluak aipatzen du nagusiek ekarpen ekonomiko nahikoa izan behar dutela pentsio baten bitartez. Lanbide arteko gutxieneko soldata Espainia osorako kalkulatzen da, eta hori ez da nahikoa hemen dugun bizi maila kontuan hartuta. Kalkulu bat egin dugu, eta EAEko bataz besteko soldata aintzat hartuta, 1.080 eurokoa izan beharko litzateke gutxieneko soldata", nabarmendu du Olabarriak.

Emakumezkoen eta gizonezkoen artean dagoen diferentziaren aurka ere azaldu dira. "Pentsiodunen %58k 1.100 eurotik behera kobratzen du hilean eta horietatik %70 emakumezkoak dira. Halaber, 600 eurotik behera kobratzen dutenen %77 emakumezkoak dira".

Gaineratu dute lan prekarietatea emakumeek jasaten dutela gehienbat. "Emakumeak lan mundura sartu ziren, baina krisiaren ondorioz, lan merkatutik kanporatutako lehenengoak izan dira. Eta bueltatzen saiatu dira, baina lanaren kalitatea ez da lehengo berbera. Ez da izan lanaldi osoa, soldatak ere hala moduzkoak dira, eta horrek ekartzen du kotizazio nahikorik ez edukitzea gutxieneko pentsio bat izateko eta modu duinean bizitzeko" azpimarratu du Olabarriak.



Mikel Olabarria eta Marian Esnaola, Bergaran. ENEKO AZURMENDI

**BIHAR, ZAPATUA, DONOSTIAN EGINGO DEN MOBILIZAZIORA BATZEKO DEIA EGIN DIETE HERRITARREI**

### Eskaerak, Jaurlaritzari

Duintasuna elkarteko kideek argi dute Madrilgo Gobernua dela "egoera prekario honen" erantzulea. Hala ere, "Madrilen ez digute kasurik egiten, eta Eusko Jaurlaritzak ere eman beharko liguke laguntza", dio Esnaolak. Izan ere, Jaurlaritzak "legalki gutxieneko soldata ezartzeko eskumenik" ez duen arren, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) bitartez osatu dezake hori, elkarteko kideen esanetan. "Formula batzuk egon badaude, eta horietako bat honakoa izango litzateke: urte batean, 600 euro baino gutxiago kobratzen dutenei pentsioa 600 eurora igo; hurrengo urtean, 800 eurotik beherakoei 800 eurora, hurrengoan 1.000ra eta hurrengoan 1.080ra. Hortik aurrera kalkulua berregin egin beharko da, eta daukagun bizi mailara egokitzen den ikusi. Agian jaitsi egin beharko da", dio Olabarriak.

Horrekin lotuta, DBE-a oso gutxik eskatzen dutela diote. "Batzuek ezjakintasunagatik ez dute eskatzen; nagusiagoak direnak halako tramiteak egiteko ez dira gai; eta beste askok, gazteagoek, lotsagatik ez dute eskatzen, pobre kontsideratzea gogorra egiten zaielako". Hori dela eta, eskubide bat dela aldarrikatu dute, eta diru-laguntza hau eskatzera animatu dituzte herritar guztiak.

### Mobilizatzeko deia

Mobilizazioa dago deituta biharko, Donostian –Alderdi Ederretik abiatuta– 18:00etan, eta herritar guztiak animatu gura izan dituzte bertaratu daitezen.



Atzo, eguena, egin zuten plantaren aurkezpena. TXOMIN MADINA

## Dagoeneko martxan da Epeleko konpostatze planta berria

10 milioi euroko kostua izan du inbertsioak, eta 10.000 bio-hondakin tonari emango dio tratamendua plantak

**E.A.** DEBAGOIENA

Orain arte egon diren diseinu akatsak konponduta, martxan da dagoeneko Epeleko Konpostatze planta. Jose Ignacio Asensiok, Ingurumeneko diputatu eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) presidentea denak eta Cesar Gimenok, GHK-ko zuzendariak. Gipuzkoako bio-hondakinen %25 hartuko du Epeleko konpostatze plantak. "10.000 tona bio-hondakin kudeatuko dira hemen eta 4.000 tona konpost aterako dira urtean planta honetatik", dio Asensiok.

FCCk eta Serbitzuk ustiatuko dute Epeleko planta. Lau urtetan 4,3 milioi euro jasoko dute bi enpresek –eta ez urtero 4,3 milioi, pasa den astean argitaratu genuen moduan–. Hasiera batean, lau urterako kontratua da, baina beste bi urtez luzatzeko aukera edukiko dute. Bi enpresak izango dira plantan lortutako produktua komertzializatuko dutenak, Gipuzkoako Konposta markarekin.

Hilabete barru hasiko dira lanean aurreikusten diren bederatzi langileak. Momentu honetan, Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko hiru langile dabiltza bertan lanean.

### "Kalitate goreneko" konposta

Atzoko aurkezpenean azaldu zutenez, "kalitate goreneko" konposta fabrikatuko da Epelen, teknikoki medeagarri organikoa dena. Dagoeneko, hasi dira azken hilabeteetako frogaldietan sortutakoa saltzen eta Gimenok azaldu duenez, gauza askotarako erabiliko da Epelen sortutako konposta. "Sagardoa egiteko sagarrondoetarako, ardoa egiteko mahastietarako, baita lurzoru degradatuentzat ere, euren emankortasuna berreskuratu dezaten", zehaztu du.

## Markel Olanok Goizper kooperatiba bisitatu du asteon

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia eta Ainhoa Aizpuru diputatua Goizper kooperatiba bisitatzen izan dira aste honetan. Goizper taldeak Antzuolako egoitzan duen alor industrialeko eta ihinztadurako produkzio guneak eta I+G industrialeko gunea ezagutu dituzte diputatuek. Kooperatibaren estrategia nazioarteko hazkundean eta hedapenean oinarritu da, eta horrek, hazkundea ekarri dio azken urteotan. Inbertsio handienak I+G+Ban, teknologia propioaren garapenean eta dibertsifikazioan egin dituzte. Azaldu dutenez, 2017an bi milioi euro baino gehiago bideratu zituzten alor horretara.

Azken urteotan Goizper enpresak egindako "ahalegin berritzaile eta arrakastatsua" goraipatu du Gipuzkoako diputatu nagusiak, bereziki digitalizazioaren alorrean.

## Martxoaren 11: Fukushima

**JOSU GARITAONANDIA**
('OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOA)
BERGARA

Fukushima zentral nuklearrean istripua gertatu zeneko urteurrena bete da martxoan. Milaka pertsona ezin dira etxera itzuli, kutsadura erradioaktiboa kentzeko urteak beharko dira, ez dakite zer egin pilatuko diren milioika ur eta lur tona kutsatuekin, partikula erradioaktiboak planetaren bazter guztietara heldu dira, eta minbizia izateko loteria banatu; istripuaren gunetik gertuago bizi direnek *txartel* gehiago dituzte zorigaiztoko loteria edukitzeko, eta horren beldurpean biziko dira beti.

Galdetuko bagenu Fukushima inguruan zer nahiago duten, energia nuklearra edo berriztagarria, zer erantzungo lukete? Energia nuklearra erabiltzen duten argindar-enpresei erosten diezula zure etxeko energia?

Sasoia da kooperatiba energetiko batera aldatzeko, energia berriztagarriekin lan egiten dute, %100.

## Eskerrak, osasun publikoko profesionalei

**JUNCAL BAKAIKOA LARREA**
ANTZUOLA

Bizitzak dituen aferak direla eta, proba bat egitea egokitu zitzaidan otsailean. Oraindik emaitzarik ez, baina benetan pertsona atsegin eta samurrak tokatu zaizkit inguruan; administraritza nahiz osasun mailan lanean dabiltzanak. Horregatik gutun hau.

Lehenik eta behin, Arrasateko ospitalean, dermatologian lan egiten duten Berridi dermatologoa eta Anabel erizain laguntzailea zoriondu behar ditut, nirekin izan duten gozotasun eta leuntasunarengatik.

Bigarrengoz, Martin Aperribai erradiologoari, Joxe -uste dut- erizainari eta laguntzaile taldeari, tratu gertu, zuzen eta egokiagatik. Uneoro ni lasaitzen ahalegindu zirelako, batez ere Martin, bere amak eta nik izen bera dugula-eta anekdotak kontatzen.

Eta, azkenik, Arrasatetik Gasteizera, han ere gauza bera, erradiologoa oso atsegina eta gertutasun handikoa. Normalean oker daudenak esaten ditugulako, honako hau, kontrakoa.

Urduri eta arduratuta joaten garenoi horrela tratatzearren, mila-mila esker, eta jarraitu horrela!

## Pentsioen osasuna berreskuratu

**LOURDES IDOIAGA URKIA**
(OÑATIKO EAJ-PNV-KO ZINEGOTZIA)
OÑATI

Pentsio Sistema Publikoaren egoera larriaren ardura Espainiako gobernuek dute, ez baitituzte Toledoko Hitzarmenaren irizpideak bete (1996). Hitzarmen horrek zehaztu ditu, hain zuzen, bai pentsioen jasangarritasuna, bai etorkizuneko erronkei aurre egiteko bidea ere.

Toledoko Hitzarmenak Kongresuko alderdi politiko guztien babesa jaso zuen, baina, tamalez, interes politikoek adostasun berriak lortu ahal izatea galarazi dute. Horregatik, ezinbestekoa da pentsioen gaia gatazka politikotik at uztea, adierazpen eta pankarta oportunistak alde batera uztea eta proposamen zehatzak egitea. Izan ere, aukera dago, borondatea izanez gero, oinarrizko pentsioen finantziazioa, balio handitzea (errebalorizazioa) eta berme-arazoak eteteko.

Finantziazio-defizitari aurre egiteko, beharrezkoa da bai gizarte-kotizazioen kutxaren eta Erreserba Funtsaren erabilera legalki babestea eta kotizazio-hobariak beste baliabide batzuekin finantzatzea. Horrez gain, ezinbestekoa da langabezia-tasa jaistea kalitatezko lanpostu egonkorrak sortuta; zerga bidezko finantziazio-eredu berriak bilatzea –alkohola, erregaiak, BEZa… Europako erreferentziak– eta hain beharrezkoak ez diren ataletan gastu publikoan aurrezkia lehenestea ere bai: aireportuetan, defentsa-gastuetan, defizit publikoa hobetuta…

Bestalde, ezin da askoz gehiago itxaron pentsio baxuenei irtenbideak bilatzeko. Ildo horretan, premiazkoa da galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea eta galdutako ahalmen hori bermatuko duen balio-handitzedun sistema berrezartzea. Baita, gaur egungo etena gainditzeko, pentsio baxuenen balioa handitzea eta beharrezkoak diren oinarrizko pentsioen bermea ezartzea ere.

Horrez gain, bereziki garrantzitsua da alargun-pentsioen kalkulua berrikustea. EAJ-PNVtik pentsio horren zenbatekoa hobetzea aldarrikatzen dugu, justizia sozialaren alde; bestelako errekurtsorik gabe dauden milioika pentsiodun -emakume alargunak, batez ere- ezin dira benefizentziaren menpe bizi.

Halaber, harago joanda, nahitaezkoa da pentsioen transferentzia lortzea Euskadin etorkizuneko marko propioa eraiki ahal izateko. Horrela, hausturarik gabeko adostasun politikotik abiatuta, egungo eta etorkizuneko pentsioei irtenbide egonkorra emateko bidea jorratzen hasiko gara. Gure proposamena da pentsioen osasuna berreskuratzea.

## Antxo, Antonia, Herriarenak zarete!

**AIZPEA OTXANDIANO**
(ARRASATEKO SORTU)
ARRASATE

Espainiako Estatuaren mendeku politikaren muturreko egoerak argitaratu zaizkigu oraingoan. Xabier Rey Urmeneta euskal preso politikoa Puerto III espetxean hilik aurkitu dute, herritik 1.000 kilometrora. Azken 10 urteetan espetxe baldintza gogorrenetan, torturatua, deserriratua, eta ziegaren bakardadean isolatua mantendu dutena.

Antonia ere zendu zaigu, Unai eta Jon Parot euskal preso politikoen ama, semeak etxean ikusi gabe, dispertsioaren muturreko aurpegia islatzen duena, gainean errepideko milaka kilometro zituelarik. Xabier hilik agertu den espetxe berean aurkitzen da bere seme Unai, isolamendu egoeran, azken 29 urteak daramatza preso, eta aurki beteko ditu bere kondenari dagozkion 30 urteak. Hori nahikoa ez eta sumario berria zabaldu zioten espetxean zelarik eta beste 12 urteko kondena berria hasiko luke datorren urtean. 42 urte beteko ditu espetxean, bizi osoko zigorra ezarri diote, bertan hilko dute.

Jon anaiak ere 25 urte daramatza Frantziako espetxeetan gatibu; 5. aldiz ukatu diote baldintzapeko askatasuna, kasu isolatua frantziar legedirako.

Integraziorako tresna gisa saltzen duten espetxe politika nola uler liteke kasu hauetan? Mendeku eta salbuespen testuinguru batean soilik. Unai, Jon eta beste guztiak kalera!

Herriarekiko maitasuna, borroka eta duintasunaren bidea argituko dituzten izar berriak piztu dira Euskal Herriko zeru gainean.

Memoriaren errelatoan, etxean ezkutaturik nahi gaituzte, baina zuek, Antxo, Antonia, Herriarenak zarete!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

**GALDEGAZTE**
**GOIENA TELEBISTA,**
MARTXOAREN 21EAN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN
MARTXOAREN 23AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN
**GONBIDATUA: AGURTZANE ELORRIAGA, DURANGO EUSKADI MURIAS EMAKUMEEN TALDEKO ZUZENDARIA**
JOKIN BEREZIARTUAK AURKEZTUTA ETA ALMEN IKASTOLAKO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE LANETAN
**BABESLEA:** DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
**LAGUNTZAILEA:** DEBAGOIENEKO IKASTETXEAK
goiena
Zu hemen zaude.


ZABALIK



PATXI OLABARRIA IRIZAR

# Ospatzetik, gogoratzera

*Villanueva de Vergara* hiribilduaren 750. urteurrenaren harira, urrian artikulua idatzi nuen *Puntua*-n. Han adierazi nuen ez zitzaidala ondo iruditzen Gaztelaren konkistaren parte izan zen hiribilduen sorrera *ospatzea*.

Bergarako Udalaren webgunean "urteurren esanguratsu hori merezi duen bezala ospatzeko" irakur zitekeen eta *ospatzeko* hitzaren ordez *gogorarazteko* jarri dute orain. Txalotzeko aldaketa; aurten *ospakizunik* ez izatea espero dut, beraz.

Urteurrenak historia ezagutzeko aukera eskaintzen duela ere aipatu nuen, eta gustura irakurri dut Bergarako historia laburbiltzen duen liburu argitaratu berria. Bertan mugarri garrantzitsuenak jasotzen dira eta garbi gelditu da Bergara ez zela 1268an sortu. Urte hartan, ibaiaren eskuinaldea den Ariznoari *Villanueva de Vergara* izendapena eman zion Gaztelako erregeak. Handik 80 urtera, ibaiaren ezkerraldea den Oxirondok bat egin zuen *Villanueva de Vergara*-rekin, eta aurrerago batu zen orduan Uzarraga deitzen zen Antzuola ere.

**OXIRONDOK ERE ASKE IZAN NAHI, ETA ERREGEARI 4.400 DUKAT ESKAINI ZIZKION**

Dena dela, liburuak ez ditu batura honen tirabirak zehazten. Udalean hiru herriek heren banako ordezkaritza izan arren, alkatea eta eskribaua beti Ariznoakoak ziren. Gatazka asko eragin zituen honek eta 1629an Antzuolak independentzia bereganatu zuen orduko erregeari zilarrezko 5.000 dukat ordainduta.

Oxirondok ere aske izan nahi, eta erregeari 4.400 dukat eskaini zizkion, baina Ariznoak lezioa ikasia zuen Antzuolaren galerarekin eta beste horrenbeste eskaini zuen. Azken eskaintza: Oxirondok 6.000 dukat eta Ariznoak beste horrenbeste. Ondorioz, 1631ko ekainaren 14an behin betiko ukatu zitzaion independentzia Oxirondori.

Dirua xahutu eta haserreak eragiteaz gain, ondorioak izan zituen honek; ez al da arraroa, adibidez, Santa Marina inguruan alde zahar edo erdigune historikorik ez egotea?

Oxirondok garbi erakusten du, beste behin ere; burujabe ez den herriak ez du etorkizunik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE




HANDIK ETA HEMENDIK

## Berririk onenak

JUAN KRUZ LAKASTA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[...] Nire oroitzapenak (eta erreferente zaharrunoak) urtzen ari dira, malkoak euripean nola. Eta (gazte gehienek esamolde hau zergatik darabildan ulertzen ez duzuela jakinagatik ere) esanen dizuet nik zuek sinetsiko ez zenituzketen gauzak ikusi ditudala:

Barrikadak sutan oholtzaz haratago (eta Ertzaintzaren furgonetez honatago), Gernika 37-87 jaialdiko azken kontzertuan, Kortatuk gomazko piloten eta ke poteen artean jotzen zuen bitartean.

Natxo Cicatriz Iruñeko La Granja taberna txikian Lola abesten, gure koadrilako Mikel, garai hartan hamabost urteko nerabe mukizua zela (ginela), lepotik zintzilik.

Manolo Gil laguna, Iruñeko Mañueta karrikako pisuan, Euskal Herrira iritsitako lehen Macintosh-etako batean, Photoshop programaren lehen bertsioarekin, Negu Gorriak taldearen aizkorak diseinatzen, Herrera de la Manchako kontzertu historikoaren bezperetan.

Gari, Ruper eta Laboa elkarrekin kantuan, Anoetako belodromoan, Komite Internazionalistek antolaturiko Hertzainak taldearen berragerraldian.

Marco Antonio Sanz de Acedo *Gavilan*, Lore Etxean, protohuajoloteen lehen entseguetako batean, lurrean belauniko, Los Tigres del Norte taldearen *Carrera contra la muerte* kanta itzela abesten.

Haiek eta beste hamaika ikusi ditut. Eta inguruko gazteei hainbatetan esan dizuet kezkagarri neritzola zuek gure garaietako musika hura guztia gogoko edukitzeari, buruz jakiteari.

Jatorki esaten nizuela sinetsita nengoen, baina orain nago, neure buruari aitortu ez arren, gozatzen nuela hori esanez, talaian jartzen ninduelako, nagusitasunean, nagusikerian. [...]

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Etxeko txikiak ikertzaile lanetan jarriko ditugu bihar"

**IKERNE ALTUBE** OÑATIKO GARAPEN ETA TURISMO AGENTZIAKO ARDURADUNA

**Eneko Azurmendi** OÑATI
Asteburu honetan IX. Koben Eguna egingo dute Arrikrutz-Oñatiko kobetan, Lurpea elkarteak antolatuta.

**Dagoeneko errotuta dagoen egitasmoa da Koben Eguna.**
Hala da, bai. Ilusioz gaude bisitariei ongi etorria emateko. Denboraldiari hasiera emateko modu bat da, eta herritar guztiak parte hartzera animatu gura ditugu. Orain arte harrera ona izan dute jardunaldi hauek, eta ea aurten ere hala izaten den.

**Zer lortu nahi duzue halako proiektuen bidez?**
Gure lurrak, paretek eta labarrek asko eskaintzen digute, paleontologia aldetik aberastasun handia dute. Beraz, Koben Egunen helburua da historia azaltzea eta gure aurrekoek egindako guztia gogora ekartzea.

**Zer eskainiko dute jardunaldi horiek bihar eta etzi?**
Bihar, zapatua, 53. galerian burutzen diren ohiko bisitak familiei bideraturiko tailerrez osatuak izango dira. Etxeko txikiak ikertzaile lanetan jarriko ditugu eta kobazuloko animalia ezezagun, baina era berean ezinbestekoak, diren troglobioak ikertu beharko dituzte, lupekin. Domekan, berriz, bisita turistikoa erdi prezioan egongo da.


Ikerne Altube, Oñatiko Turismo Bulegoaren kanpoaldean. ENEKO AZURMENDI

**Bestalde, aurten 50 urte dira Arrikrutz-Oñatiko lehoiaren hezurdura aurkitu zutela.**
Hala da. Arrikrutzeko lehoia pieza bakarra da penintsula osoan, eta balio handia dauka. Normalean, pieza osoa esaten zaio %60an osatuta dagoenari, eta kasu honetan, %98an dago osatuta hezurdura hau.

**Orain Atapuercan dago, ezta?**
Bai. Datazioa aztertuko dute, noizkoa den estimatu, eta gaur egungo lehoiarekin alderatuko dute.

**Eta ondoren, zer?**
Azterketa guztiak egin ostean, Giza Eboluzioaren museoan egongo da ikusgai, martxoaren bukaeran hasi eta urrira arte. Hortik Donostiako San Telmo museora eramango dute hezurdura.

**Aste Santua ere ate joka dugu. Oñatiko Turismo Bulegoa hasiko zen honezkero prestatzen…**
Hasi gara, bai. Informazioa zabaltzen ari gara, eta herriko hainbat ostatuetan ere erreserba batzuk eginda daude dagoeneko. Espero dugu eguraldiak laguntzea, eta turistak gure inguruak ezagutzeko gogoz etortzea.

**Eskaintza berezirik baduzue Aste Santurako?**
Egunero izango ditugu bisita gidatuak –Arrikrutzen, Txokolateixian...–. Horrez gain, Arantzazuz eta herriko inguruaz gozatzeko aukera ere egongo da. Azkenik, Pottoka Lekun behatokia zabalduko dute, baina hori aurrerago izango da.

ITURRI ONETIK

## 'JarriON' eta 'Goiena nahieran'

Modu asko daude Goiena telebista ikusteko. Ez bakarrik etxeko ohiko telebista aparailuaren bidez. *Streaming* bidez zuzenean ikus daiteke *Goiena.eus*-en ere, eta webgune horretan bertan, programa guztiak, Telebista atalean. Horretaz gain, edukiak nahieran ikusteko aukera ere badago orain, *Goiena nahieran* izeneko *app*-aren bidez. Eta datorren astean aurkeztuko dute *JarriON*, *chromecast* bidez Goiena telebista eta beste euskarazko ikus-entzunezko batzuk ikusteko aukera eskainiko duena.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-03-13

## Lehen hileta musulmana, Bergaran

Debagoienean egin zen lehen hileta musulmana, Bergaran egin zen 2016ko martxoaren 13an, Ipintza futbol zelaian. Meskitetan egin ohi dituzte hiletak musulmanek, baina orduan ez zegoenez, futbol zelai baten egin zioten azken agurra, lagun eta adiskideek, Zubair Mohamed 26 urteko jatorri pakistandarreko bergarararri. Udal brigadako langilea zen. Haren gorpua Pakistanera eroan zuten, Debagoienean ez dagoelako kanposantu musulmanik.


GOIENA

HAU BE BADOGU!

## Itzulirako motorrak berotzen



Euskal Herriko Itzulirako –aurten lasterketak Itzulia Basque Country izena darama– motorrak berotzen hasi dira dagoeneko txirrindulariak. Debagoienetik ere igaroko da itzulia aurten, eta Euskadi Murias euskal taldeak parte hartuko du:

*@MuriasTeam*: "*@ehitzulia*-ren Eibar eta Zarautz herrietako bukaerak aztertuko ditu gaur, martxoak 15, taldeak".

*@ehitzulia*: "18 egun bakarrik falta dira! *#itzulia #basquecountry #Euskadi*".

## Stephen Hawking zientzialariari agurra

Eguaztenean hil zen zientzialaria, eta sarean *trending topic* izan da:

*@ikermontes1*: "Atzo astrofisikari garrantzitsu bat joan zitzaigun, baina bere esaldiak beti izango dira gurekin. Gure arreta lurreko gauzetara bakarrik mugatzea gizakiaren espiritua mugatzea litzateke *#StephenHawking*".

*@Kosmos*: "Alboko esklerosi amiotrofikoa diagnostikatu zioten 1963an eta soilik bi urte biziko zela esan zioten. 55 urte geroago hil da".

## Hezkuntzako greba, indartsu sarean

Sare sozialetan jarraipen berezia izan du asteon hezkuntzan irakasleek egindako grebak, eta *#GrebaHezkuntzan* eta *#hezkuntzaeraiki* traolak, besteak beste, erabilienetakoak izan dira.

*@itzalmu*: "Eusko Jaurlaritzan bukatu da gaurko manifestazioa. Zorionak hezkuntza publikoaren alde kalera atera zareten guztioi. *#Grebahezkuntzan #hezkuntzaeraiki*".



CESPA-Ferrovial enpresako langile bat Otalora kaleko espaloia garbitzen. XABI GOROSTIDI

# Kale garbiketa eredua aztertzen

Arrasateko kaleen garbiketa CESPA enpresak egingo du 2021era arte, esleipen prozesu korapilatsu baten ostean. Zerbitzu hau udal langileek egitearen alde agertu izan da oposizioa, eta Udal Gobernuak hori egitearen bideragarritasuna neurtu du

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

CESPA eta UTE Serbitzu SL FCC enpresen arteko lehia administratiboaren eraginez, urtarrilean hutsik geratu zen Arrasateko kaleen garbiketa zerbitzua kontratatzeko prozesu irekia. 2017ko maiatzeko osoko bilkuran zerbitzu hori CESPAri esleitzea onartu zuten, hurrengo lau urteetarako, baina bigarren postuan geratu zen UTE Zerbitzuak SL FCC enpresak errekurtsoa jarri zuen Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan, eta, ordutik gaia zurrunbilo juridikoan murgilduta dago.

Horren eraginez, zerbitzua esleitzeko kontratazio prozesua hutsik deklaratzea onartu zuen udalbatzak, eta ondorioz, CESPAren esku geratuko da kale garbiketa zerbitzua 2021era bitartean.

Oposizioko alderdiak hasieratik lerratu ziren zerbitzu hau udal langileek egitearen alde, eta bi enpresa hauen arteko lehia osoko bilkuran landu den bakoitzean, euren postura berretsi dute.

Kale garbiketaren gaia Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeari dagokio, eta bertako buru den Oscar Garcia zinegotzi sozialistak, zerbitzua udalekotzeak izango lukeen kostua kalkulatzeko txostena eskatu zion LKS kooperatiba arrasatearrari.

**LKSren ikerketa**

Asteazkenean prentsaurrekoa egin zuten Udal Gobernuko eta LKSko ordezkariek. Azaldutakoaren arabera, zerbitzua udalekotzea garestiagoa izango litzateke. CESPA eta Serbitzu enpresek 2016an egindako eskaintzei %4,7ko KPI eguneraketa eginda ere, %5,7 eta %6,8 garestiagoa izango litzateke, hurrenez hurren. LKSko ordezkariek azaldu zutenez, konparaketa egiteko erabilitako zifrak eszenario "optimista" batekoak dira; kontratua eteteak eragin ditzakeen kalte ordainik gabe, eta CESPAko langileek jasotzen duten antzinakotasun plusik gabe. Horrez gain, CESPAko langileek bide judiziala har lezakete, euren lanpostua mantentzea eskatzeko.

Udalak lan eskaintza publiko bat jarri beharko luke martxan, garbiketa zerbitzua egingo luketen langile publiko berriak aukeratzeko. Eszenario horretan, Arrasateko kaleak garbitzen dituzten CESPAko langile asko aukera gabe geratuko lirateke, gaur egun ez dituztelako Arrasateko Udaleko langile izateko ezarritako baldintzak betetzen; euskararen jakintzarekin lotutakoak, adibidez.

Zerbitzua udal langileen bitartez egiteko, 1.587.045 euroko inbertsioa egin beharko luke Udalak; makinarian, eta jarduera egiteko lokal baten egokitzapenean. Kopuru hori 12 urtetan amortizatzea estimatzen du txostenak, eta finantzatzeko, %6ko interesa izango lukeen mailegu baten arabera egiten du kalkulua LKSk.

## Zerbitzua publiko egitea datuetan

**Urteko kostua (2018ko prezio eguneratuekin)**

| | |
|---|---|
| • **CESPA** | 1.622.848 |
| • **Serbitzu** | 1.606.620 |
| • **Udala** | 1.715.561 |

**Gastuak, udalekotuta**

| | |
|---|---|
| • **Materiala** | 418.795 |
| • **Langileria** | 1.088.775 |
| • **Amortizazioak** | 94.075 |
| • **Interesak** | 95.223 |

**Oharra:** Amortizazio eta interes kontzeptuen jatorria testu nagusian dator azalduta.

**Egon daitezkeen beste gastu batzuk**

| | |
|---|---|
| • **Kaleratzeen kalte ordainak** | |
| Objektiboak: | 512.589 |
| Bidegabeak: | 1.346.264 |
| • **Antzinakotasun gastuak** | 48.976 |

ITURRIA: LKS

**MARIA UBARRETXENA**
EAJ

"Arlo ekonomikoan garestiagoa da, baina arlo sozialak arduratzen gaitu gehien. Lan eskaintza publiko bat eginez gero, oraingo langile asko kanpoan geratuko lirateke. Subrogazio bidez, lanpostua berreskuratu ahal izango lukete, baina funtzionario izan gabe, eta antzinakotasuna galduta. Ez gara langilego hori kalean uztearen aldekoak".

**ENEKO BARBERENA**
EH BILDU

"Txostenean errentagarritasun ekonomikoa eta segurtasun juridikoa lehenesten direla uste dugu. Kontuan izan beharreko faktoreak iruditzen zaizkigu, baina badira beste batzuk. Hernanin orain udalekotu dute zerbitzua, eta soberania soziala irabazi dute. Kudeaketa enpresa multinazionalek egin beharrean, herriak egitearen onura, alegia".

**OSCAR GARCIA**
PSE-EE

"LKSk egindako txostenak dio ekonomikoki askoz garestiagoa dela. Betiere, kalkulu optimista bat eginda. Baina kontuan izan behar da gaur egun zerbitzu hori ematen duten langile askok ezin izango luketela jarraitu, ez baitituzte lan eskaintza publikoa gainditzeko baldintzak betetzen. PSE-EEn argi daukagu ez dugula langilerik bidean utziko".

**IGOR URIZAR**
BALEIKE

"Aspalditik daramagu oposiziotik txosten hau eskatzen. Ikusi dugun txostenean falta bota ditugu udalekotzea egiteko beste eredu batzuk. Zerbitzua publiko egiteko hainbat oztopo daude legeari dagokionez. Denbora tarte zabalago bat hartuta legeak alda daitezke oztopo horiek gainditzeko: hizkuntza eskakizunen kasua, adibidez".

**JUAN LUIS MERINO**
IRABAZI

"Lehenik eta behin esan beharra dago, txosten hau oposizioak behin eta berriz eskatu izanagatik egin dela. 17.000 euroko kostua izan du, eta gure ustez, helburu bakarra izan da oposizioa nolabait isilaraztea. Txostenak garrantzi handia ematen dio arlo ekonomikoari, baina ez du kontuan hartzen BEZa ezabatu egingo litzatekeela, adibidez".

# Zigorrolako auzotarrekin batzartu da EH Bildu

Euren kexak jasotzeko asmoz egin dute batzarra, eta apirilean berdina egingo dute San Andres auzoan ere. Horrez gain, astelehenean, Arnaldo Otegik 'Autonomiatik subirautzara, gure geroa gobernatzeko' izeneko hitzaldia egingo du Kulturaten (19:00)

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

EH Bilduko ordezkariek auzo batzarra egin zuten eguaztenean Zigorrola auzoko biztanleen egoera ezagutzeko asmoz.

"Hamabost lagun elkartu ginen, eta ordu eta erdiko saioa izan zen. Lehenik eta behin eskerrak eman zizkiguten, lehen aldia zelako era horretako batzar bat egiten genuela".

**"Bigarren mailako herritar"**

Batzar horretatik ateratako ondorio nagusia zein den galdetuta, zera adierazi du EH Bilduko Eneko Barberenak: "Bigarren mailako herritar sentitzen direla esan ziguten; zergak berdin ordaindu arren, atentzio falta handia sumatzen dutelako".

Hainbat gai landu zituzten bilera horretan. "Askotariko kontuak atera ziren mahai gainera. Asko eta asko hirigintzarekin lotutako arazoak, edo obrak eta zerbitzuak arloko eskaerak izan ziren. Baina horrez gain, jubilatuen etxearen egoera ere izan zen beste gai garrantzitsu bat, eta auzoko komertzioen egoera ere bai".

Auzotarren bileratik ateratako kexa horiek dagokien udal ordezkariei helarazteko konpromisoa hartu zuen EH Bilduk, eta behin hori eginda, bigarren bilera bat egingo dute Zigorrolan udazken aldean. "Bilera horretan oraingo kexek izan duten ibilbideari buruz informatuko diegu, eta bide batez, egon daitezkeen kexa berriak jasotzeko baliatuko dugu".

San Andres auzoan ere antzerako beste bilera bat egingo dute laster. Apirilaren 18an izango da, Etxaluze egoitzan.

**Otegiren hitzaldia**

Martxoaren 19an, astelehenean, EH Bilduko buru den Arnaldo Otegik hitzaldia egingo du Kulturateko areto nagusian. 19:00etan hasiko da, eta autonomiatik subirautzara egin beharreko bidea izango du hizpide.

## 100 lagunetik gora Gure Esku Dagoren aurkezpenean

Astelehenean Kulturateko aretoa herritarrez bete zen, Gure Esku Dagoren azken erronken berri jakiteko. "Ez genuen halako jendetza espero, eta asko eskertzen dugu jendeak horrela erantzutea", azaldu du Arrasateko Gure Esku Dago plataformako Jasone Giraldok.

Ekainaren 10eko giza kateari eta 2019 ideia pilatuko dituen Herri Itunari buruz jardun zuten. Lehenarekin lotuta, dagoeneko zehaztuta dago arrasatearrek non parte hartuko duten. Manurga eta Gopegi herrien arteko hiru kilometro bete beharko dituzte; ibilbideko 182, 183 eta 184 kilometroak, hain zuzen.

Herri Itunerako ekarpenak jasotzeko, aldiz, martxoaren 24an finkatu dute hurrengo hitzordua. "Lau bloke zehaztu ditugu ekarpenak egiteko: kultura, ongizatea, gure lurra eta herritartasuna, eta adar nagusi horietatik adar txikiagoak atera ahalko dira, beste azpigai batzuk, alegia", azaldu du Giraldok.

## Gestazio subrogatuari buruzko mahai ingurua eguaztenean

Emakume txokoak antolatu du, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Itziar Alkorta (zuzenbide zibilean doktorea), Josebe Iturriotz (Medeak taldeko ekintzaile transfeminista) eta Maria Garcia (Ciudadanos alderdiko kidea) izango dira, eta June Fernandez kazetariak dinamizatuko du saioa. Mahai ingurua gazteleraz izango da.

## OHARRAK

### Ludoteka ibiltaria

San Andres auzoan, bigarren saioa egingo dute, bihar, 10:30ean, Arimazubi plazan. Ekintzak: aurpegi-margoketa, sukaldaritza eta mahai-tenisa.

### Arizmendiko zozketa

Hauek dira 4. mailako ikasleen Ikasbidaiako zozketako zenbaki irabazleak: 4913, 831, 5425 eta 5073.





Herritar bat Erguineko aldapa batetik gora. XABI GOROSTIDI

# Erguineko irisgarritasuna hobetzeko lehen urratsa

Aurrekontu parte hartzaileetan, Erguineko mugikortasuna hobetzeko, igogailua jartzea izan zen boto gehien jaso zituen proiektuetako bat. Hala, 48.400 euro bideratuko dira proiektu teknikoa idazteko, eta profesionalak has daitezke diseinuak bidaltzen

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Udaleko Hirigintza Saileko buruak esan du, behin baino gehiagotan, herriko mugikortasuna hobetzeko azken urteetan egindako inbertsio onenak igogailuak direla. Une honetan hiru daude martxan –Uarkapekoa, Jose Luis Iñarra pasealekukoa, eta Bizkaia etorbidekoa–, eta Makatzena auzokoa egiteko lanak jada hasita daude. Inbertsio hauen errentagarritasuna ikusita, Udalak Erguin auzoa du begiz jota, hurrengo igogailua bertan kokatzeko. Aurrekontu parte hartzaileetan boto gehien jaso zituztenen artean zegoen Erguineko igogailua, eta 48.400 euro –BEZ barne– bideratuko dira proiektu teknikoa idazteko. Diseinuak aurkezteko epea jada zabalik dago, eta arkitekturako eta eraikuntzako profesionalei mugatuko zaie parte hartzea.

**Uribarritik Itxaropenara**

Erguin auzoan hainbat kale daude, eta etorkizuneko igogailua non joan behar den ez dago aldez aurretik zehaztuta. Igogailu bat baino gehiago jartzea aurreikusten dute Udal teknikariek, beraz, aplikazio esparru zabal bat zehaztu dute igogailuen kokapenak proposatzeko. Uribarri kaleko biribilgunetik Itxaropena plazaraino luzatzen da eremu hori, tartean hainbat kale hartuz: Uriburu, Erguin, Elizalde, Udalpe eta Anboto kaleak, eta baita Gernika ibilbidea ere.

Diseinuak egiteko ondorengo baldintzak bete beharko dira: irisgarritasun unibertsaleko arauak errespetatu beharko ditu, gutxieneko eragina sortu beharko die ondoko bizilagunei, bizikleta bat jira-biratze posizioan, edo haurrentzako orga bikoitz bat kabitzeko zabalera izan beharko du, energia kontsumo txikiko teknologietan oinarritu beharko da, paisaian integratuko da, instalazioak sortutako zarata ahalik eta gehien txikiagotuko beharko du, eta bideozaintzako instalazio bat eduki beharko du, eta bereziki, itxura estetikoa zaindu beharko du.

**IGOGAILU BAT BAINO GEHIAGO JARTZEA BEHARREZKOTZAT JOTZEN DUTE UDAL TEKNIKARIEK**

**Hiru fase**

Lehenik eta behin, hainbat alternatiba izango dituen lokalizazioen azterketa bat idatziko da, eta ostean, ezartze aurreproiektu bat, atal hauek kontuan izanik: kokalekuak, barne eta kanpo diseinuko ezaugarri orokorrak, ontziratze eta lehorreratze eremura iristeko bideen tratamenduak, urbanizazio obra osagarriak, eta hauen aurrekontuak.

Behin hori eginda, exekuzio proiektua idaztea izango litzateke eman beharreko azken urratsa.

## Baserritarren azokak karapaixo usaina izango du

Garizuman barneratzeaz bat karapaixo sasoia heltzen da, eta beste hainbat urtetan bezala, horren eragina nabaria izango da hileroko baserritarren azokan. Martxokoa, bihar egingo dute, eta bertan produktu ezagun hori egiten ikasteko tailerra eskainiko dute.

Hamahiru postu inguru izango dira, era honetako produktuekin: frutak, babarrunak, arrautzak, txorizoak, euskal pastela eta kontserbak.

**Hiru postu berezi**

Biharko azokan, baserritarren produktuez gain, hiru ekimen laguntzeko postuak ere izango dira. Kilometroak jaialdiko lagunek baimena eskatu dute postutxoa jartzeko, baina ez dira bakarrak izan. Arizmendi ikastolakoek ere postua jarriko dute ikas-bidaiarako dirua batzeko, eta Sahararen aldeko Sahiri elkartekoak ere bertan izango dira bigarren eskuko produktuekin osatutako postutxoarekin.

## Kiroldegi berrirako ereduak ikusten aritu da Udal gobernua

2018ko Udal aurrekontuetan etorkizuneko kiroldegia diseinatzeko partida bat dago aurreikusita. 40 urte bete dituen kiroldegia hobetzeko, Udal gobernuak jada hasi ditu herriko kirol taldeekin kontaktuak. Horrez gain, Tolosako eta Beasaineko kiroldegiak ere bisitatu dituzte, nolakoak diren eta nola funtzionatzen duten jakiteko.



NIRE USTEZ

INES ALDAI

## Gaur... futbolera noa

Futbola gustatzen zait. Hori esatea... Bai, badakit ez dela oso intelektuala geratzen, baina hala da.

Gainera, kontra daudenek esaten duten arrazoi berberagatik: "Horrela ez dugu pentsatzen beste arazo batzuen gainean"... Eta?

Alde batera begiratuta (ez dira nire hitzak baina bat nator): "Hezkuntza publikoak murrizketa ikaragarriak izan ditu azken hamarkadan, eta horrek dakartzan ondorioak argiak eta nabariak izan dira: langile kopurua murriztu, hezkuntza langileen baldintzak okertu, ikastegietako baliabideak murriztu, azpiegiturak okerrago..."

Bestera: "Milaka pentsiodunek protesta egin dute, pentsioak kudeatzeko politika soziala salatzeko..." Orain dela gutxi izan da martxoaren 8a; emakumeen aldarrikapen eguna. Zenbat urtetan? Eta, zenbat urte geratzen zaizkigu oraindik?

Hau da bizitzea tokatu zaiguna, ez dago besterik. Arazo guzti hauekin borrokatu behar dugu egunero. Bakoitzak, ahalik eta hoberen dakien moduan egingo die aurre.

Eta borroka hauetan, astean behin, atsedena hartu nahi dugunean, barkamena eskatu behar?

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

# Hezkuntza publikoari begirada, gurasoekin

EHIGEko lehendakari Lurdes Imazek eta Gipuzkoako ikasleen gurasoen Baikara federazioko Usoa Urbietak 'Gaur egungo Eskola Publikoa familiaren ikuspegitik' izeneko hitzaldia egin dute Arrasaten, eskola publikoko gurasoen aurrean



Gurasoak Imazen eta Urbietaren hitzak entzuten. TXOMIN MADINA

**T.M. / X.G.** ARRASATE

Hezkuntza publikoko langileen baldintzak albiste izan diren aste honetan, gaiari buruz asko dakiten bi pertsonek hitzaldia egin dute Arrasaten. Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko (EHIGE) presidente Lurdes Imaz, eta Gipuzkoako ikasleen gurasoen Baikara federazioko Usoa Urbieta, Kulturateko areto nagusiko oholtzara igo ziren, gaur egungo hezkuntza publikoari buruz hitz egiteko, familien ikuspegitik.

Hainbat gairen inguruan egin zuten berba. Jaurlaritzak martxan jarri duen hezkuntza akordioaz hitz egin zuten, esaterako. "Esan beharra dugu, ez garela prozesu horretan parte hartzen ari, ez gaudelako ados Eusko Jaurlaritza egiten ari den planteamenduarekin. Gure ustez, planteatu beharreko gaiak ez daude mahai gainean, eta ez dago benetako gogorik hezkuntza sistemaz hitz egiteko" azaldu zuen EHIGEko presidente Lurdes Imazek.

**Segregazioaren kontra**

Zubiak eraikiz elkarteak eskola segregazioaren kontra legebiltzarrera eroan gura duen *Eskola Inklusiboa* Herri Ekimen Legegilea ere hartu zuten hizpide. "Datu orokorrak begiratuta Eskola Publikoa da aniztasun gehien daukan eredua. Bigarren postuan Kristau Eskolak egongo lirateke, eta azkenik, Ikastolak eta beste kooperatiba batzuk. Horrek, etorkizun hurbil batean, gizarte banatu bat ekarriko du, eta gure ustez oso garrantzitsua da horri aurre egitea. Konponbide on bat izan daiteke gure ustez, aniztasunaren alde egiten ez duten ikastetxeei diru publikorik ez ematea".

Imazen ustez, ghetto bat ez da ikasle etorkin asko dituen ikastetxe bat, baizik eta aniztasuna ondo banatuta ez daukan edozein ikastetxe.




TXOMIN MADINA

## Azken eraso matxista salatuz

Martxoaren 8aren gau aldean gertutako eraso matxista salatzeko elkarretaratzea egin zuten Herriko Plazan. Emakumeen Mundu Martxatik adierazi zuten "pena izan zen zela, martxoaren 8ko egun borobila horrelako albiste batekin amaitzea". Erasoa jasan zuen emakumeak salaketa jarri du, eta ustezko erasotzailea aske dago, epaiketaren zain.



# "Irakurketa girotzen laguntzen du musikak"

**ITXARO BORDA** IDAZLEA

Itxaro Bordak eta Itsaso Gutierrezek 'Hots Bete Ahots' emanaldia eskainiko dute gaur, Kulturateko Areto Nagusian, 19:00etan; Martxoaren 8aren baitako ekitaldia da



Itxaro Borda. I.B.

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

*Hots Bete Ahots* emanaldia abenduan estreinatu zuten Tabakaleran, eta orain beste herri batzuetan eskaintzen hasiko dira. Lehen geltokia gaur izango dute, Kulturateko areto nagusian.

**Zer eskaintzen du 'Hots Bete Ahots' emanaldiak?**

Poema luze bat da, hizkuntza ezberdinetan idatzita dagoena –euskaraz, ingelesez, gazteleraz, frantsesez eta abar–, eta poema horren zatiak irakurtzen ditut, Itsasoren musikaz lagunduta.

**Zein da poesia horren ardatza?**

Pentsamendua garatzen da hizkuntza ezberdinetan, hori da poesiaren oinarria. Gaiari dagokionez, emakumea eta itzulpena dira bi gai nagusiak. Zerk eragiten duen pentsamendua, zenbat hizkuntzaren beharra dugun gure hizkuntzaren pentsamendua osatzeko eta abar.

**Beraz, gauza bera hizkuntza batean edo bestean pentsatu, desberdina da zure ustez?**

Hori da, eta guztien beharra dugu guk aukeratutako hizkuntzan pentsamendu bat garatzeko. Hizkuntza asko dakizkigunok, beti ari gara itzultzen. Hizkuntza bakarrean ari denarentzat zailagoa da jolas hori egitea, informazioa edota sentsazio ezberdinak bilatzea.

**Donostian estreinatu zenuten emanaldia, ezta?**

Bai, Tabakaleran, Mugak proiektuaren baitan. Proiektua bukatu arren, hortik kanpo, beste zenbait emanaldi ematea erabaki dugu, eta bigarren emanaldia Arrasaten egingo dugu, gaur.

**Zer moduzkoa da zu eta Itsasoren arteko elkarlana? Ondo konpontzen zarete?**

Askotan egon gara elkarrekin, beste zenbait proiektutan. Oso ondo konpontzen gara. Gainera, nik badut lilura bat gitarra elektrikoarekiko. Laguntzen nau, eta hori asko maite dut. Inprobisatzeko ohitura ere badugu, eta oso eroso aritzen gara biok.

**Zertan laguntzen du musikak testu errezitaldi batean?**

Nire ustez, irakurketa aberasten du musikak. Girotzen laguntzen du, sakontzen. Osotasun bat sortzen du musikak, eta entzuleak eramaten ditu leku ezberdin batzuetara. Bi baliabideak uztartzen direnean, halako bidaia bat egiteko gonbita bezala da.

**Arrasatera itzuliko zara. Gogotsu?**

Pozik itzuliko naiz Arrasatera. Azkenekoz duela 20 urte inguru egon nintzen eta espero dut aspaldiko lagunak gu ikustera etortzea. Beraz, guztiak animatu nahi ditut saioa ikustera. Ordubeteko emanaldia izango da, euskararen eta musikaren hizkuntzaz gozatzeko.

## Kantariko entseguak egingo dituzte asteburuan haurrek

Bihar, zapatua eta etzi, domeka, Goiena telebistako Kantari saiorako entseguak egingo dituzte izena eman duten kantari arrasatearrek.

Guztira 220 gaztetxok hartuko dute parte, 55 taldetan banatuta. Arrasatearrekin batera, Aramaioko 20 ume ere arituko dira.

Kulturaten izango dira entseguak eta ordu bakoitzeko bost edo sei talde daude deituta –talde bakoitzak badaki ze ordutan egingo duen entsegua–.

Entseguen ostean, hilaren 24an eta 25ean grabatuko dituzte saioak, eta maiatzaren 26tik aurrera egongo dira ikusgai Arrasateko eta Aramaioko haurren emanaldiak, Goiena telebistan.

## Partidu garrantzitsua du Kanpanzar ART-k bihar Logroñon

Azkeneko zazpi partiduak galdu ditu Kanpanzar ART-k –azkena pasa den astean Mojategin, Garabi Goierri Ordiziaren aurka 12-26– eta liga bukatzeko geratzen diren hiru partiduak hiru final izango dira Igor Isasiren mutilentzat. "Lehenengo itzuli oso ona egin genuen, gauzak ondo atera zitzaizkigun. Bigarrena, berriz, ez doa hain ondo. Baina bagenekien denboraldi zaila izango zela", adierazi du Xabi Gardoki *Jabo*-k taldeko kapitainak.

Lehenengo finala bihar, zapatua, edukiko dute Logroñon, Marzola R.C. Rioja taldearen aurka, 17:00etan. Sailkapenean arrasatearren atzetik daude errioxarrak.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 65
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Makai enpresako lorezainak zuhaitzak landatzen Txarapeara bidean dagoen maldan. MIRARI ALTUBE

# Hainbat landaketa egin dituzte berdeguneetan

Txarapeara bideko aldapan mota ezberdinetako zuhaitzak landatu dituzte, baita futbol zelai inguruan ere; azken gune horretan, haizeteak botatakoak ordezkatu gura izan ditu Udalak. Zuhaitz mardulen aldeko apustua egin dute oraingoan

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Udaberria iristear dela, eta horretarako sasoi egokia dela jakinik, zuhaitzak landatu dituzte herriko hainbat gunetan, Txarapeako maldan eta futbol zelai inguruan, besteak beste.

Txarapean hiru zonaldetan egin dira landaketak. Batetik etxeen alboko berdegunean; bestetik, Andramari auzunetik Txarapeara egindako eskaileren bi aldeetan; eta azkenik, maldaren beheko partean, errepide alboan. Eta hainbat zuhaitz mota landatu dituzte Makai lorezaintza enpresako adituek. Hona hemen: sei astigar zorrotz; hamar pago-lizar; lau likidanbar; lau magnolia; lau urki himalaiar; hamalau basa-gereziondo; hamasei japoniar gereziondo; lau urki; eta beste lau arte.

"Mota horiek landatu ditugu aproposenak iruditu zaizkigulako. Ez genuen zuhaitz landare txikirik gura aurreko urtetan bezala; gutxieneko neurri bat izatea lehenetsi dugu", adierazi du Unai Elkoro alkateak. Landaketa horietara 10.288 euro bideratu dituzte.

### Fubol zelai inguruan

Futbol zelai inguruko landaketak, ostera, gurasoen eta neskamutikoen laguntzarekin egin zituzten orain dela hamar bat egun. "Iazko otsaileko haizeteak botatako zuhaitzak ordezkatu gura izan dira han", adierazi du Elkorok, eta gaineratu: "Pozik gaude, gainera, herritar asko gerturatu zelako lan horiek egitera".

Aurtengo landaketa guztiak egintzat eman ditu: "Oraingoz bukatu dira. Txarapea barreneko zelaian landatutako arteek arazorik ez badute ematen datorren urtean beste landaketa bat egingo dugu".

**GEREZIONDOAK, MAGNOLIAK, ARTEAK, ASTIGARRAK ETA BESTE HAINBAT MOTA LANDATU DITUZTE**

### Zebrabideen lanak bukatzear

Txukuntze lanekin jarraituta eta herriko kaleen irisgarritasuna jomuga izanik, oztopo arkitektonikoak ezabatzeko lanekin jarraitzen du Udalak. Hala, zebrabideak errepide-mailarekin berdintzen dihardute azken asteotan. Lan horiek, baina, kezka sortu dute zenbait herritarren artean, eta alkateak horien zalantzak argitu gura izan ditu: "Arduratuta etorri zaizkigu hainbat herritar lehen baino koxka handiagoak daudela orain esanaz; hortaz, argitu gura dugu lanak oraindik ez dituztela amaitu, eta behin bukatuta daudenean, ez dela halako koxkarik geratuko", eta gaineratu eguraldia lagun izanez gero, Aste Santuak ingururako bukatuko dituztela lehen faseko lanak. Eta behin horiek eginda, bigarren fasekoei heltzeko gertu izango direlakoan dago alkateak.



M.A.

## Urtegiaren aurrekoak argazkitan

Urkulu urtegia eraiki aurreko Goroeta eta Aozaratza auzoetako hainbat argazki batu dituzte Loramendiko Toponimia taldekoek, eta erakusketa egin dute horiekin. Udaletxe zaharrean izango dago hori (16:00-20:00), Aste Santuak bitartean. Argazki horien gaineko kontuak *Hura zen Urkulu* erreportaje berezian jaso dituzte –*goiena.eus*-en ikusgai dago–.

### Eraldaketaren gaineko hitzaldia martitzenean

*Eraldaketa norberaren etxean hasten da* izenarekin hitzaldia antolatu du EH Bilduk martitzenerako, martxoak 20; EHbilgunean egingo dute (Herriko Plaza), 18:30ean.

Hiru elkartetako ordezkariak izango dira argibideak ematen; hauetakoak: Izarkom (Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiba); Fiare (banketxe etiko eta kooperatiboa); eta Goiener (energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba).

Norberak, bere etxetik, asko egin dezakeela uste dute EH Bilduko kideek: "Gutako bakoitzak aldaketa txikiak egiten ez baditu gauzak ez dira sekula aldatuko", diote eta gaineratu dute: "Aldaketa horiek ekarriko dizkiguten onuren berri emango dute etorriko diren hizlariek, eta aldaketok egiteko bideak erakutsiko dizkigute".



KURTZEBARRI ESKOLA

## Bertso paper lehiaketan izan gara

**Goiena komunitatea** / Kurtzebarri eskola / ARETXABALETA

Eskolarteko bertso paper lehiaketan hartu zuen parte Kurtzebarri eskolako talde batek. Lan txukuna eginda sariekin itzuli ziren, gainera. Bigarren zikloan lehen saria eskuratu zuen Unax Gonzalezek, eta bigarrena, Nahia Marmolejok; eta hirugarren zikloan, lehen saria jaso zen Mohamed Limanek.

# "2018a ere ekimen mordoarekin dator"

Basotxo erretiratuen elkartekoek urteko batzar orokorra egin zuten egubakoitzean, eta 2017an egindako kultura ekimenek izandako harrena ona azpimarratu zuten. Tere Delgado da idazkari berria, eta Kontxi Romano presidenteordea

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA

2017ari errepasoa egin, eta aurrera begira jarri. Hori da Basotxo erretiratuen elkarteko lagunek joan den egubakoitzeko batzar orokorrean egin zutena. Hala, urteko datuei dagokienez elkarteak urte amaieran 980 bazkide zituen –576 emakumezko eta 404 gizonezko– eta zuzendaritzan aldaketak egiteko ere aprobetxatu zuten batzarra. Hala, Tere Artanok idazkari izateari utzi dio, eta Tere Delgadok bete du haren lekua, eta Xabier Zaloñaren ordez Kontxi Romano da orain presidenteordea.



Joan den egubakoitzeko batzar orokorreko momentu bat. I-SORIANO

**Pozik egindako ekimenekin**

Urtean zehar antolatutako ekimenei dagokienez: "2017a oso oparoa izan da. Harreman instituzionalak indartu ditugu, bidaiak egin ditugu, berbaldiak antolatu ditugu eta bestelako zerbitzuak ere eskaini ditugu, esaterako, kafetegi zerbitzua, podologia, ile-apaindegia...", adierazi du Tere Artanok.

Hala ere, ekimen kulturalek eta elkartetik antolatutako bidaiek izan dute bereziki arrakasta: "Guztira hamabi bidaia egin ditugu, eta horietako hiru astebetekoak izan dira. Eta, kultura hitzorduek aparteko arrakasta izan dute. Guztira hamaika ekimen antolatu genituen, eta ikastaroek, berbaldiek, horma-irudia egiteko proiektuak, antzerkira egindako irteerak... Harrena ona izan zuten. Gainera, kantu taldeak ere lan dezente izan zuen".

**Hamabost emanaldi**

Kantu taldekoek guztira hamabost emanaldi egin zituzten 2017an, horietako batzuk Gipuzkoan barrena: "Baina azpimarratzekoak izan ziren Aretxabaletan eta Eskoriatzan egindakoak, oso arrakastatsuak izan zirelako. Horrekin batera, Bergaran egindako abesbatzen topaketan ere esku hartu genuen, eta dantza taldeak ere Dantzaren Astean hartu zuen parte, eta oso txalotua izan zen taldekideen emanaldia".

**2018RA BEGIRA ERE EKIMEN MORDOA PRESTATZEN DABILTZA BASOTXOTIK**

**Kultura Aste emankorra**

Basotxon bertan egindako Kultura Asteak emandakoarekin ere pozik geratu ziren: "Aste horren barruan egin genituen ekimenen barruan nabarmentzekoa izan zen moda desfilea, ikustera etorri ziren guztiek gozatu ederra hartu zutelako. Eta, ezin dugu ahaztu gure erretiratuetako batzuek aste horretan erakutsi zituzten eskulanak; eta batez ere, Aratz elkarteko kideek egindakoak azpimarratu gurako genituzke". Hala, 2017an egindako ekimenekin amaitzeko, elkarteko kide askok jarraitzen dituzten *Memoria Tailerrak* izeneko ekimena nabarmendu du Artanok.

**2018ra begira lanean**

Iazkoak alde batera utzita, Basotxoko lagunak dagoeneko buru-belarri dabiltza aurtengo ekimenak prestatzen: "Bidaiak, berbaldiak, dantza eta kantu ikastaroak... Ekimen mordoa izango da aurten ere, eta herri mailako ekimenetan ere parte hartuko dugu, noski".

## Mobilizazio deialdiak

Datozen egunetarako prest dituzten mobilizazioen berri ere eman zuten; izan ere, aretxabaletarrak ere erretiratuen pentsio duinen aldeko borrokan esku hartzen dabiltza. Hala, bihar, martxoak 17, Donostian egingo duten manifestaziorako autobusa jarriko dute (Azben, 16:00etan, itzulera 20:00etan) eta autobuserako izena Basotxon bertan eman behar da. Horrekin batera, astelehenero elkartzen dira udaletxe aurrean (12:00) pentsio duinak eskatzeko.



Lur azpiko mundu ikusgarrira egindako bidaia da 'Urzulo'. AMET

# 'Urzulo' dokumentala egongo da ikusgai hilaren 22an

Aloña Mendiko Espeleologia Taldeak Aloñaren iparraldean dagoen koban egindako lana batzen du

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako *Dokumentaldiak* ekimenaren barruan erakutsiko dute *Urzulo* hilaren 22an (18:30ean, udaletxe zaharrean). Oñatiko Espeleologia Taldeak egindako lana Bilbao Film Festival-ean erakutsi zuten 2015ean –Euskarazko pelikula onenaren saria jaso zuen– eta oinarrian, Aloña Mendiko iparraldean dagoen Urzulo izeneko kobazuloan egindako lana batzen du: "Gidoiaren indarra, iluntasunean grabatzeak daukan zailtasuna eta Euskadiko leku ezezagunak azaleratzeko espiritua" nabarmendu zuten orduan.

**80ko hamarkadan egindako lana**

Urzulo kobazuloa 80ko hamarkadan esploratu zuten, baina kobazuloan bertan zegoen urak traba handiak eragiten zituen sakonago esploratzen jarraitzerako orduan, eta lanak amaitutzat eman zituzten. Hala, eguenean, dokumentala erakutsi ostean, espeleologia taldeko lagunek azalduko dute zelan ekin zioten ostera ere, ia hiru hamarkada geroago, Urzulo sakonago esploratzeari.

## 'Mari Leka eta Panpoxaren abenturak', domekan

Haurrendako antzerkia izango da domeka eguerdian Arkupeko Zaraia aretoan (12:00-13:00). Hala, Zirtada taldearen eskutik *Mari Leka eta Panpoxaren abenturak* lana egongo da ikusgai (3 euro).

Mari Leka eta Panpoxa ikastetxe berean dauden bi neska dira. Egun batetik bestera beraien eskolara kanpotik etorritako hainbat haur heltzen ari direla konturatzen dira. Batzuk gurasoek ekarriak dira, beste batzuk gerratik ihesean, beste batzuk adoptatuak... Eta guztiek dakartzate haien hizkuntza eta haien abestiak. "Zergatik datoz haien herrietatik?", galdetuko dute neska-mutikoek; *Muturoker* pertsona gaiztoari galdetu behar...

## 'Jose Moxe kitarraren etxean gertatutakoak' ipuin kontaketa bihar

Ixabel Agirresaroberen eskutik ipuin kontaketa emanaldia egingo dute bihar Udal liburutegian (11:30-12:30). Doan izango da.

Agirresarobek (Usurbil, 1971) hogei urtetik gora daramatza lanbide honetan. 1990an hasi zen eta ordutik Euskal Herriko makina bat toki bisitatu du. Batez ere haurrentzat, baina helduentzat eta familia osoarentzat ere saioak egin izan ditu. Bakarkako saioez gain Gorringo taldearen kontaketa gehienetan parte hartu du Anjel Alkainekin eta Iñaki Agirrezabalekin batera. Horrekin batera, ETB-1 telebista katean *Ipupomamua* saioan parte hartu zuen kontalari gisa.

# Euskaraldiak herritarren laguntza behar du

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo den ekimena gertatzeko lanean hasita dago batzorde bat, eta orain, informatzaile izan gura duten aretxabaletarrak behar dituzte; martxoaren 19an, egingo dute bilera udaletxe zaharrean (19:00)


Batzordeko kideak bilera batean. LORAMENDI ELKARTEA

**Mirari Altube** ARETXABALETA

*Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimenaren antolatze lanetan dagoeneko hasi dira Aretxabaletan ere. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da, Euskal Herriko gainerako herrietan lez, eta ordurako lan asko dagoela egiteko argitu dute horretarako sortu den batzordeko kideek.

### Maiatzean eta irailean lan asko

Larraitz Berezibar gazte aretxabaletarra dabil ekimena dinamizatzen, eta horrekin batera daude batzordean honako hauek: Oihana Garcia, Maje Umerez, Oinatz Agirre, Miren Arizmendiarrieta, Unai Bengoa, Amaia Idigoras, Miren Arietaleanizbeaskoa, Ane Lore Estala eta Martin Berrizbeitia.

Orain, ostera, informatzaile sare bat osatu gura dute, eta horretarako, laguntza eskatu diete herritarrei: "Euskaraldiaren inguruko ekintzen berri herrian zabalduko duten lagunak behar ditugu; informatzaile sare bat osatzea da asmoa", dio Berezibarrek. Horretarako bilera deitu dute martxoaren 19rako, astelehena; udaletxe zaharrean izango da, 19:00etan. "Batzordeko kideok bagabiltza geure aldetik jendea elkartu nahian, baina gutxitxo direlakoan gaude, eta horregatik, herritarren laguntza behar dugu", gaineratu du. Era berean, batzordea aurkeztuko dute, eta ekimenaren nondik norakoen berri emango diete elkartutakoei.

Informatzaile horien lana izango da antolatuko diren ekimenen berri ematea gainerako herritarrei: "Lanik handiena izango dute maiatzean eta irailean. Maiatzean, bi kontugatik; batetik, komertziotara gerturatu beharko dugulako ekimenaren berri ematera, eta bestetik, euskararen egunean egingo den entsegurako laguntza beharko delako. Eta irailean, *ahobiziak* eta *belarriprestak* topatu beharko dituztelako".

Herriko elkarte bakoitzetik ordezkari bat etorriko da informatzaile sare horretara, eta horiez gain, beste 30en bat lagun batu gura dituzte. "Zenbat eta lagun gehiago izan lana samurrago egingo dugu, hortaz, animatu eta gerturatu bilerara", gaineratu du.

### Euskaraz egitera pasatzea

*Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ekimenaren helburuak hainbat dira, besteak beste, euskararen alde egotetik egitera pasatzea; hizkuntza ohituretan eragitea; eta euskal hiztunen sarea zabaltzea. Izaera nazionala izango du, herrigintzak eta erakundeek bultzatuta, eta Aretxabaletan, herritarrek dihardute lan horretan azaroaz geroztik Udalaren eta Loramendi elkartearen laguntzarekin.

Ekimenarekin bat egiten dutenek hauetako rol bat hartuko dute; bata, *ahobizi*, euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko konpromisoa hartzen duena eta ezezagunei lehen berba euskaraz egingo diena; eta bestea, *belarriprest*, euskara ulertzeko gaitasuna izanik, euskara entzuteko gogoa duena. Horretarako izen-emate epea udazkenean zabalduko dute.

## Joskintza ikastaro bi egingo ditu Gu Haziak Garak, martxoan

Josteko makina erabiltzen eta fraka barrenak hartzen erakutsiko dute Gu Haziak Gara elkarteko kideek datorren astean, martxoaren 19an, 20an eta 21ean. Hona hemen ordutegia: 09:30-11:30 eta 18:00-20:00. Joskintzaren oinarrizko ezagutzen gaineko hainbat ikastaro egin dituzte dagoeneko, eta harrera beroa izan dute guztiek.

Bestetik, kremailerak zelan josi ere irakatsiko dute beste hiru saiotan; martxoaren 26an, 27an eta 28an, hain zuzen ere. Ordutegiari dagokionez bi aukera eskaini dituzte, oraingoan: 15:00-17:00 edo 18:00-20:00.

Izena emateko elkarteko kideengana jo behar dute interesatuek; hona hemen bideak: *guhaziakgara@gmail.com* eta 688 62 37 18. Prezioa da 10 euro ikastaroko, eta langabeek debalde izango dutela iragarri dute antolatzaileek.




IÑIGO URIBARREN GARAY
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOko ikasle arrasatearra

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2018
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaten, Arrasaten

goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

IKASKETAK:
Erdi-mailako eta goi-mailako ziklo bana egin ditu.

GAUR EGUN:
Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa goi-mailako heziketa zikloa ikasten, bigarren mailan. Praktikak burutzen Copreci kooperatiban. Lanbide Heziketako ikasketak goi-mailako kirol jarduerarekin bateratzen ditu.

**Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**
DBH bukatuta batxilergoa hasi nuen, baina ez nuen motibaziorik topatu jarraitzeko, eta orientatzaileak erdi-mailako ziklo batera bideratu ninduen; Kirol jardueren gidaritza egin nuen Oñatin.

**Zein izan da zure ibilbidea Lanbide Heziketan?**
Erdi-mailako zikloa amaituta, urtebetean sarbide froga prestatu, eta goi-mailako Itsas garraioa eta alturako arrantza ikasi nuen. Baina lanerako aukera gutxi zegoen arlo horretan, eta horregatik, ikasten jarraitzea erabaki nuen.

**Eta zein izan zen hartutako erabakia?**
Unibertsitatera joateko aukera mahai gainean jarri nuen, baina inguruko enpresa asko industrialak direla ikusita, eta mekanika arloko Lanbide Heziketa ikasi duten ingurukoen esperientzia ezagututa, Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa goi-mailako heziketa zikloa ikasten hasi nintzen. Eta oso gustura nago.

**Zein da zure helburua orain?**
Bi urtetan lanean hasteko prestatu naizela uste dut. Eta gogotsu nago lanean hasteko. Badirudi, gainera, eskaera handia dagoela arlo horretan.

**Nola moldatzen zara kirol jarduera eta ikasketak bateratzeko?**
Astean birritan joaten naiz Donostiara entrenatzera, eta laguntza handia eman didate irakasleek entrenamenduetara eta kontzentrazioetara joan ahal izateko; laguntzeko prest daude, azterketa datak moldatu dizkidate, esaterako.

**Gomendatuko al zenuke Lanbide Heziketa?**
Bai, aukera interesgarria dela uste dut. Badirudi batzuetan unibertsitatea dela aukera bakarra, eta ez baduzu hori egiten ez dagoela besterik. Baina geroz eta argiago dago Lanbide Heziketak aukera asko zabaltzen dituela.



Bidegorri zatia itxita dago oinezkoentzako. IMANOL BELOKI

# Bidegorria datorren astean zabalduko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak ezegonkorra den ezponda behin-betiko konpontzeko proiektua idatzi du, eta aurten egingo dituzte lanak. 471.825 euroko aurrekontua du, eta Mugikortasun eta Bide Azpiegitura departamenduen artean finantzatuko dute

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Euriteen ondorioz, hainbat lurjausi izan dira Eskoriatzako bidegorrian, eta azkenengoa izan zenetik, itxita dago bidegorri horren zati bat; Intxaurtxuetako zubitik Olazarreko tunelera doan bide zatia, hain zuzen ere.

Horren harira, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariek adierazi dute hamar eguneko epean irekiko dutela bidegorria, eta horretarako, maldan behera jausi daitekeen lurrak eusteko jarrita dauden hormigoizko blokeak behar bezala ezarriko dira.

**Ezponda egonkortzeko lanak**

Ezegonkorra den ezponda hori behin betiko egonkortze aldera proiektu bat idatzi du Foru Aldundiak eta 2018an hasiko dituzte lanak.

Guztira 2.262 metro koadroko azalera egonkortuko da, ezponda eusteko horma bat jarriz. Proiektuaren aurrekontua, berriz, 471.825 eurokoa da, eta hiru hilabetetan egingo dituzte lanok. Aurrekontua, Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegitura departamenduen artean finantzatuko dute.



## Apotzaga auzoko lur-jausia

Otsailean, Apotzaga auzoko bidean, beste lur-jausi bat izan zen. Autobide azpitik pasatu eta metro batzuetara, pinudi batetik behera lurra jausi zen, ia errepideraino. Ohartarazpen gisa, seinaleak jarri zituzten bertan.



Ikasleak eta Jokin Bereziartua aurkezlea, Agurtzane Elorriagarekin. OIHANE ISASI

## Agurtzane Elorriagarekin izan dira Almeneko ikasleak

Bizkaia-Durango Euskadi Murias ziklismo taldeko zuzendariari egindako elkarrizketa ikusgai hilaren 21ean

**I.B** ESKORIATZA

Bizkaia-Durango Euskadi Murias ziklismo taldeko zuzendaria da Agurtzane Elorriaga, eta Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan izan da, *Galdegazte* saioan, kontu-kontari.

Arizmendi ikastolako Almen guneko Garazi Estebez, Nora Carmona eta Julene Mediavilla ikasleak izan dira protagonistari galderak egiten, Jokin Bereziartua aurkezlearekin batera.

**Ikasketak aurrena**

"Txirrindularitzan hasten zarenean disfrutatzea da garrantzitsuena. Gero, serioago hasteko garaia etorriko da. Eta noski, ikasketak izan behar dira lehenengo gauza, txirrindularitzaren aurretik", adierazi die Elorriagak gaztetxoei, eta gaineratu: "Txirrindularitza oso kirol gogorra da, eta diziplina handia eskatzen du. Horretarako planifikazioa oso garrantzitsua da, eta hain zuzen hori, bizitzako hainbat arlotarako lagungarria izan daiteke...".

Agurtzane Elorriagari egindako elkarrizketa martxoaren 21ean, eguaztena, ikusteko aukera izango da, 21:30ean.

## Istorio gogorrekin beteta, anaitasunari buruzko lana

Fuchs anaien eta Ander Lipusen 'Zazpi Senideko' antzerkia izango da domekan, Zaldibar antzokian

**I.B.** ESKORIATZA

Axut kolektiboaren lehen lan hau, *Zazpi senideko* antzezlana, otsailaren 8an estreinatu zuten Ipar Euskal Herrian, Larzabalen (Nafarroa Beherea), eta Hego Euskal Herriko estreinaldia, Eskoriatzan egingo dute, domekan, 19:00etan, Zaldibar antzokian.

Ximun eta Manex Fuchs anaiek eta Ander Lipusek zuzendu dute antzezlana, eta bi anaiak izango dira agertokian aktore lanetan. Anaitasunaren gaineko antzezlana istorio gogorrez beteriko lana da, zazpi artista euskaldunek idatzitakoak, hain zuzen ere –Lander Garro, Gaizka Sarasola, Lorentxa Beyrie, Aitzaro Arano, Argi Perurena, Unai Iturriaga eta Eñaut Castagnet–.

Egiazko gertakariak oinarri izanda fikzioaren bidez borobildu dute lana, eta hainbat gairen inguruan hausnartu: presondegia, tortura, dispertsioa, gurasoen bereiztea, tumorea, istripu batek goizegi hil duen anaia... Testuinguru gogor horretan, irri egiteko uneak ere eskainiko ditu antzezlanak.

# Gugandik gertuen dagoen izarra ezagutzen

Eguzkiaren inguruko ikastaroa eginda, domekan, itxiko da astronomia tailerren zikloa. Aurreko saioek izandako arrakastaren ostean, hirugarren honetarako izen-ematea zabalik dago oraindik; horretarako bidea kultura etxea izango da

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Domeka honetan astronomia zikloaren barruan, hirugarren ikastaroa izango da Eskoriatzako kultura etxean. Aurrekoetan moduan, 17:00etan hasiko da ikastaroa, eta bertara joaten diren gaztetxoek, astronomiaren gainean gehiago ikasteko aukera izango dute. Hain zuzen ere, 8 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta oraingoan, gugandik gertuen dagoen izarra hobeto ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen direnek: eguzkia.

Aranzadi Zientzia Elkarteko astronomo Virginia Garcia egongo da haurrei azalpenak ematen. Lehenengo arlo teorikoa landuko dute pixka bat, eta ondoren arlo praktikoa. Hala, eguzkiaren aktibitate zikloak eta aurorak, ezagutuko dituzte besteak beste, eta hainbat tresna erabiliko dituzte horretarako: ikus-entzunezkoak, eguzkia behatzeko tresnak...



Astronomia tailerreko lehenengo ikastaroan gaztetxoak adi-adi. IMANOL SORIANO

### Behaketa astronomikoa

"Alde teorikoari dagokionez, eguzkiaren aktibitatea eta eguzkiaren mugimendua ikusiko ditugu. Eta alde praktikoan, eguzki erloju bat egingo dugu. Eguraldi ona egiten badu, eguzkia behatzeko aukera ere izango dugu... Orain arteko saioetan, bai haurrak eta bai beraiekin etorri diren gurasoak, oso gustura egon dira eta interes handiarekin jarraitu dituzte ikasgaiak. Astronomia ziklo honi bukaera emateko, kultur etxeak behaketa astronomiko bat egiteko asmoa du, apirilean", adierazi du Garcia astronomoak.

### Haurren gogoko tailerrak

Astronomia tailerren barruan, lehenengo saioa, mikrometeoritoen gainekoa izan zen, eta ostean egin zena, konstelazioen, izarren eta planeten gainekoa. Biak ala biak arrakastatsuak izan ziren; izan ere, plazak –mugatuak– bete egin ziren bi kasuetan. Hala, haurren oso gustuko tailerrak izan zirela adierazi du Arantxa Unzueta kultura teknikariak pozik: "Oso ondo egon dira tailerrak, eta hau astronomia zikloaren barruan egingo dugun azkena izango da. Hala, nahi duenak aukera du oraindik izena emateko; beti bezala, 943 71 46 88 telefonora deituz, edo kultura etxera joanda".

## Kopan, liderra garaituz

Pasa den zapatuan, Eskoriatzako gazteen mailako areto futboleko taldeak, garaipen handia lortu zuen kopako txapelketan, ligako txapelduna den Calazanz taldearen aurka. Denboraldi honetako partidurik osoena egin zuten *Arri*-k entrenatutako mutilek, eta 2 eta 4 amaitu zen partidua; golak sartu zituzten Oierrek bi, Gorkak eta Murillo atezainak.



ASIER KEREJETA



Matilde Arreseri Toki Eder erretiratuen elkartekoek egindako omenaldia. I. B.



Matilde Arrese, Soran Etxean, Sorginak Emakume taldekoekin. MIREN ARREGI

## Sasoi betean bete ditu Matilde Arrese gatzagarrak 100 urte

Sorginak emakume elkartekoek eta Toki Eder erretiratuen elkartekoek omendu egin dute egunotan

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Eguaztenean, martxoaren 14an, 100 urte bete zituen Matilde Arresek, eta egunean bertan zoriondu zuten erretiratuen elkarteko kideek. Aurretik, zapatuan, Sorginak emakume elkartekoekin batera ospatu zuen. Izan ere, 100 urte ez dira egunero betetzen, eta Matildek pozarren hartu zituen berarendako prestatu zituzten ospakizunak.

### Sorginen errekonozimendua

Sorginak emakume elkartekoek omenaldi txiki bat egin zioten zapatuan, Soran Etxean. Martxoaren 8aren bueltan bazkaltzeko elkartu ziren, guztira, 30 emakume, eta bide batez, han egin zioten errekonozimendua Matilderi. Lore-sorta eta oparia eman zioten, eta berarendako prestatutako bertsoa abestu ere bai. Matilde Arrese, Sorginak emakume elkarteko beteranoetako bat da, duela 30 urte, elkartea sortu zenean, bertan baitzen. Hala, antzinako argazkiak ikusteko tartea hartu zuten, aspaldi egindako bidaietakoak...: eta bazkalostea, AZ Gaubelak taldeko DJek musikarekin girotu zuten.

### Erretiratuen ospakizuna

Toki Eder erretiratuen elkartekoek, berriz, eguaztenean, bere egunean, egin zioten errekonozimendua. 12:00etan, elkartean bertan batu ziren hainbat kide, baita Matilderen lagunak eta senideak ere.

Txistulariek egin zioten harrera lehenbizi, eta ostean, lore-sorta eta zapi bat jaso zituen opari gisa. Egun horretarako prestatutako bertsoa ere abestu zioten guztien artean, eta bertaratu zirenek sinatu egin zuten gero bertsoaren alboan.



Gazte taldea topa egiten 2013ko Sagardo Eguneko afarian, gaztetxean. IMANOL SORIANO



Gazte Asanbladak 2012an egindako Umeen Eguna. GAZTE ASANBLADA



Jende ugari 1998ko Asentzio Egunean euskal dantzak ikusten. GOIBEKOKALE

# Bazen behin gaztetxe bat...

Bihar, zapatua, emango diote amaiera Elgetako gaztetxearen ibilbideari. Jende asko ibili da inguruan: herriko gazteak, ez hain gazteak, eta musika talde edo bestelako gonbidatu ugari. Nork bere bizipenak eta oroitzapenak gordeko ditu, ziur

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Gazte Asanbladak biharko antolatu duen jaiak bi dimentsio ditu. Urteurren jaia da; izan ere, 22 urte betetzen dira herriko gazteek gaztetxea okupatu zutela. Amaiera jaia ere bada, ordea. Azken festa horren ostean itxiko ditu ateak Elgetako gaztetxeak.

Horrelakoetan ia saihestu ezinezkoa da atzera begira jartzea, eta aldizkari eta argazki zaharrek aukera bikaina ematen dute gaztetxeak herrian izandako garrantziaz jabetzeko.

1992ko urrian jaio zen Elgetako Gazte Asanblada (EGA) eta urte hauetan guztietan izaera eta lan erritmo desberdinak izan ditu. Lema eskutik eskura ibili da, eta lan dinamikak eta ardurak 30 urteko epean jaiotako kinta desberdinetako elgetarrek hartu dituzte, txandaka. Gazte asko ibili dira gaztetxearen bueltan: batzuk ardurak hartuta eta beste batzuk erabiltzaile soil modura. Sasoi batean hain gazteak ez ziren elgetarrak ere lekua aurkitu zuten gaztetxean, eta herrira begirako ekintza ugari bultzatu izan dira bertatik.



Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizu gaztetxeko lehen urteetan, Elgetan. GOIBEKOKALE

**Gazte Asanbladaren sorrera**

Esan daiteke Ozkarbi elkarteko lehen solairuan zegoen egongelan hasi zela Gazte Asanblada forma hartzen. Bertan batzen ziren 16 urte bete ostean elkarteko giltza hartzen zuten gazteak. Hainbat desadostasun sortu ziren elkarteko zuzendaritzarekin eta egoerak bere gorena jo zuen 1992ko Nafarroa Oinez jairako autobusa antolatzerakoan. Ipinitako baldintzekin ados ez, eta gazteek, beste autobus bat antolatzea erabaki zuten. Gazte Asanbladaren izenean sinatu zituzten kartelak. "Hasi ginen kultura etxean elkartzen eta ikastaro batzuk antolatzen", gogoratzen dute orduko gazteek. "1994an hasi zen Gazte Asanblada indarra hartzen. Orduan hasi ginen gure ekintzak egiteko lokala eskatzen".

Eskaerak ez zuen esperotako erantzunik jaso. Inguruan zeuden gaztetxeetatik ez zetorren albiste onik eta Udal arduradunek ez zuten kontua argi ikusten.

Gazte Asanbladatik lanean jarraitu zuten. Hankapalo, txalaparta, eta trikitixa ikastaroak antolatu zituzten. 1994ko martxoaren 8an, berriz, Gazte Asanbladako emakume talde batek merendola egin zuen plaza erdian. Horrekin batera, herri aldizkari bat sortzeko ideia garatu zuten gazteek. Goibeko euskara elkartea sortu eta 1995eko apirilean ikusi zuen argia *Goibekokale* aldizkariak. "Kultura etxea, frontoi zaharra eta gero-ra gaztetxea izango zen eraikina uzten zizkiguten gure ekintzak egiteko", azaltzen dute.

Lan dinamika handitzen joan zen, eta Asentzio Eguna berreskuratzeko ahaleginean saiatu ziren gazteak. 1995eko maiatzean egin zuten lehenengo aldiz. Hurrengo urteko Asentzio Egunean ehun lagun elkartu ziren bazkaltzeko. Kopuru polita zen.

Jarraian etorri zen Gazte Asanbladatik antolatutako lehenengo kontzertua. 1995eko urrian egin zuten eta frontoian izan zen. Pottoka, Tapia eta Leturia Band eta Bizkar Hezurra taldeek jo zuten. "Behin eta berriz joan ginen udaletxera lokala eskatzera. Benetan behar genuen", diote protagonistek.

**Gaztetxearen okupazioa**

"Hiru urte lanean eman eta gero atea bota behar izan genuen kasu minimoa egiteko", jasotzen

**AZKEN URTEETAN JAITSITA EGON BADA ERE MUGIMENDU HANDIKO GAZTETXEA IZAN DA ELGETAKOA**



Gaztetxearen 16. urteurreneko triki poteoa. GOIENA



Colina eta Zubeldia gaztetxeko 14. urteurrenean. GOIENA



Elgoibarko gaztetxeko kideak barran jaietan. GOIBEKOKALE



Asanbladan neskak izan dira gehiengo hasieratik. GOIBEKOKALE

du gaztetxearen lehen urteurrenerako kaleratutako aldizkariak. Eraikinean sartu eta sarraila aldatu zuten gazteek. 1996ko apirilaren 22a zen. Herrian akanpada egitekoak ziren EGIko gazteei agindua zien lokala Udalak.

Gorabehera batzuk izan ostean gazteen erabilerarako gelditu zen eraikina. Berehala etorri zen II. Asentzio Eguna. Herriak ondo erantzun zuen eta askotariko jendea gerturatu zen lanera. "Uztailean jaiak etorri ziren eta barra moduko bat ipini genuen. Garagardoa amaitu egin zen", gogoratzen dute elgetarrek.

Lokalaren egokitzapen lanak etorri ziren jarraian. Enrike Perez *Txikiturri*-k egin zuen gaztetxeko barra. Agertokia ere gertatu zuten. Lan dinamika polita jarri zen martxan eta lan talde bereziak sortu zituzten: garbiketa brigada, barrako txandak, edarien eskaera egiteko taldea, diruzaintza... "Kamisetak ere atera genituen. Herritarren erdiak zeukan kamiseta hura".

Gaztetxeak, astean zehar, elkarte moduan funtzionatzen zuen. "Giltza eskatzen zuenari ardurak hartzeko esaten zitzaion. Hori zen funtzionamendua".

## GAZTE ASANBLADAK ERAKUSKETA PRESTATU DU URTEOTAKO ARGAZKIEKIN

### Askotariko ekintzak

Kontzertu asko egin dira Elgetako gaztetxean. "Sasoi batean hamabostean behin egiten genituen. Taldeek gaztetxean jo nahi zuten eta itxaron zerrenda genuen. Jendea ere asko mugitzen zen", gogoratzen dute gaztetxeko sorreran ibilitakoek. "Eta iritsi zen une bat Udalarekin adostu genuela gaztetxetik antolatzea herriko jaietako lau egunetako kontzertuak".

Kontzertuekin batera diapositiba emanaldiak, hitzaldiak, futbolin, partxis, zein mus txapelketak, irteerak... antolatzen ziren. Egutegian, berriz, lekua egin zuten esanahi berezia hartu zuten zenbait ospakizunek: Asentzio Eguna, Umeen Eguna, Urteurreneko Jaia, Udaberri Jaia... Azken biek, bereziki Sagardo Egunak, jarraipena izan du gaurdaino. "Proiektore bat ere erosi genuen eta umeendako pelikulak ematen genituen gaztetxean", diote hasierakoek. "Gaztetxekide txartela sortu genuen, eta hiru hilabeteko programazioa ateratzen genuen. Barra, berriz, zabalik egoten zen aste bukaeratan. Bizpahiru lagun zeuden horretara eta txikiteoko jendea hasi zen etortzen".

Hasierako urteetan izaera oso berezia izan zuen Elgetako gaztetxeak. "Gazteendako zen, baina ez bakarrik gazteendako. Herrira zabaldutako proiektua zen eta antolatzen ziren ekintzen artean bazeuden herri guztiarendako egiten zirenak ere. Antolatutako ekintzaren arabera adineko jendea ere etortzen zen".

Inguruko gaztetxeekin harremanik zegoen galdetuta baietz diote Asanbladaren sorrerako kideek. "Abiadura Handiko Trenaren gaia mugitzen hasi zenean, batez ere", diote. Elgoibarko gaztetxekoekin harreman berezia egin zutela dute gogoan. "Barrarako txanda aldaketak egiten genituen. Elgetako jaietan gaztetxeko barran lan egitera etortzen ziren eta gu joaten ginen Elgoibarrera jaiak zirenean".

### Etorkizunera begira zer?

Biharko triki-poteoa, kantu bazkaria eta elektro-txaranga daude antolatuta. Urteurren eta amaiera jaiko ekintzak 13:00etan hasiko dira. Apirilerako, berriz, garbiketa lanak auzolanean egiteko deialdia egingo dute Gazte Asanbladatik.

Eraikina Udalarena da eta lokalarekin zein asmo dagoen galdetuta Iraitz Lazkano alkateak erantzun du lehenengo eta behin egoera zein den aztertu beharko dutela. "Aurreko batean gaztetxetik eskatu ziguten teilatuari konpondu moduko bat egiteko. Iazko aurrekontutik diru pixka bat geratzen bazaigu badugu horretarako asmoa. Gero, ikusi egin beharko da zein erabilpen eman. Izan daiteke biltegi edo izan daiteke kultura erabilpena ematea. Halako eskaerarik balego aztertu egin beharko genuke", adierazi du.



Nekazaria, zalduna, kontalaria eta jostuna izango diren herritarrak. L.Z.

# Domekan Erdi Arora bidaia boluntario talde baten eskutik

Neska-mutikoei zuzendutako bisita gidatu antzeztua 12:30ean abiatuko da San Roke kaleko iturritik

**L.Z.** ELGETA

Kale bakarreko herrixka zen Elgeta Erdi Aroan, eta ez zeukan harresirik. Orduko bizimodua erakusteko helburuarekin elkartu dira hamaika boluntario. Domekan Erdi Aroko azken mendeetara eramango dituzte bisitariak jantzi, joko eta elkarrizketa bitartez. Nerea Villak egin du gidoia, eta berak egingo ditu, etzi, gidari lanak. "Elgeta Erdi Aroan San Roke kalea zen. Iturritik abiatuko gara domekan eta kale horren bueltan ibiliko gara", aurreratu du Villak.

Nekazaria, jostuna, erromesa, errementaria, idazkaria... askotariko pertsonaiek hartuko dute bizia, baita ere oihartzun handiagokoak izan ziren Erdi Aroko bi elgetarrek, hala nola Olaegiko Otxoa Donar jauntxoak eta Calahorrako inkisidore izandako Martin Saez de Ibarrak.

### Aktoreak ilusio handiarekin

Antzezle amateurrek egingo dute antzerki berezia eta esperientzia berria izango da gehienendako. Ilusio eta gogo handiarekin jarriko dira jendaurrean. Helburu bakarra dute: herriko gazteenei Elgeta noiz eta nola sortu zen azaltzea eta orduko pertsonaiak, ogibideak eta bizimodua erakustea.

Santi Dosuna da boluntarioetako bat. Olaegiko Otxoa Donar jauntxoa antzeztuko du domekan. Urduri dago, baina pozik egindako ahaleginak pena merezi duela iritzita. "Esperientzia oso polita izan da eta asko ikasi dut Elgetari buruz. Ea domekan gauzak ondo ateratzen zaizkigun!", esan du Dosunak.

Eguraldiarekin lotuta zenbait kokapen aterpean direla esan dute, eta jakinarazi dute argi badago amaieran kanpandorrera igotzeko aukera izango dela.

## OHARRAK

### Ipuinen Ordua liburutegian, gaur

Boluntario taldearen eskutik bi saio: 16:55ean, 5 urtetik gorakoendako; eta 17:40ean, 2 urtetik gorakoendako.

### Mendi irteera Gorlara, domekan

Kantsatzeke Mendi Taldeak antolatuta hamalau kilometroko ibilbidea. Taldea 08:00etan abiatuko da herriko plazatik.

### 'Hitzez pitz' solasaldia, eguenean

Irakurketa klubaren saio berria udal liburutegian. Oraingoan Miren Amurizaren idatziak izango dituzte abiapuntu. Saioak 10:30ean eta 17:15ean izango dira. Talde irekia da eta irakurgaiak eskuragarri daude liburutegian.

# Txapelarekin borobildu gura dute biharko festa

Bihar, zapatua, jokatuko da Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketaren finala, Gasteizko Landatxo kiroldegian, 17:00etan; hiru talde ariko dira txapelaren lehian eta horietako bat aramaioarra izango da: Ibabeko Bertaren Bilobak taldea

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Bihar du azken geltokia 2018ko Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa Txapelketak, Gasteizen, urtarrilean hasitako bideari amaiera emanez. Hiru talde ariko dira nor baino nor gehiago, txapelaren lehian: Errekaleor Bizirik! –Gasteiz–, Txandrio –Arabar Errioxa– eta Ibabeko Bertaren Ilobak. Azken hauek izango dira Aramaioko ordezkariak final handian.

Egun osoko festa izango da biharkoa. Izan ere, 12:00etan, Gasteizko muinoan kokatuta dagoen Landatxo kiroldegitik hasita, idatzizko eta bat-bateko taldeak arituko dira tabernaz taberna kantuan. Gero, bazkaria egingo dute, eta arratsaldean izango da finala, 17:00etan.

Aramaioko taldeari dagokionez, Andere Arriolabengoa taldekideak aitortu du "familia giroan, lagun artean" pasa dutela txapelketa, eta oso gustura azaldu da orain artekoarekin: "Asko disfrutatu dugu. Saio bakoitzak bere momentuak eduki ditu eta tokatu zaizkigun hiru taldeekin oso gertuko harremana izan dugu. Lehiatu baino gehiago, gozatu egin dugu bertsotan". Saioetatik lehia desagertzea lortu dutela onartu du. "Oso lagunak gara, konfiantza handia dago gure artean eta elkar babesten gara".

Finalera begira jarrita, baina, txipa aldatu beharko dutela dio: "Helburu nagusia ondo pasatzea da, hori garbi dago, baina behin finalera iritsita, txapela Aramaiora ekartzea da bigarren helburua", adierazi du baikor.

Txapela irabazteko aukerei begira jarrita, Arriolabengoak "oso ondo" ikusten du taldea: "Agur kolektibo bat egin beharra daukagu; oso ondo pasatzen dugu gure agurrekin eta finalean ere ez da gutxiago izango. Txapela irabazteko aukerekin ikusten dut taldea".



Ibabeko Bertaren Ilobak taldea, Amurrioko finalaurrekoa irabazi ostean. BERTSOZALE

**2010eko txapeldunak**

Kuadrilla Artekoaren lehenengo edizioa 2010ean egin zuten eta talde berau izan zen edizio hori irabazi zuena. Beraz, hura errepikatzeko asmoarekin igoko dira oholtza gainera.

**Sarrerak, bihar**

Finalerako txartelak bihar bertan jarriko dituzte salgai Landatxon. Bazkideek eta 6 eta 16 urte bitartekoek hiru euro ordaindu beharko dute sarrera, eta gainontzekoek, bost euro.

## 2018ko Bertsoa Bizi Gazte, martxan

Aste honetan aurkeztu dute Gasteizen 2018ko Bertsoa Bizi Gazte (BBG). 2016an Arabako Bertsozale Elkarteak abiarazi zuen egitasmoa da hau, "Arabako gazteen euskara erabilera sustatzeko" helburua duena.

Lehiaketa honetan musika, rapa edo ikus-entzunezkoen arteko fusioa lantzea da oinarri nagusia, beti ere, euskara ardatz hartuta.

Egitasmoak bi eragin eremu ditu: hezkuntza arautua eta aisialdia. Lehenengori dagokionez, Arabako institutuetan –DBHko 3. eta 4. mailetan batez ere– lau ordutako murgiltze saioak burutzen dituzte, eta ondoren, ikasleen ekoizpenak taularatzen dira bertso saio parte-hartzaileen bitartez.

"2017-2018 ikasturtean 1.500 gazterengana iristea espero dugu murgiltze saioen bidez; iazko institutu guztiak eman diote jarraipena ikasturte honetan eta Aiaraldean zein Arabar Errioxan eremu berrietara iritsi gara. Horrez gain, bideo klip lehiaketaren bidez parte-hartzea handituko dela aurreikusten dugu". Azken horri dagokionez, taldeka (3-8 lagun) bideoklip bat egin beharko dute parte-hartzaileek, bertso musikatuekin edota rap edo abestiei letrak aldatuta. Maiatzaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak, eta maiatzaren 12an BBG eguna egingo dute Legution. Oinarriak *nibanaxarabakoa.eus* webgunean daude.

### Kantariko entseguak dituzte asteburuan Aramaioko haurrek

Arrasateko Kulturaten egingo dituzte entseguak zapatuan eta domekan Aramaioko gaztetxoek. Guztira hogei kantari izango dira, lau taldetan banatuta. Hala, ikuskizuna prest utziko dute datorren asteburuan –hilaren 24an eta 25ean– Amaia antzokian egingo den grabaziorako. Saio horiek maiatzaren 26tik aurrera emitituko dira Goiena telebistan.

### Arbel kooperatibak batzar orokorra egingo du 24an

Arbel kooperatibak batzar orokorra egingo du hilaren 24an, 12:00etan, kultura etxean. Ondoren, bazkaria egingo dute, 14:30ean. Aurrez eman beharko da izena bazkarirako, hilaren 20a baino lehen hain zuzen, Arbelera bertara gerturatuta edo 945 44 51 19 telefonora deituta. Gaur egun 90 bazkide inguru ditu kooperatibak.

### Eguneko Zentroak zortzi erabiltzaile ditu, egunean sei orduz

2011. urtean inauguratu zen Aramaioko Eguneko Zentroa. KL kooperatiba elkarteak kudeatzen du, eta gaur egun, hiru pertsona arduratzen dira lan horretaz. Nolabait erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzea da helburua, egunean zehar ekintza desberdinetan parte hartuz. 2017. urtearen balorazio "guztiz positiboa" egin dute kudeatzaileek.

NIRE USTEZ



MANEX ARRIOLABENGOA

### Lira edo flauta

Musika, betidanik, bi ikuspegitatik begiratu eta sentitu izan da.

Alde batetik, beti eduki izan du izaera irrazionala eta emoziozkoa, puntu magikoa ematen diona. Bestetik, berriz, arrazoimena eta proportzioak aurki ditzakegu bertan, heziketarako tresnatzat ere erabili ohi dena.

Bi zume hauekin, musika sortzeko, interpretatzeko eta entzuteko mugimendu ezberdinak txandakatu izan dira historian zehar, betiere desberdintasun berri txikiak agertuz.

Antzinako Greziar Mitologian oso ondo islatzen da musikaren alderdi bikoitz hau, bi instrumenturen bitartez. Orfeoren lirak oreka irudikatzen zuen eta Dionisioren flautak, berriz, frenesia.

Gaur egun ere, musikak, jarraitzen du bi alderdi hauek edukitzen proportzio desberdinetan nahastuta. Horregatik, proposatzen dizuet, hausnarketa polit eta aberasgarri bezala, konturatzea norberak nola entzuten duen musika: alderdi irrazionalaren indarrak harrapatzen nau, edo eta armoniaren orekaren bila noa?

### Eskolako konpostaje gunea martxan jarri dute aste honetan

San Martin eskolako konpostaje gunea martxan jarri du Udalak aste honetan, eskola atzealdean konpostagailu bat eta egituratzailea pilatzeko kaxoi bat jarrita.

Eskolako irakasleei formakuntza eskaini ostean, gela bakoitzean eta jantokian hondar organikoak gaika jasotzeko kuboak banatu dira, eta aurrerantzean, irakasleen eta ikasleen ardura izango da banaketa egitea.

Bi helburu ditu horrek: hondakin organikoak bertan kudeatuta ingurumenari mesede egitea eta ikasleei, txiki-txikitatik, ingurumenarekiko jarrera arduratsua izatera bultzatzea.

Oraingoz, soilik eskolan sortzen diren hondakin organiko gordinak kudeatzen hasiko dira, eta datorren ikasturtera begira, beste aurrerapauso bat emateko aukerak aztertuko dituzte –jantokiko hondakinak, adibidez–.

# EZKONTZAK 2018

- Jatetxeak
- Estilismoa
- Garraioa
- Oroitzapenak






# Jatetxeak, ametsak egi bihurtzeko

Ezkontza egunean ezkongaiek aukeratzen duten jatetxeak berebiziko garrantzia dauka; izan ere, horietan igarotzen da eguneko denbora tarte handiena eta egokienaren aldeko apustua egitea ezinbestekoa da

Jatetxeen aukera, ezkongaien beharretara, gustuetara eta aurrekontuetara moldatzen da gaur egun. Jatetxe bakoitzak bere esperientziatik ikasitakoa jartzen du praktikan ezkontza bakoitzean, eta ezkongaien nahiak errealitate bihurtzen saiatzen dira guztiak. Menua aukeratu, dantzaldiaren xehetasunak zehaztu, koktela edo jatetxetik irten aurretik azken mokadutxoa egongo den argitu... Lan horiek guztiak egiten dira ezkontza egunaren aurretik, eta ostean, egun handi horretan, ezkongaiek eta gainontzeko gonbidatuek egunaz disfrutatu besterik ez dute egin behar.

**Erreserba garaiz egitea, beharrezkoa**

Komeni izaten da ezkontza eguna zehaztutakoan, ahalik eta azkarren egitea jatetxearen erreserba. Eguna, ezkongai horiendako gordeta geratuko da, eta data gerturatu ahala zehaztuko dira kontuak.



Josune Ibabe eta Gorka Bolinaga, Gure Ametsa jatetxearen kanpoko aldean.

## Gure Ametsa jatetxean, detaile guztiak mimoz

Ia 100 urteko esperientzia daukate Leintz Gatzagaren gainaldean dagoen Gure Ametsa jatetxean eta ezkontzetan erreferente dira. Hiru jantoki dituzte; horietako handienean 300 gonbidaturendako lekua daukate, eta dantzaldirako ere gune zabala eskaintzen dute barruan. Kanpoaldea, berriz, lorategi handi batek inguratzen du, eta paraje zoragarri horretan, argazkiak atera edota koktela egin daiteke, besteak beste. Menuari dagokionez, ukitu modernoak dituen euskal sukaldaritza tradizionala ematen dute, betiere ezkongaien gustuetara eta aurrekontuetara moldatuta. Azken urteotan gainera, ospakizunak geroz eta pertsonalizatuagoak eskaintzen dituzte, eta detaile txikiena ere mimo handiz zaintzen dute, ezkontza eguna ahaztezina izan dadin bai ezkongaiendako eta baita gonbidatuendako ere. Erreserbak egiteko deitu 943 71 49 52 telefono zenbakira.






Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa...



Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea

leku eta egun ahaztezinak

Etxe-Aundi
Hotela - Jatetxea
Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com

## Lasa jatetxean, tratu pertsonalizatua

Bergarako Ozaeta jauregi historikoa aparta da ezkontzak egiteko. Luxuzko lekua izan arren ekonomia-maila guztien esku jartzen dute. Eskaintzen dituzten menuak gainera, guztiz pertsonalizatuak izaten dira, eta egunean ezkontza bakarra ematen dute. Horrek dakar tratu pertsonalizatua eta arretarik handiena izatea.

Guztira 250 gonbidaturendako tokia daukate. Hiru jangela dituzte eta horietako bat areto oso handia da. Gainera, 1.200 metro koadroko lorategi ederrarekin bat egin daiteke, kristalezko ate mugikorraren bitartez. Zeremonia zibilak ere egin daitezke bertan, alfonbra gorri eta guzti. Gipuzkoako ezkontza-ospakizunetarako jatetxeen saria jaso zuten 2009an. Erreserbak egiteko deitu 943 76 10 55 telefono zenbakira.



Lasa jatetxeko Koldo Lasa sukaldari burua, aurrean plater bat duela.



Eloi larza sukaldaria, plater bat eskuetan duela, Etxe Aundi jatetxearen kanpoko aldean.

## Etxe Aundi jatetxea, ezkontzetan espezialista

Oñatiko Torreauzo auzoko XIII-XIV. mendeko Etxe Aundi jauregi ikusgarriak egun ahaztezina ospatzeko osagai guztiak betetzen ditu. Ezkontzetan espezialistak dira, eta hainbat menu dituzte, ezkongaiek aukeran izan ditzaten. Gainera, jatetxeko profesionalen laguntzarekin, egokiena aukeratzeko gomendioak jasotzen dituzte ezkongaiek. 220 gonbidaturendako lekua daukan jangela handi bat daukate, eta 100 lagun ingururendako beste bat. Ezkontza txikietarako, berriz, jangela pribatua dute. Horrez gain, terraza dotore bat ere badaukate, bertan ezkontza zibilak ospa daitezen, eta otorduen osteko dantzaldiendako ere leku aproposa izaten da hori. Bezeroak oso gustura gelditzen dira jasotako hartu-emanarekin, eta euren gustuak asetzen saiatzen dira beti. Erreserbak egiteko deitu 943 78 19 56 telefono zenbakira.


Gure Ametsa Jatetxea

Ezkontza berezia eta ahaztezina!








943 71 49 52
Leintz Gatzaga
www.gureametsa.es




Izorne Luengo, Akebaso jatetxean ezkontzak hartzeko prest.

## Akebaso jatetxea, xarma handiko lekuan

Bizkaiko Atxondo bailarako Axpe herrian dagoen Akebaso jatetxea primerakoa da zerbait desberdina ezagutu nahi izanez gero. 1735. urtetik eskaintzen dira ezkontzak bertako baserrian. Modu dotorean, estruktura originala mantenduaz, berriztatua izan da eraikina, eta esklusibotasunez prestatutako espazio zabalak ditu, bai barrualdean, baita kanpoko aldean ere. Horiek ezkongaien gustuetara prestatzen dira gainera. Sukaldaritza tradizionala eskaintzen dute jatetxeko sukaldari taldeari esker, sukaldari burua Iñigo F. Maguregi da, eta ezkongaien beharren eta gustuen arabera, menu pertsonalizatuak egiten dituzte. Ibilbide profesional luzea duen Izorne Luengo Euskadiko maitre belaunaldi berrikoaren laguntza izaten dute ezkongaiek prestakizunetan. Erreserbetarako deitu 946 58 20 60 telefonora.

## Zelai Zabal jatetxea, ezkongaien gustura

Oñatiko Arantzazu auzoko Zelai Zabal jatetxean menu pertsonalizatuak eskaintzen dituzte, ezkontza egunerako. Ezkongaien gustuetara eta beharretara egokitzen dakite eta jatetxeko profesionalen ideiekin eta ezkongaien aurrekontura moldatuta, plater originalak jartzen dituzte hasteko. Arrainetan; legatza, itsas-zapoa edo mihi-arraina izaten dituzte aukeran, besteak beste. Haragitan, berriz, txerri-masailak edota azpizuna edo solomilloa izaten da gehien ateratzen dutena. Askok hasieran koktela ere egiten dute, eta dantzaldiaren ostean mokadutxoak ere ateratzen dituzte, nahi izanez gero. Gaur egun hain modan dagoen *candy bar* postua oparitzen dute gainera jatetxekoek, gonbidatu askoko ezkontzetan. Erreserbetarako deitu 943 78 13 06ra.



Zelai Zabal jatetxeko Maider Betelu sukaldaria, plater bat eskuetan duela, jangelan.




LASA
jatetxea

250 lagunentzako jantokia • Gustua eta luxua denon eskura • Bezeroentzako parking-a • Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...

Ozaeta jauregia - **BERGARA** • Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.es*



## Edertasun flasha, Lirain estetikan

Urduritasuna, estresa eta nekea pilatu egiten dira ezkontza aurreko egunetan. Aurpegian modu nabarian azaltzen da hori guztia, eta askotan lehortasuna, distira falta eta elastikotasuna ekartzen ditu.

Egun horretan aurpegi liluragarria edukitzeko Lirain estetika zentroan pak bereziak dituzte –%10eko eskaintzarekin– emakumezko ezkongaiendako, ondorengo tratamenduetan: bekainetako permanentea eta tintea, solariuma, C bitaminaren gorputz *peeling*-a, aurpegia garbi mantentzeko tratamendua, Indiba aurpegiko tratamenduaren hiru saio, pedikura eta manikura spa, makillajearen azterketa eta makillajea.

Laser tratamenduak ere badituzte ilea kentzeko, eta horretan ere, merkatuko teknologiarik aurreratuenak eskaintzen dituzte Lirainen.

Egokiena edertasun egutegi bat zehaztea da. Bertan, norberaren arabera egokitutako tratamenduak adostuko dira, ezkontza egunean, inoiz baino distiratsuago aurkitzeko.

## Barrutik ere dotore, Sikolen

Kanpotik eroso eta elegante joateko, barrutik ere halaxe joan beharra dago. Emakumezkoen soinekoek izaten dituzten askotariko eskotetarako, bularretako aproposak dituzte Arrasateko Olarte kaleko Sikol lentzeria dendan; eta gizonezkoendako, izerdia xurgatzen duten zuntz naturaletako barruko kamisetak.



## Seguru, Leintz Garraioak-ekin

Lasaitasuna eta segurtasuna azpimarratzen dituzte Arrasateko Leintz Garraioak autobus konpainiatik. Giro jatorra izaten da eskaintzen dituzten autobusetan; izan ere, gonbidatuak euren artean hizketan joaten dira, autoa etxean utzita, festaz gozatzeko prest.

Autobusen bat edo batzuk alokatu nahi izanez gero, deitu 943 71 27 07 telefono zenbakira.






LASER DEPILAZIOA
Gozatu zure azalaren leuntasunaz

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA

RPS:48/14
Ez da osasun zentroa

943 79 52 17
Bizente Ferrer, 1
20500 ARRASATE

TEKNOLOGIARIK AURRERATUENA ZURE ESKU

LASER PLATAFORMA
Lightseer diodoa
Alejandrita
Argi pultsatua (IPL)

4 saioko bonuarekin (saioak 3 hilean behin), prezioa saio bakoitzeko

| Emakumezkoak | | Gizonezkoak | |
|---|---|---|---|
| Hanka osoak | 80 € | Bizkarra | 120 € |
| Hanka erdiak | 50 € | Bularra | 70 € |
| Izterrondoak | 35 € | Sabela | 50 € |
| Besapeak | 35 € | | |

FINANTZIAZIOA
%0ko INTERESA
12 HILABETETAN

# Biek bat egiten duten eguna, ahaztezin

Eguraldia alde dagoen garaian gora egiten du ezkontza kopuruak. Guztiek gura dute ahaztezina izango den eguna antolatu, nork bere erara, beti ere. Eta, sarri, ezkontzen direnek egun berezi horretarako funtsezko osagai dituzte senideak eta lagunak

Eguzki izpiek ezkontzen gorakada dakarte, denek gura baitute ahalik eta egun osoena antolatu –eguraldiak laguntzen du horretan– Hori horrela, ezkontzen direnenei ez ezik, gonbidatuei ere gozagarri izan dakiekeen ekitaldia antolatzeko zeregina ez da edonolakoa; hilabeteak daroatza, gutxienez. Baina ez alferrik: guztiek dute akorduan biek bat egin zuten egun hura.

Helburu horrekin, nork bererekin darrai. Bakoitzak bere erara antolatzen du ezkontza –nork bere gustuak, ametsak, nahiak... ditu, besterik ez–. Hori horrela, ez dago gonbidatu kopuru mugaturik, ezta ere ezkon toki okerrik. Gaur-gaurkoz, elizan, udaletxeetan edo bikotearentzat berezi den tokietan ematen da baiezkoa. Eta, horretan geratu barik, gora doaz ezkontza aukerak.

Ohikoenean, baiezkoa eman ostean dator bazkaltzeko unea. Alegia, senideak eta lagunak mahaiaren bueltan elkartuta segitzen du egunak. Eta, askotan, jan lekuak ere izan ohi du aparteko itxurarik: ezkontzarako propio erabakitako dekorazioa izaten dute sarri. Guztia, ahazteko zaila izango den "egun berezia" borobiltzeko. Berezitasun horren adierazgarri, gainera, gonbidatuen arteko emozio nahasketa. Sarri errepikatzen den bertsioa: "Barre algarak zein negar malkoak izan genituen".

**Ostean, bidaia**

Ezkontza eguna bukatuta, bidaiatzeko unea datorkio bikoteari. Hor ere, nork bere erara egiten du. Eta askotarikoak dira bidaia agentziek eta gisakoek eskaintzen dituzten aukerak. Kasu horretan ere berezi egin gura da bidaia. Hori horrela, ezin uka bikoteak luzaro izango duela akorduan behinola bat egin zueneko eguna –eta horren bueltan eraikitakoa–.

## Baiezkoa kandela artean

Guardian eman zuten baiezkoa Cristina Valek eta Aritz Oiangurenek. Ez zen ohiko ezkontza izan: argiaren zeremonia deiturikoa egin zuten –kandela artean eman zuten baiezkoa–. Eta lehen unetik sentitu zuten emozioa. "Autotik jaitsi ahalaz bat", dio bikoteak.



Cristina Val eta Aritz Oianguren, ezkontza egunean, Guardian.



Ibon Larrañaga eta Saioa Ibarguren, Aramaioko udaletxean, sinatzen.

## Sorpresaz beteriko ezkontza

Aramaion ezkondu ziren Saioa Ibarguren eta Ibon Larrañaga. Sorpresaz beteriko eguna izan zuten: Ibargurenen biolin irakasle ohiaren ekarpena, Larrañagaren anaiaren aurreskua, Bergarako kuadrillaren bisita... "Egun ederra izan zen", diote.



Maitane Amondarain eta Mikel Madinagoitia, ezkon-jantziekin.

## Emozio ugari egun bakarrean

Emozioz betetako eguna bizi izan zuten Maitane Amondarainek eta Mikel Madinagoitiak. Eta gogoan dituzte ezkontza egunak utzitako opariak. "Ez ditugu sekula ahaztuko. Lagunek abesti bat ere egin ziguten. Oso hunkigarria izan zen bertan bizitakoa", dio bikoteak.

ZELAI ZABAL Restaurant

• Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
• 180 gonbidaturendako jangela.

Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com





Maier Errasti eta Aitor Oiarzabal ezkontza eguneko tarta mozten.

## Sentimenduz betea, ahaztezina

Aitor Oiarzabal eta Maier Errastiren ezkontza, Gure Ametsa jatetxean izan zen, 2016ko irailaren 10ean, 150 gonbidaturekin. "Lagun batek utzitako *eskarabajo* gorri baten iritsi ginen bertara. Eguraldi oso ona egin zigunez zeremonia kanpoan egin genuen, bikain apaindutako zelaian. Ezkontza hunkigarria prestatu ziguten, eta behin eraztunak jantzita eta paperak sinatuta, aperitiboa hartutakoan, bazkaltzera joan ginen". Globoak zerura bota eta eurendako gertatutako bideo bat ikusi eta gero hasi zen dantzaldia, eta festa, Aretxabaletan bukatu zuten. "Benetan egun zoragarria izan zen, zirraraz betea, lagun eta senitartekoekin inguruan".

**AEB eta Mexiko**

Hiru astetako eztei bidaia egin zuten. AEBtako mendebaldera jo zuten lehenengo, eta azken egunak Mexikon eman zituzten, hondartzan, lasai-lasai, .



Arizonako Arroila Handian.

## Abesbatzak girotutakoa

Joseba Albizu eta Itziar Ibarrondo, 2017ko uztailaren 22an ezkondu ziren Arantzazuko santutegian eta ospakizuna Zelai Zabal jatetxean egin zuten.

**Une hunkigarriak**

"Elizkizun laburra izan zen, 150 gonbidaturekin eta Ganbara abesbatzak girotuta; primeran irten zen guztia. Gero, dantzaldia izan genuen DJ Ebil-ekin, eta barre eta negar artean, une hunkigarriak bizi izan genituen. Behin agur esateko unea iritsita Oñatira jaitsi ginen, eta kalean jarraitu zuen parrandak".



Itziar Ibarrondo eta Joseba Albizu elkarri begira.

## Ezkontza paregabea

Neritzel Albisuak eta Andoni Berraondok primerako ezkontza eguna bizi izan zuten. Asteari elurrarekin eman zioten hasiera eta 16 gradurekin bukatu: "Gonbidatuek ez zekiten zein arropa jantzi, eta horrek sortu zituen komeria handienak. Gainerakoan, egun paregabea izan zen".

**Bazkaria eta afaria**

Bazkaria senitartekoekin egin zuten, eta afaria, berriz, lagunartean. "Eroso sentitzeko moduko eguna izan zen, halako egunak suposatzen duena kontutan hartuta, noski… [ja,ja…]".



Hockey makilekin eta bizikletan ibiltzeko bi gurpilekin egin zieten pasiloa.



# Antzerako ezkontzak, lehengoak eta oraingoak

Ezkontza intimoak, gonbidatu askokoak, dantzaldiarekin, emaztegaia zuriz jantzita, menu oparoak... Urteak pasa arren ospakizunak ez dira horrenbeste aldatu



1968ko otsailaren 28an ezkondu ziren Mari Carmen Lopez eta Jabier Zabala; 1993ko otsailaren 9an Ana Urtzelai eta Ramon Azkarraga-Urizar; Jose Luis Azkarate eta Milagros Beitia 1970ko urriaren 10ean; eta Joseba Albizu eta Itziar Ibarrondo 2017ko uztailaren 22an.

Garai ezberdinak, baina ezkontza bat antolatzeko antzerako protokoloarekin. Data aukeratu, gonbidatuen zerrenda egin, jantziak aukeratu, eraztunak erosi, menua aukeratu, dantzaldia nola egin, ezkon-bidaia nora egin... "Horretan ez dago aldaketarik. Nik argi nuen zuriz ezkondu gura nuela, elizan eta familiarekin. Ostean egon naiz beste ezkontza batzuetan eta oso antzerakoak izan dira. Modernoagoak, akaso", esan du Ana Urtzelai azkoitiarrak.

Lehen pezetatan ordaintzen ziren ezkontzak. Egun, eurotan. Baina, horretan ere aldaketa gutxi egon da. "Guk, 17.000 pezeta ordaindu genituen ezkontzako bazkariarengatik. Pentsa, orain dela 48 urte, zer nolako dirutza izan zen", gogora ekarri du Jose Luis Azkaratek.

## Bizitzako egun pozgarriena

Ana Urzelai azkoitiarra eta Ramon Azkarraga-Urizar angiozarrak 25 urte bete dituzte ezkonduta. "Egun zoragarria izan zen. Borobila. Bizitzako egun pozgarriena", gogoratzen du Anak. Berak argi zuen zuriz jantzita ezkondu gura zuela. "Behin ezkonduta, modu tradizionalean egin gura nuen. Egun horretako protagonista izan gura nuen", esan du. Horretarako, Azkoitiko Urrategi auzoko ermita aukeratu zuten. Beraiena, ezkontza intimoa izan zen. Etxekoa. "Baina, etxekoa, gonbidatu kopurua kontuan hartuta. Bestelakoan, menu ederra izan genuen".



Ana eta Ramon, ezkontza egunean.



Bikote bera, 25 urte geroago.

## La Merced elizan ezkondu ziren

Jose Luis Azkaratek 26 urte eta Milagros Beitiak 23 zituzten ezkondu zirenean. 1970eko urriaren 10ean izan zen, La Merced elizan, Arrasaten, eta apaiza, Jose Luis Iñarra. Banketea Aretxabaletako Taberna Barri jatetxean egin zuten. "Ezkontza handia egin genuen. Ehun lagunetik gora elkartu ginen. Egun dotorea izan zen. Polita", gogoan du Jose Luisek. Jan eta edan ere bapo egin zuten. "Orain beste jaten zen lehen ere; bai jan eta baita edan ere. Ezkondu ostean, Gasteizeko Canciller Ayala hotelean gaua pasa, eta auto bat hartuta, Espainiari buelta eman genion".



Iazko urrian egindako ospakizunean, lau bilobekin.



Mari Carmen eta Jabier.



Ezkondu ziren egunean.

## 50 urte elkarrekin

Mari Carmen Lopez Bergarara joan zen bizi izatera, anaiaren etxera. Han ezagutu zuen Jabier Zabala eta ezkondu egin ziren. 50 urte pasa dira. "San Pedro parrokian ezkondu ginen eta bazkaria Lasa zaharrean egin genuen. Lagun asko elkartu ginen. Oroitzapen oso onak ditut. Ederra izan zen".





Eztalako aparkalekua prest dute altzairuzko hamaika pibote lur zoruan sartzeko. MAIDER ARREGI

# Eztalak ohiko erabilera izango du oraingoz

Aurreko astean ohi baino lur mugimendu bortitzagoak identifikatu zituzten Eztalan. Aldagelen eraikineko horma, esaterako, kanporantz hazi da eta bertako pitzadurak hiru milimetroko zabaleraz hedatu direla neurtu dute obrako teknikariek

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Azken astean Eztala inguruko lur mugimenduak areagotu egin dira, bortitzagoak dira, eta aldageletan zeuden pitzadurak ugaritu eta handitu egin dira. Gainera, aldagelaren eraikinaren horma bera ere kanpoaldera mugitzen hasia da. Hala, neurriak hartu eta obra handia hasi du diputazioak Eztalako aparkalekuan. "Aurreko astean, autobideko lan jakin batzuk hasi zituzten, eta badirudi, horren eraginez lur mugimendua azkartu egin dela. Lehen bizkorra zen mugimendua, are bizkorragoa da orain, eta aste batean hiru milimetro inguru mugitu dela lurra frogatu dute teknikariek. Abiadura horretan jarraituz gero, pentsa! Eraikin batendako hori ikaragarria da", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

### Obra handia

Mugimendu horiek geldiarazteko asmoz hasi dituzte egonkortze lanak. Guztira, 24 metroko eta 1,5 metroko diametroa duten altzairuzko hamaika zutabe sartuko dituzte Eztalako aparkalekuan. "Teknikariek neurketak egin dituzte, eta ikusi dute betiko mugimendua bizkortu egin dela; orain sei bider handiagoa da mugimendua. Altzairuzko hamaika pibote horiek sartuta mugimendua geldiaraziko dutela esan digute", dio alkateak.

### Kezka antzuolarren artean

Eztalako egoerak kezka sortu du bai erabiltzaileen artean eta baita ere guraso zein herritarren artean. Antzuola Kirol Elkarteko presidente Ibon Gezalagak aitortu du urduri egon badaudela egoera zein den ikusita: "Oraingoz Eztalan egingo ditugu entrenamenduak eta partiduak. Baina egunez egun joan beharko gara hemengo egoera ikusiz. Badaezpada, alternatiba bila hasiak gara". Maiatza bukaera arte iraungo dute lanek eta aparkalekua itxita egongo da. Eztalara oinez edo bizikletaz igo beharko da.

**MAIATZA BUKAERA ARTE IRAUNGO DUTE EGONKORTZE LANEK ETA EZINGO DA EZTALARA AUTOZ IGO**

### Aldunditik lasaitasun mezua

Diputaziotik, berriz, lasaitasun mezua bidali dute eta "arriskurik ez" dagoela diote autobideko obrako teknikariek: "Aurrez erabakitako lanak dira; izan ere, mendia betidanik mugitu da zona horretan, eta jakinekoa zen mugimendua bazegoela bertan. Autobideko proiektuak, hor lanak egitea aurreikusita zeukan; eta orain, mugimendu azkar horiek ikusita, proiektua bera egokitu egin dugu. Ez da apartako ezustekorik izan. Obra guztietan beti egokitu behar izaten dira-eta lanak. Arriskurik ez dago eta kirol jarduerekin jarraitu dezakete Eztalan".

# "Antzuolako emanaldia oso berezia izango da niretzako"

**OIHAN VEGA** MUSIKA ZUZENDARIA

Bihar 'Alizia' musikala izango da ikusgai Torresoroan

**Maider Arregi** ANTZUOLA

*Alizia* musikalaren bi emanaldi izango dira ikusgai: 16:30ean eta 19:30ean. Lehen saiorako sarrerak oraindik badaude. Oihan Vega zuzendariak kontatu dizkio xehetasunak Goienari.

***Alizia* gaurkotua aurkeztuko duzue?**

Gaur egungo testuinguruan kokatu dugu istorioa. Gizarte kontsumistara egokitu dugu, eta mezu hori zabaldu gura izan dugu gaztetxoen artean.

**Wifia ere protagonista da.**

Bai, gaurko gaztetxoek irakurri baino gehiago telefono mugikorrak erabiltzen dituzte, eta Alizia pantaila baten barruan sartuko da adaptazio honetan.

**Zuzendaria, gidoigilea, aktorea...**

Erronka bat izan da. Adaptazioa egitea niretzako zailagoa izan da; eginda dagoen lan bat egokitzea eraldatu gabe zaila da gero. Zuzendari eta aktore lanak ere egin ditut. Zuzendari artistikoa, berriz, Valen Moñux da. Baina denon artean egin dugu guztia.

**Zuretzako berezia izango da.**

Bai, Antzuolako eskolan ikasi nuen eta Antzuola nire bigarren etxea da. Ikaskide asko guraso dira eta euren seme-alabendako emanaldia eskaintzeak ilusioa ematen dit. Valenendako ere berezia izango da. Torresoroa areto berritua bere proiektua izan delako eta bere semetzat duelako areto goxo hori.



Oihan Vega. ANTZUOLAKO UDALA

**Musikala zabaltzeko asmoa duzue?**

Bai, hiriburuetara joatea gura dugu baina baldintzak negoziatu behar ditugu. Izan ere, gustuko dugulako egiten ditugu horrelako ikuskizunak eta irabazten dugun diru guztia ikuskizuna finantzatzeko da: autobusak, janaria, audio teknikariak, proiektorea... Gastu asko daude.

# Alberto Iñurrategik irekiko du Arrolaren Mendi Astea

Martxoaren 21etik 25era bitartean egingo da aurtengo Antzuolako Mendi Astea Arrolaren eskutik

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Hitzaldiak, ikastaroa, mendi irteera... askotariko ekintzak antolatu ditu aurten ere Arrola Mendizale Elkarteak. Hala, Mendi Astearen baitan naturaz eta mendiaz gozatzeko aukera izango dute antzuolarrek.

Alberto Iñurrategi alpinistak emango dio hasiera Mendi Asteari. Martxoaren 21ean, eguaztena, solasaldia eskainiko du Torresoroan, 19:00etan hasita (sarrera 5 euro da). Martxoaren 22an, eguena, Xabier Pertanain goi mendi gidariaren hitzaldia izango da; hau ere Torresoroan, 19:00etan.

Zapatuan, berriz, martxoaren 24an, GPS ikastaroa jasotzeko aukera izango da; Olaran etxetik goizeko hamarretan abiatuko dira mendizaleak. Parte hartu gura dutenek izena aurrez eman beharko dute Arrola elkartera mezu bat bidalita: *arrolamt@gmail.com.*

Mendi Astea borobiltzeko, martxoaren 25ean, mendi irteera egingo dute Antzuolako zuhaitzak ezagutzeko –hitzordua da 09:00etan Olaranen–.

# Eratu da kontseilua, herri berdintsuago baten bila

Martitzenean eratu zuten Berdintasun Kontseiluaren helburu nagusia izango da Udalari aholkularitza eskaintzea; eraketa batzarrean talde politiko guztiak, Martxanterak eta kirol arloko talde bat egon arren, hurrengo bileretan ahalik eta ordezkaritza zabalena gura dute

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Martxoaren 8ko greba feministak arrastoa utzi zuen Bergaran ere, eta horren adibide da Martxanterek zein Udalak deitutako mobilizazioek aspaldiko jendetzarik handiena batu izana herriko kaleetan. Bada, askorendako "inflexio puntua" suposatu zuen egun horren ostean, ekimen berriak jarri dira martxan herri berdintsuago baten bila.



Martitzenean egin zuten kontseiluaren eraketa batzarra, Irizarren. JOKIN BEREZIARTUA

**Hurrengoan, Berdintasun Plana**

Ekimen berri horien artean, aipatzekoa da martitzenean eratu zen Berdintasun Kontseilua. Udal Gobernuaren ekimenez sortua izan bada ere, helburua da herriko taldeen ahalik eta ordezkaritzarik zabalena lortzea; eraketa batzarrean Udaleko alderdi guztietako ordezkariak, –EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Irabazi– Martxanterak, Bergara Kirol Elkarteko eskubaloi sailekoak eta beste zenbait norbanako ere egon ziren. "Berdintasunaren bueltan berba egiteko foro berri bat sortu dugu, Udalarendako aholkulari lanak egingo dituena. Kontseilua iraunkorra izango da, orain arte Bergarak izan ez duen berdintasun teknikariak gidatuta, eta konpromisoa hartzen dugu maiztasun finko batekin elkartzeko; zerbait urgentea balego ere elkartuko ginateke", adierazi du Elena Lete alkateak. Kontseiluaren erabakiak edo proposamenak ez dira lotesleak izango Udalarendako baina gobernuak argi utzi du "oso aintzat" hartuko direla bertan landutakoak.

Eraketa batzarra izanda, ez ziren edukietan sartu baina kontseiluaren funtzionamendua zein izango den zehaztu zuten: bi hilean behin elkartuko dira Irizarren –hasiera baten, bigarren martitzenetan, 18:30ean–, ordu eta erdiko bilerak izango dira gehienez, eta zerbait berezia gertatuko balitz urgentziaz elkartzeko konpromisoa ere hartu zuten.

**Clara Wolframen tailerra**

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekintzen artean, hilaren 20an Irizar jauregian (18:30) egingo duten tailerra dago: *Emakumeen ahalduntzea eta adimen emozionala*. Sexualitatean eta berdintasun gaietan aditua den Clara Wolframek (Bonn, Alemania, 1968) gidatuko du.

Bukatzeko, hilaren 21eko eta 28ko Zabalotegiko zineklubean bi pelikula botako dituzte (20:00): *Diez años y divorciada* eta *En cuerpo y alma*.



'Guk emakumeok' erakusketako artistak, inaugurazioan. JONE ALBENIZ

## Artean ere, emakumeak protagonista

*Guk emakumeok* erakusketan herriko 25 artisten lanak daude ikusgai Aroztegin, hilaren 25era arte. Hilaren 9an inauguratu zuten, gizarteak emakumeari ezarritako arauen gaineko *performance* eta guzti. Arte munduko "gorputzen apropiazioa" salatu gura dute erakusketarekin.

GORA ETA BEHERA



J.B.

## Seminarioko patioko lurra, "negargarri"

Herritar bat kexu agertu da seminarioko patioan dauden "zulo erraldoiak" direla-eta. "Lurra negargarri dago. Ume batek min hartu arte Udalak ez ditu zulo horiek estali behar?", galdetu du.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.



J.B.

## Giza katerako, 1.000 bergarar

Gure Esku Dagok antolatuta, 201,9 kilometroko giza katea egingo da ekainaren 10ean, eta Bergarak, bi kilometro bete beharko ditu, Maltzagatik Eibarrera bidean. Kilometro bakoitzeko 500 herritar behar direnez, ekainaren 10erako 1.000 bergarar beharko dira. Martxoaren 10ean egin zuten aurkezpena eta ondoren mural berria margotu zuten Irizar kalean –argazkian–.

## Gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu dute martxoaren 27rako

Udaleko Prebentzio Sailak 0 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu du martxoaren 27rako; Irizarren izango da, 18:00etan. *Ez esaten jakitea, ez esan nahi dugunean* izenburupean, seme-alaben garapena sustatzeko jarraibideak eskainiko dira: "Libre izatea, egoera ezberdinen aurrean gure buruari *ez* esateko gai izatea da", diote antolatzaileek. Hitzaldia euskaraz izango da, eta izena eman beharko da aldez aurretik: telefono bidez, 944 05 15 49 zenbakian –eguenetan 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 17:00etara– edota *www.etxadi.org* zein *www.bergara.eus* webguneetan.

# Gobernua norabide barik ikusten du oposizioak

EH Bilduko Agurne Barruso eta Irabaziko Aiert Lizarralde bat datoz Udal Gobernuaren jarduna "herrira begira norabide bakoa eta udaletxe barruan informazio ezan oinarritutakoa" izan dela esaterakoan; martitzenean Goiena telebistako 'Harira' saioan izan ziren biak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Goiena telebistako *Harira* saioan Udal ordezkariekin egin beharreko mahai-inguruan, EH Bilduko Agurne Barruso eta Irabaziko Aiert Lizarralde izan ziren Eneko Azkarateren galderei erantzuten. Udalbatzako talde guztiek jaso zuten gonbidapena, baina Udal Gobernuak (EAJ/PSE-EE) uko egin zion bertan egoteari; sozialisten kasuan, hizkuntza izan zen muga.



Agurne Barruso (EH Bildu) eta Aiert Lizarralde (Irabazi), Eneko Azkaraterekin. X.G.

**Komunikazio eza salatu dute**

Udal Gobernuaren orain arteko jardunaren balorazioa egiterakoan, Barrusok herrira begira egindako lanean balorazio "gazigozoa" egiten du: "Seminarixoa bukatu da, asfaltatze lan egoki batzuk egin dira... Aldiz, beste eremu batzuetan gobernua geldi dago; gai askotan ez dugu etorkizuneko ikuspegirik –kulturan, ingurumenean...– eta beste arlo batzuetan atzera egin dugu. Udal barruan, berriz, inkomunikazioa da nagusi, eta ez dago gogoetarako gunerik; gaur [martitzenean], hemen ikusten dena, gure egunerokoa da udaletxean". Horren adibide moduan, Barrusok adierazi zuen EH Bildu hainbat hilabetez aritu zela Berdintasun Kontseilua eratzeko (ikus 30. orria) eskatzen, baina lehen bilerara ez zituztela gonbidatu: "Twitterretik enteratu gara".

Lizarraldek gogoan duenez, agintaldiaren hasiera "oso biolentoa" izan zen: "Orduan hondakinen gaia zegoen pil-pilean. Bi urte eta erdi oso gogorrak izan dira, azkenaldian barealdi txiki bat egon den arren. Etorkizunerako proiektuetan galduta ikusten dugu gobernua, eta barrura begira, gure artean ez da apenas komunikaziorik. EAJk eta PSE-EEk euren kortijo bihurtu dute udaletxea, eta hala izango da agintaldia bukatu arte".

**Seminario azpiko aparkalekua**

Informazio falta salatu zuen oposizioak gobernuaren 2018rako proiektu nagusia den seminario azpiko aparkalekuaren bueltan. "Errotazio bidez funtzionatuko omen du. Ordainpekoak edo doakoak izango dira? Publikoak izango dira plaza guztiak edo batzuk saldu egingo dira? Udalak kudeatuko du edo kontzesio bat egongo da?", galdetu zuen Barrusok. Lizarraldek, berriz, uste du Bergara "autoz kolapsatuta" dagoela eta beste mugikortasun eredu bat landu behar dela.



AMAIA TXINTXURRETA

## Sukaldearen bueltan euskaraz

Oinarrizko euskara eta sukaldaritza jorratzeko, *Euskara lapikoan* izeneko ikastaroa jarri dute martxan lehen aldiz, Auzokok, Bizikasik eta Jardunek, Udalaren laguntzarekin. Sukaldaritzarekin lotutako euskarazko hiztegia lantzen dute elkarte gastronomikoetan, eguazten eta egubakoitz goizetan egiten dituzten saioetan. Ikastaroa martxoaren 23an amaituko da.

### Aldundiak martxan jarri duen udalekuetan izena emateko aukera

Gipuzkoako Foru Aldundiak abian du udalekuetako kanpaina eta izena emateko epea martxoaren 26ra arte izango da. 7 urtetik 13 urtera arteko umeei eta gaztetxoei dago zuzenduta eta hainbat aterpetxetan udalekuak pasatzeko aukera izango dute izena ematen dutenek: Barria, Zuatza, Valderejo, Gorliz, La Arboleda, Lurraska, Lapurreketa, Hondarribi, Zugarramurdi... Eskaerak banaka edo taldeka egin daitezke; hori bai, gehienez hiruko taldeak izan beharko dira. Izena eman behar da *http://www.gipuzkoangazte.eus/eu/gure-programak/udalekuak* webgunean edo Gazteria zerbitzura jo beharko da.

## OHARRAK

### Duintasuna: batzarra

Martxoko batzarra Bergaran egingo da hilaren 20an, Irizar jauregian, 10:00etan. Herriz herriko egoeraren balorazioa egingo dute, besteak beste.

### Iker Galan: zozketa

Bedelkarrek Iker Galanen alde egindako zozketako zenbaki irabazleak dira 7.966 eta 8.816. Erdia AEMPI elkartera bideratuko da, eta beste erdia, Galanen familiak jasoko du.

### Hitzaldia: David Alvear

Mariaren Lagundiaren eskutik, David Alvear psikologoak *Zer gertatzen da burmuinean isilik gaudenean?* hitzaldia eskainiko du hilaren 19an (17:30); saio irekia izango da, euskaraz.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Novedades aretoa barrutik, gaur egun dagoen egoeran. MONIKA BELASTEGI



## Butakak gaztetxera eraman dituzte

Bergarako gaztetxeko Dynamo Zineklubaren eskutik, "Euskal Herriko zinemarik txikiena" egokituko dute Kartzela Zaharreko ziegetako baten. "Zineklubean jende asko elkartzen ez ginenez, erabaki genuen leku finko bat egokitzea", adierazi du Ugutz Basaurik. "Novedades zinema aretoa zenaren eraikina botatzeko dagoenez, jabeekin egoteko aukera izan genuen eta eskatu genien butakak uzteko. Haien eskuzabaltasunari esker Novedadeseko butakak izango ditugu gure ziegako zineman. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu", gaineratu du. 2005eko martxoan itxi zen Novedades zinema areto zaharretik hartu dituzte butakak. "Gustura" utzi ditu butakak Arriaranek. Jabeak esan du, proiektorea, adibidez, dagoeneko ez dagoela.

# Novedades aretoa zena laster botako dute

Bergarar askoren oroitzapenetan geratuko da Novedades zinema; izan ere, etxebizitza berriak egitekoak dira han. Maite Arriaran aretoaren jabeak dio jendeak pena azaldu diola herrian; berak ere badu pena: han jaio eta bizi izan delako

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Novedades zinema aretoa zegoen eraikina bota egingo dute. Data zehaztu barik dago oraindik, baina laster egingo duten lana da. Orube horretan etxebizitzak egingo dituzte eta ingurua urbanizatu egingo dute. Modu horretan, Ikerleku zeharbidea behar den moduan geratuko da lotuta Muniberekin.

Maite Arriaran eta haren familia dira Novedades zinemaren jabeak. "Lehendik ere esan izan digute pena dela zinema itxita izatea; baina, orain, eraikina bota behar dela jakitean, jende askok geratzen nau kalean zelako pena den esateko, edo zelako oroitzapenak dituzten adierazteko", azaldu du Arriaranek egoeraren gainean.

**Familiako negozioa**

Azkeneko urteetan lokala alokatuta izan zuten eta beste enpresa batek zeukan zinemaren ardura. Hala ere, orain urte asko, Arriaranen aitajaunak, amaren aldetik, zeraman negozioa. "Anbrosio zuen izena. Jende nagusia gogoratuko da; lehen Anbrosioren zinema, edo Anbrosiaren kantoia, esaten zitzaion lekuari", dio. Aitajaunak negozioa utzi zuenean haren seme batek hartu zuen zinemaren ardura, eta semeak utzi zuenean alokairuan jarri zuten.

Eraikina botatzeak izugarrizko tristura ematen diola dio Arriaranek. "Hemen jaio eta hemen bizi izan naiz, nire semeak ere hemen jaiotakoak dira", azaldu du.

**Etxetik bertatik ikusteko aukera**

Umeak zirela zinemara asko joaten ziren. Garai hartan, gainera, etxetik bertatik zinema aretoa ikus zezaketen –balkoi moduko bat zuen etxeak, aretora ematen zuena–. "Hala ere, askotan behera joaten ginen *gallinero* zelakora", dio. Zinema aretoa alokairuan jarri zutenean aretoaren sabaia jaitsi egin zuten eta modu horretan, euren etxetik ez zen zinema ikusten.

Zinema aretoek, guztiek orokorrean, izan duten gainbehera ezagutu du Arriaranek. "Garai batean zinema zen asteburuetako plana. Zapatu eta domeka guztietan joaten zen jendea zinemara. Baina, denbora aurrera joan ahala hori aldatu egin da", azaldu du.

**Azkeneko filma**

Arriaranek film asko ikusi ditu Novedades aretoan; baina, ondo gogoan du ikusi zuen azkena: *Titanic*. Eraikina botatzen dutenean oroitzapen horiek geratuko dira bergarar askoren artean.

**GARAI BATEAN ZINEMA IZATEN ZEN ASTE BUKAERATAKO PLANA, ZAPATU ETA DOMEKATAN**

## Plan estrategikoa

Euskararen plan estrategikoaren bigarren saioa egin zuten eguaztenean. Aurreikusitako moduan, Euskaraldia, ahozkotasuna, heldu erdaldunen gaia eta eskolaz kanpoko gaiak landu zituzten.

Bigarren saio honekin bukatu dute egin beharrekoa; orain, proposamena Udalera pasatu eta zirriborroa prestatuko dute.



BERGARAKO UDALA

## Txistulari Bandak kontzertua eskainiko du, etzi, domeka

Udaletxeko arkupetan egingo dute kontzertua herriko txistulariek. 13:00etan izango da emanaldia, etzi, domeka. Jose Miguel Laskurain zuzendariak azaldu du hamar abesti joko dituztela: zortzikoa, fandangoa, arin-arina... eta beste hainbat. Guztiak ere doinu herrikoiak izango dira. Eguraldi txarrarekin osoko bilkuren aretoan izango da saioa.

# Herrikoak izango dira mendizale guztiak

Pol-Pol mendi taldeak antolatuta mendi hamabostaldia egingo dute hurrengo asteetan. Elkartearen historia jasotzen duen liburua aurkeztuko dute bihar, udaletxean eta lokal berria ere inauguratuko dute etzi. Mendiaz gozatzeko egunak izango dira


Elkoroberezibar, Eraña, Alberdi eta Zabaleta. ENEKO AZURMENDI

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Miguel Angel Elkoroberezibarren lan berriaren aurkezpenarekin hasiko dute mendi hamabostaldia. Aurtengoak badu berezitasunik; izan ere, parte hartuko duten hizlari guztiak bergararrak izango dira.

Garai ezberdinetako testigantzak eta argazkiak batzen ditu liburuak, eta mendian hildako bergararrei eskainia dago. Bihar, zapatua, izango da aurkezpena, 12:30ean, udaletxean.

**Lokal berriaren inaugurazioa**

Domekan, 12:00etan, Pol-Pol elkartearen lokal berria inauguratuko dute. San Pedro kaleko 10. zenbakian izango du egoitza aurrerantzean mendi taldeak.

**78ko Huascaran espedizioa**

Andeetako Huascaran (6.768 metro) mendira egindako espedizioaren inguruko filma eta mahai ingurua eskainiko dute astelehenean, hilaren 19an. Hamahiru bergarar izan ziren han; horietako batzuek gailurra zapaltzea lortu zuten. Horrez gain, irudi batzuk ere hartu zituzten film bat egiteko. Emanaldia 19:00etan izango da, San Pedro kaleko lokal berrian.

Martitzenean, 19:00etan, Pol-Poleko lokal berrian Iñigo Mujikak diapositiba emanaldia eskainiko du. 2004an egon zen eskalatzaile bergararra Himalaian. Trangoko dorreetako (6.286 metro) *Eternal flame* bidea eskalatu zuen.

Ramon Loitik Alaskako McKinley –gaur egun Denali izena du– mendira (6.190 metro) egindako igoera azalduko du eguaztenean, 19:00etan, lokal berrian. Loitik igoera interesgarriak egin zituen 90eko hamarkadan; Aconcagua neguan igo duen euskaldun bakarrenetarikoa da.

**Eski zeharkaldiak**

Aitor Zabartek, Aitzol Mendizabalek eta Jon Sasigainek Argentinan, Japonen eta Auñamendietan egindako eski zeharkaldiak azalduko dituzte.

Eski zeharkaldietatik eskaladara egingo dute salto. Martxoaren 26an, astelehenean, Josean Mulas bergararrak *Escalar la vida* filma eskainiko du. Bere ibilbidea eta Bergarako eskaladaren historia errepasatzen da ikus-entzunezkoan. Besteak beste, Euskal Herriko eskaladaren bultzatzaileetako bat da, eta egun, munduko eskalada txapeldunak entrenatzen ditu.

Azkeneko saioa martxoaren 27an izango da, martitzena, 19:00etan. Diego Dulanto medikuak haitzuloetako erreskateen gainean jardungo du.

## Bertsolaritza eta umorea aztergai Ane Labakaren eskutik

**Goiena komunitatea**
Jardun Euskara Elkartea / BERGARA

Ane Labaka bertsolariak *u-morez: Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero ikuspegitik* hitzaldia eskainiko du. Hitzaldia eguaztenean izango da, hilaren 21ean, 19:00etan

Umorea boterea da. Nork egiten du barre? Nori buruz? Nola? Zein hiztegi baliatuz? Historikoki gizonezkoa izan da umore egilea, subjektua, eta gainerako guztiak bilakatu ditu umore objektu. Genero-ikuspegia eta diskurtso feministak gero eta hedatuago dauden garaiotan, nolako umorea(k) lekutzen dira bertsolaritzan? Jardunetik bertaratzeko gonbita luzatzen dugu.

## Bost igerilari izango dira Euskal Herriko txapelketan, Iruñean

Bergara Igeri Elkarteko bost igerilari izango dira aste bukaeran Iruñean jokatuko den Euskal Herriko txapelketan. Bergararrek hainbat modalitatetan egingo dute igeri. Josu Morrasek 50 metro, 100 metro eta 200 metro libre egingo ditu, eta baita 50 metroko bizkar proba ere. Julen Gardokik, ostera, 50 eta 100 metro libre eta 50 eta 100 metro bizkar proba. Marta Melendezek 50 libre, 50 bizkar, 100 libre, 100 bizkar eta 4x50 libre erreleboa egingo ditu. Ziortza Iribarriagak ere erreleboko proba egingo du –beste bi igerilariak legazpiarrak izango dira–. Azkenik, Xabier Labakak 400 metro libreko proba jokatuko du.

berria lagun egin nahi duzu?

BERRIAlagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukeratu ondoen datorkizuna:

BERRIAlaguna
Hilean 10€ edo urtean 100€
Abantailak:
- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu esklusiboak

BERRIAlagun harpideduna*
Aukeratu harpidetza mota:
Asteartetik igandera, hilean 36€
Asteartetik ostiralera, hilean 23€
Ostiraletik igandera, hilean 21,3€
Asteburukoa, hilean 15€
Abantailak:
- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu esklusiboak



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan berria laguna
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45

GEROA ZUGAN berria



Gazte bat motxila aldean duela aterpetxearen sarreran. UBANE MADERA

# Handik eta hemendik etorri dira aterpetxera

Apirilean egingo du urtebete Arantzazuko aterpetxeak eta esperientziarekin eta datuekin pozik dago kudeatzailea. Bazter askotatik etorritako erromesak, kirolariak eta familiak dira erabiltzaileak. Aste Santurako erreserbak ere baditu

**Oihana Elortza** OÑATI

Apirilaren 13an beteko da urtebete Arantzazuko aterpetxea zabaldu zutela. Ordutik otsailera bitartean ia 800 lagunek hartu dute ostatu han. Aterpetxearen ardura duen Joseba Longartek balorazio positiboa egin du: "Mugimendua egon da, bai. Pertsona asko eta toki oso ezberdinetatik etorri dira, eta poztekoa da hori".

### Zambiatik

Bisitari gehienak euskal herritarrak izan dira, baina Granadatik, Madriletik, Frantziatik eta Zambiatik ere etorri dira, adibidez. "Bakoitza etorri da bere zereginetatik, bere mundutik, eta beste lagun batzuekin egin du topo hemen. Eta denak konpondu dira ondo. Ikaragarria izan da hori ikustea. Harritzekoa da zer nolako harremana sortu den euren artean. Harreman horrek, gainera, jarraipena izan du kasu askotan. Asko bete nau horrek", dio Longartek.

Etorri diren askok ez zuten Arantzazu aurrez ezagutzen eta inguruarekin liluratuta gelditu direla dio: "Natura aldetik bai, baina artea maite dutenak ere aho zabalik gelditu dira hemengo margoekin, arkitekturarekin eta eskulturekin". Aterpetxean behin baino gehiagotan egon direnak ere ezagutu ditu Joseba Longartek: "Zambiako gizon bat, esaterako, Europara datorren guztietan etortzen da hona. Uztailean izan zen lehen aldiz eta harrez gero lau aldiz egon da. Bisita horietako batean, gainera, pintxo pote mikologikoa tokatu zitzaion parean eta asko disfrutatu zuen. Auzotarrak ere nahasten dira bisitariekin, eta denendako da aberasgarria hori".

**ASKOK EZ ZUTEN ARANTZAZU EZAGUTZEN ETA GERO ERREPIKATU EGIN DUTE ESPERIENTZIA**

Uztaila izan zen jende gehien egon zen hilabetea; 350 lagunetik gora. Ekainean, abuztuan eta irailean 100 bat lagun egon ziren hilabete bakoitzean eta gainerakoetan, gutxiago. "Ikusi dut jendea iluntasunak beldurtzen duela, ez eguraldi txarrak".

### Hiru talde

Aterpetxearen erabiltzaileak hiru taldetan banatu ditu Longartek: "Erromesak, Inaziotar bidea egiten ari direnak, gau bakarra egiten dute eta Urbiatik Araia aldera joaten dira gero. Beste batzuk kirolariak, espeleologia gustuko dutenak edo mendira joateko planekin datozenak izaten dira. Eta hirugarren taldean daude ikastetxeetatik datozen gaztetxoak edo asteburu pasa etortzen diren familiak".

Erreserbei dagokienez, gero eta lan gehiago egiten dutela *Booking*-ekin dio. Aste Santurako, adibidez, dagoeneko badituzte erreserba batzuk eginda bide hori erabilita.



Martitzenean egin zuten bilera kultura etxean. OÑATIKO GURE ESKU DAGO

# Altubeko mendatean izango dira oñatiarrak ekainaren 10ean

Gure Esku Dagok antolatu duen giza katean Donostia eta Gasteiz arteko bi kilometro osatuko dituzte

**O.E.** OÑATI

Orain arteko ibilbidea errepasatuz hasi zuen bilera martitzen iluntzean Oñatiko Gure Esku Dago taldeak. Eta hemendik aurrerako asmoak azaldu zituen ondoren. Horien artean hiru: galdeketekin jarraitzea, ekainaren 10eko giza katea eta Herritarren Ituna.

### Ituna

Donostia eta Gasteiz elkartuko dituen giza katea ekainaren 10ean egingo da eta 187 eta 188 kilometroetan egongo dira oñatiarrak. "Araba eta Bizkaia arteko mugan dago, Altube mendatearen inguru horretan. Leintz bailarakoak eta Oñatikoak Arabako eta Bizkaiko mugara joango gara eta Bergarakoak, Antzuolakoak eta Elgetakoak, Gipuzkoan egongo dira. Lan talde bat laster hasiko da egun hori antolatzen: txartelak, autobusak...

Ikusten diren beste lanetan ere herritarrek parte hartzea gurako genuke. Aste honetako bilera batetik informatiboa zen, baina laguntza deialdia ere izan da, eta pozik gaude izan duen erantzunarekin", dio taldeko Lierni Olmedok.

Eta giza katerako dena prest egon dadin, Herritarren Ituna lantzen ere hasiko dira. "Erabakitzeko eskubidearen aldeko herritarron 2.109 arrazoi biltzea da erronka. Arrazoi horiek legebiltzarrera bidaliko dira gero egitasmo hori Herri Itun bilakatzea eskatzeko", dio Olmedok.

### Mintegia

Oñatin, apirilaren 14an egingo dute mintegi bat oñatiarren arrazoiak biltzeko, eta batutakoak zabaltzeko, jai egun bat ere egingo da. Maiatzean izango da hori, Klik Eguna, eta herri bakoitzak bere formatuan ospatuko du.

## Ezin da bizikletan igo Udana mendatera, segurtasunagatik

GI-2630 errepidea oso hondatuta dago Udanan eta segurtasun kontuengatik, bizikletendako itxi egin dute mendatea. Aldundiak jakinarazi duen moduan, obrak bukatu arte ezingo da bizikletan igo Oñatitik Udana gainera. Errepidea konpontzeko lanak Aste Santu ostean hasiko dituzte, eta bi hilabete eta erdi iraungo dute.

## ZUZENKETA

Joan den Martxoaren 8a egunaren harira hilaren 2ko alean Oñatiko orrietan gai horri lotuta argitaratutako artikuluan dakar egun horretako greba deialdia Bilgune Feministak egin zuela eta ez da horrela. Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitu zuen eta harekin bat egin zuen Oñatiko sare feministak.

# Bi hilabeteko lanak Bakardadeko Ama kalean

Gipuzkoako Urak enpresak ur hoditeria aldatzeko lanak hasi ditu, eta ondorioz, kalea itxita egongo da 08:00etatik 18:00etara. Kultura etxearen atzeko irlatxoa biribilgune bihurtu da zirkulazioa arintzeko; Herribuseko linean ere eragina dute obrek

**Oihana Elortza** OÑATI

Astelehenean hasi zen Gipuzkoako Urak enpresa lanak egiten Bakardadearen Ama kalean. Ur edangarriaren hoditeria aldatuko dute eta lan horiek egiteko kalea itxi behar izan dute. Bi hilabetez egongo da itxita.



Bakardadearen Ama kaleko lanak hasi berritan. O.E.

### Autoak Euskadi etorbidetik

Lanak bukatu arte Bakardadearen Ama kalea itxita egongo da 08:00etatik 18:00etara, eta bitarte horretan, Euskadi etorbidea izango da ibilgailuen irtenbidea. Kultura etxearen atzean, Maibi dendaren aurrean, dagoen irlatxoa biribilgune bihurtu da, eta Errekaldetik eta Euskadiko etorbidetik doazen ibilgailuek han emango dute buelta berriz Bidaurretako biribilguneranzt joateko. Unibertsitate etorbidetik Porturako zirkulazioak ez du aldaketarik.

Kalearen barrenean dauden TAO aparkalekuak ez dira erabilgarri egongo datozen bi hilabetetan, eta Ugarkalde-Errekalde-Kasablanka linea egiten duen Herribus zerbitzuan ere aldaketak egongo dira.

### Argiteria

Lan hauek bi fasetan egingo ditu Gipuzkoako Urak enpresak, eta hoditeria aldatzeko lur zorua jaso behar dutela aprobetxatuz, beste lan batzuk ere egingo ditu Udalak, inguru horretan.

Lehen fasean, esaterako, Urtxin loradenda eta Aker taberna pareko tartean dagoen hoditeria aldatuko dute. Bigarrenean, Aker eta Txaketua tabernen artekoa. Eta bigarren faseko lan horiek aprobetxatuko ditu Udalak beste lan batzuk egiteko, esaterako, argiteria aldatzeko. Tarte horretan, Udalak, hainbat irisgarritasun lan ere egingo ditu: espaloi bat zabaldu eta zebrabide baten irisgarritasuna hobetu, besteak beste. Sabadell-Guipuzcoano banketxe atzealdeko espaloia da zabalduko dutena, Portu kaletik doanari jarraipena emanez. Argiteriako azpiegiturak ere aldatuko dituzte.

Bigarren fase horrek zirkulazioan izango duen eragina eta kalearen itxiera ordutegia desberdinak izango dira. Horiek hasi arte, baina, Bakardadearen Ama kalea erabat itxita egongo da 08:00etatik 18:00etara. Gainerako orduetan ohiko moduan erabiliko dute ibilgailuek.



NIRE USTEZ

**JOSU ZUBIA**

## Tontoak gara!

Aspaldi honetan gehienok ikusi ahal izan nauzue sudur gorri batekin aurpegian. Zer sentipen ederra pailazo izatearena, bai horixe. Baina hainbatek arraro samar begiratu izan nau eta ez dakit zuek ere argi ote duzuen zer den benetan pailazo izatea.

Zer da pailazoa? "Umeentzako tontakeriak egiten dituen pertsonaia bat". Oker! Pailazoa harantzago doa. Pailazoak badu bere poetika eta mundu honetan egoteko arrazoia. Ez da baloratzen, ez delako komeni. Pailazoak kolokan jartzen du gizarte honen logika eta gure izaera desordenatua. Guk, pertsonok, gure ahultasunak ezkutatzen ditugu, ez gaitezen hauskorrak izan eta ez gaitzaten hautsi –itxurakeriak agintzen du hemen–. Pailazoak errealitate hau erakusten du bere izaera erreala denon aurrean erakutsiz. Pailazo batek sentitzen duena egiten du, besterik gabe. Guk nahiko genuke horrela jokatu baina...

Eta zergatik egiten dugu barre? Ez tontakeriak egiten dituelako, baizik eta erakusten digulako zer tontoak garen.

# Uztaileko udaleku irekietara joateko izen ematea, zabalik

Ordainketaren ziurtagiria eta izen emate orria ludotekan edo udaletxean utzi behar dira hilaren 23a aurretik

**O.E.** OÑATI

Uztailaren 2tik 27ra izango dira aurtengo udaleku irekiak. Gaztelekua izango da, aurten ere, topalekua eta 4 eta 12 urte bitarteko umeak parte hartu ahal izango dute. Uraren eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak eta kanpaldia dira, besteak beste, egin asmo dituzten ekintzak.

Matrikula da 70 euro haur bakoitzeko; eta 60 euro bigarrena joanez gero eta 50 euro hirugarrena; laugarrenetik gora, doan da. Izen-emate orria eta ordainketaren ziurtagiria eman behar dira udaletxean edo ludotekan martxoaren 23a aurretik. Udalekuen ordutegia da 10:00etatik 13:00etara eta zaintza zerbitzua egongo da 08:15etik 10:00etara; azken horren prezioa da 50 euro.

### Arte udalekuak

Data horietan eta prezio berberean arte udalekuak ere egingo dira. LH3tik DBH4ra bitarteko gazteendako izango dira eta dagoeneko bete dira plazak; lehen bi egunetan bete ziren. Hamabost laguneko taldea osatu dute udaleku horietan.

HARIRA
GOIENA TELEBISTA
MARTXOAREN 20AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:30EAN
OÑATI AZTERGAI, UDAL ORDEZKARIEKIN:
MIKEL BIAIN, ALKATEA (EH BILDU)
LOURDES IDOIAGA (EAJ)
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA
LAGUNTZAILEA:
Markiegi
goiena
Zu hemen zaude.




Ikuskizuneko protagonistak –ezkerretik eskuinera–: Naroa Igartua, Txomin Maidagan eta Euken Mugarza. GANBARA FAKTORIA

# Zibilizazio ezberdinak irudikatuz, kalejiran

Egitasmo berriarekin datoz Ganbara Kantu Eskolakoak. 'Arkeologoak' ikuskizunarekin bustiko dituzte bihar herriko kaleak. Eta, horrez aparte, bi emanaldi eskainiko dituzte gaztelekuan. Imanol Urbietaren omenezko keinurik ere prestatu dute

**Iker Oñate** OÑATI

Egitasmo berriaren prestakuntzan buru-belarri jardun ostean, egindakoa erakusteko unea iritsi zaie Ganbara Kantu Eskolakoei; Ganbara Txikiko zein Txikitxoko kideez aparte, abesbatzaren tailerretakoek eta Ikastetxeak Kantarikoek ere esku hartu dute horretan. Hala, 120 neska-mutiko inguruk jardungo dute herriko kaleetan, *Arkeologoak* ikuskizunaren bidez, historian zehar izaniko zibilizazio ezberdinak berreskuratuz.

Eta egun osoan zehar egongo da zer ikusi –bihar–. Zehatz esanda, 12:00etarako finkatu dute lehen hitzordua. "Herriko kaleetan izango gara kalejira eder batekin. Pieza eta koreografia ezberdinak izango dira gozagai", diote Ganbara Faktoriakoek. Esan moduan, historian zehar izandako zibilizazio ezberdinak irudikatzea da euren asmoa: "Momiak, erromatarrak, greziarrak, egiptoarrak eta txinatarrak, besteak beste".

Dena den, eguneko ekimena ez da hor bukatuko. Horrez aparte badute beste emanaldirik finkatuta: kalean zeharreko ekintza bukatuta, *Arkeologoak* ipuin musikatua izango da gozagai gaztelekuan. Hain zuzen, bi emanaldi eskainiko dituzte arratsaldean –17:00etan eta 18:30ean–. Sarrerak aurrez jarri dituzte salgai, 5 euroren truke; Txokolateixan eros daitezke.

### Iraganera bidaia

*Arkeologoak* ipuin musikatuak iraganera egindako bidaia du erdigunean, Takik eta Tutek bere lagun momiarekin egindakoa. "Zibilizazio ezberdinak ezagutzen dituzte esperientzia horretan. Garrantzitsua da hori.

**ARRATSALDEAN BI EMANALDI ESKAINIKO DITUZTE GANBARA KANTU ESKOLAKOEK GAZTELEKUAN**

Kontuan izan behar dugu horiek guztiek eraiki dutela gaur egun ezagutzen dugun mundua", azaldu dute. Hori horrela, Mesopotamia goiztiarreko nekazariak, Egiptoko momiak eta abesbatza grekoko kideak ageri dira ikuskizunean.

Eta bereziki haurrei zuzenduriko ikuskizuna bada ere, Ganbarakoek ez dute adin mugarik jarri: "Edozein adineko jendeak goza dezake ikuskizunarekin; ez da adin mugarik. Dekoratu bereziak eta musika paregabea izango dira gozagarri".

### Imanol Urbieta akorduan

Zapatuko emanaldia ez da edozelakoa izango, omenaldi kutsu bat ere eman gura baitiote Ganbarakoek: Imanol Urbieta musikari eta idazlea izango dute gogoan. "Urbietaren kantu esanguratsuenak izango dira entzungai ekitaldiaren lehen zatian. Tartean daude *Jon Braun*, *Ran Rober Ran* eta *Txoria nintzela* abestiak", argitu dute.



Alebin eta infantil mailakoen txirrindularitza proba, Oñatin. GOIENA

# Eskolarteko txirrindularitza proba izango da zapatuan

Alebinek eta infantilek jardungo dute Unibertsitate inguruan. 16:30ean hasiko dute lasterketa

**I.O.** OÑATI

Asteburuan hasiko du Oñatik txirrindularitza karteldegia. Alebin eta infantil kategorietako ordezkariak izango dira Unibertsitate inguruan, 16:30ean hasita. Eta gogoz jarduteko osagairik ez zaie falta: denboraldiko bigarren lasterketa da askorendako. Hori horrela, 100 txirrindulari inguru espero dituzte antolatzaileek; Bizipoz-Aloña Mendi taldeko hamahiru gazte izango dira horien artean.

Dena den, mugarik ezarri barik, txirrindularitza sailak bertan parte hartzera gonbidatu ditu herriko gaztetxoak. " Federakuntza mailako lasterketa izan arren, eskolartekoa dela kontuan izanda, 7 eta 10 urte bitarteko gaztetxoak gonbidatu gura ditugu", diote. Eta gaineratu dute ez dela baldintza berezirik eskatuko: "Kaskoa eta edozein motako bizikleta (errepidekoa, mendikoa...) izatea, besterik ez".

### Txanponaren bi aldeak

Aurreko asteburuan txanponaren bi aldeak ezagutu zituen herriko txirrindularitzak: lasterketa irabazleak eta min hartutako txirrindulariak izan ziren. Batetik, Elgoibarko proba garaitu zuen Aimar Erostarbek; eta, horretan geratu barik, taldekako sailkapena euren egitea lortu zuten Ulma-Aloña Mendikoek –kadeteak–. Eta izan zen bestelako emaitza baikorrik ere: eskolartekoan hirugarren postua erdietsi zuen Bizipoz-Aloña Mendiko Aimar Madinak.

Esan moduan, baina, txanponaren beste aldea ere ezagutu zuen sailak: erorikoa izan zuten Ekaitz Txintxurretak eta Xabi Murgiondok. Lepauztaia apurtu zuen lehenak; eta behatza josi behar izan zioten bigarrenari.

## Akordeoi jotzaile ohien kontzerturako izen-ematea, bukatzear

Akordeoi jotzaile ohiek kontzertu berezia egingo dute abenduan. Eta amaitzear da emanaldi berezi horretan esku hartu gura duenarendako izen-ematea. Hain zuzen, Jose de Azpiazu musika eskolaren webgunean eman daiteke izena, abenduaren 20ra bitartean. Tartean, *Jurassic Park* eta *Mamma Mia* filmetako piezak eskainiko dituzte.

## Euskarazko film laburrak ikusgai, gaur, kultura etxean

*Laburbira* egitasmoaren hamabosgarren edizioa izango da gozagai gaur arratsaldean, kultura etxean; 19:30erako finkatu dute hitzordua. Ohi moduan, euskarazko zenbait film labur izango dira ikusgai. Aurtengoan, zortzi ikus-entzunezkok osatzen dute zerrenda: *Ilunpetan, Night Shift, Higadurak, Ejecutor, Tazan, Areka, Kreba* eta *Zulo*.



# ZINEMASTE

## ZINEMAKO SARRERA 3€-AN LOR DEZAKEZU CARREFOUR GORBEIAN

MARTXOAREN 19-TIK 24-RA
Bi egunak barne

EGIN **40€ EDO GEHIAGOKO** EROSKETA CARREFOUR GORBEIAN ETA LORTU

**Gehienez ere zinemarako 2 sarrera 3€-ren truke bakoitza, Gorbeia Zinemetan ikusgai izango den edozein filmetarako.**

**2018ko apirilaren 8ra arte.**

**EZINGO DA BESTELAKO ESKAINTZA EDOTA PROMOZIOREKIN PILATU, KONTSULTATU BALDINTZAK HEMEN:**

**CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM**

Carrefour

CINES GORBEIA ZINEMAK

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Carrefour

%50 BUELTAN

**EROSITAKOAREN %50 ITZULIKO DIZUGU**

**1.000 produktutan baino gehiagotan**

Erosketa-tiketarekin, sustapenean lortutako zenbatekoaren kupoia emango dizute. Hobaria Carrefour hipermerkatuetan trukatu ahal izango duzu 2018ko apirilaren 3tik 16ra arte.

%50 BUELTAN 5€ eraman



Carrefour.es
Zure erosketa sarean

MARTXOAREN 14TIK APIRILAREN 1ERA ARTE

COLON detergentea:
**Hautsa** 50 ontzitxo (1),
**Likidoa** 50 garbiketa (2),
**Vanish likidoa** 45 garbiketa (3),
**Power Gel** 34 kapsula (4)
**edo Vanish** 32 kapsula (5)

1 Ale
**9,99€**

(1) (2) Ontzitxo edo garbiketa bakoitza 0,20€ (3) Garbiketa bakoitza 0,22€ Kapsula bakoitza (4) 0,29€ (5) 0,31€



Iaz Antxintxika taldekoek antolatutako triatloi txikiko erretratua, Agorrosin kanpoaldean. GOIENA

# "Epe luzera begira egin beharreko lana da"

**DUATLOIA** Bihar, zapatua, nagusien duatloiak utzitako hutsunea beteko du Oñatiko duatloi txikiak. Eta, harrobia lantzeko modua ere izango da: "Infantil mailan parte-hartzeak, orokorrean, behera egiten duelako Gipuzkoan", dio Iban Perezek

**Xabier Urzelai** OÑATI

Duatloi txikia egingo dute bihar, zapatua, Oñatiko kaleetan (10:30ean hasita, baina lasterkariek lehenago egon beharko dute). Guztira alebin, benjamin eta infantil mailako 160 atleta gazte izango dira irteera puntuan –8 eta 13 urte bitartekoak–: "Kopuru polita da, kontutan hartuta, gainera, zapatukoa lehenengo edizioa dela. Gipuzkoa mailan egin dituzten beste lasterketa batzuekin alderatuta batezbestekotik gora gaude, baina egia da, infantil mailan atleta gehiago gurako genituzkeela [bizpahiru izango dira]", adierazi du Iban Perez antolatzaileak. Hala, Oñatin egongo diren atleta gazteen %90a Oñatikoak izango dira, baina badatoz inguruetako herrietakoak ere, eta baita Arabatik eta Bizkaitik ere.

## Eskola Kirola barruan

Alebin eta benjamin mailetan Eskola Kiroleko programa barruan sartu dute duatloia, baina infantil maila ez, eta hori da beherakadaren arrazoi nagusietako bat: "Garbi daukagu hor lanean jarraitu beharko dugula, epe luzera begira egin beharreko lana da. Hala, garrantzitsua izango da zapatuan gazteak ondo ibiltzea, hitzorduaz gozatzea, eta horrela, errazagoa izango da datorren urtean ere duatloia edo triatloia egitera animatzea".

## Txikiak, neutralizatuta

Alebin eta benjamin mailetan duatloiak ez du lasterketa izaera izango: "Probaren lehenengo bi sektoreetan lasterketak neutralizatuak izango dira, hau da, antolatzaileak joango dira euren ondoan erritmoa markatzen, eta ez da sailkapenik egongo".

Bestalde, badirudi eguraldiak ez duela lagunduko: "Bizikletekin ez dira errepidera irtengo, eta gainera, neutralizatutako tramuak izango direnez ez dago arazorik. Eta bai, eguraldi ona beti da lagungarria, baina duatloia aire librean egiten den kirol jarduera da, eta gazteei azaldu behar diegu lasterketa batzuk euripean izaten direla".

## ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

EUSKAL LIGA, EMAKUM.
**Leintz Arizmen.-Leioa**
Zapatua. 16:00. Mojategi.

OHOREZKO ERREGIONA.
**Oiartzun-Aretxabaleta**
Zapatua. 11:30. Oiartzun.
**Amaikak Bat-Mondra**
Domeka. 16:30. Deba.
**Tolosa-Bergara**
Zapatua. 16:30. Tolosa.

ERREGIONAL PREFERE.
**Antzuola-Idiazabal**
Zapatua. 16:00. Eztala.
**Zumaiako-Aretxabaleta**
Zapatua. 17:00. Zumaia.
**Ikasberri-Mondra**
Zapatua. 18:45. Azpeitia.
**Tolosa-Bergara**
Zapatua. 15:30. Usabal.
**Aloña Mendi-Ordizia**
Domeka. 16:30. Azkoagai.

EMAKUMEZK. IGOERA.
**Anaitasuna-Bergara**
Domeka. 17:00. Azkoitia.

EMAKU. KOPA.
**Aloña Mendi-Goierri**
Zapatua. 10:00. Azkoagai.

ERREGIONAL KOPA
**Aloña Mendi-Amaikak**
Zapatua. 16:30. Azkoaga.

**ARETO FUTBOLA**

NAZIONAL MAILA
**Afantxo-Aretxab. UDA**
Zapatua. 16:00. Pasaia.

EUSKADIKO TXAPELK.
**Mondrate-Elorrietako**
Zapatua. 17:30. Musakola
**Eskoriatza-Mallabia**
Zapatua. 18:00. M. Muñoz

**SASKIBALOIA**

EBA
**MU-Ulacia**
Domeka. 19:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO LEHEN M.
**Aloña Mendi-Alde Z.**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
**Atletico-Alkide. Ointxe**
Zapatua. 20:00. Aiete.

GIP. BIGARREN MAILA
**Bosteko-Soraluce BKE**
Zapatua. 18:00. Donostia.

EMAKUMEZKOAK
**Ayma Goier.-Eskoriatza**
Domeka. 18:00. Urretxu.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAPELKE.
**Fagor Indust.-Urdaneta**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
**Siglo XX-Ford Mugarri**
Domeka. 12:00. Ordizia.

EUSKADI. TXAP. EMAK.
**Askartza-Aloña Mendi**
Zapatua. 19:45. Bilbao.

**TXIRRINDULARITZA**

ESKOLA ARTEKO LAST.
Zapatua. 16:30. Oñati.

**PILOTA**

EMAKUME MASTER CUP
**Oñatin**
Domeka. 11:30. Zubikoa.

UDABERRIKO FINALAK
**Aretxabaleta**
Gaur. 19:00. Iturrigorri.

## ATLETISMOA Beterano mailan Espainiako txapeldun da Ramos

Avilan jokatu zuten, joan den astean, Espainiako Kros txapelketa, eta master 55 kategorian Marisol Ramosek irabazi zuen lasterketa. Hala, bistan da pista estaliko denboraldi bikainari jarraipena emango diola korrikalari oñatiarrak aire librean ere. Jose Luis Garcia, berriz, seigarren sailkatu zen master 60 kategorian.

## XAKEA Arrasate-Arlutz taldea kategoriaz jaitsi da

Joan den astean Mirandan jokatu zuten Euskadiko Liga barruan Ohorezko Mailako azken jardunaldia. Debagoieneko taldeak karanbola behar zuen mailari eutsi ahal izateko, eta ez zuten halakorik lortu. Hala, 3 eta 1 galdu zuten eta Euskadiko Lehenengo mailara jaitsiko dira: "Datorren urtean mailaz igotzeko borrokatuko gara".

ERREPORTAJE BEREZIA
GOIENA TELEBISTA, 'HURA ZEN URKULU'
ZAPATUAN 14:30EAN / DOMEKAN 18:15EAN ETA 20:30EAN
UR AZPIAN GERATU ZIREN ISTORIOAK GOGORATZEN
LAGUNTZAILEAK:
loramendi
MONDRAGON ASSEMBLY
goiena
Zu hemen zaude.



# Master Cup txapelketako finalerdiak Oñatin, etzi

**PILOTA** Promozio mailako eta lehenengo mailako bina partidu jokatuko dituzte Zubikoa kiroldegian domekan, 11:30ean hasita. Binakako esku pilota txapelketako lehiak ikusteko sarrera debaldekoa izango da. Ez dago ibarreko finalistarik

**M. Bikuña / X. Urzelai** ARRASATE

Emakumezkoen Master Cup txapelketak geldialdia egingo du berriro ere Oñatin. Aurretik, lau t'erdiko bi kanporaketa jokatu zituzten. Oraingoan, binakako finalerdiak izango dira: "Eibarko finalaren aurretik Oñatin egon gura genuen. Izan ere, Aloña Mendin emakume askok dihardute pilotan, frontoia oso ona da eta beti hartu gaituzke oso ondo hemen", esan zuen aurkezpenean Iker Amarika antolatzaileak.

Aloña Mendik eta Oñatiko Udalak ere gogotsu hartu dute emakume pilotarien txapelketa herrian jokatzeko aukera. "Emakume pilotari taldea izatearen aldeko apustua egin genuen iaz, eta, zorionez, emaitzak lortzen hasi gara. Adin tarte zabaleko pilotariak ditugu, eta bereziki, gaztetxoenak, etorkizuneko pilotariak izango dira", azaldu zuen Josu Osak. Eta gaineratu: "Inori meriturik kendu barik, bereziki lehen mailako pilotariek duten teknika ikusteko aukera bikaina da".

**Ehun emakumezko txapelketan**

Ehun emakume pilotarik hasi zuten Master Cup txapelketa urtarrilean: 42 bikote promozio mailan eta zortzi maila gorenean.



Emakume Cup txapelketa barruan kanporaketa Oñatin, artxibo irudian. GOIENA

## Finalerdietan izango diren pilotariak:

Pilota jaialdiko sarrera debalde izango da.

**Promozio mailan**
- Alaitz Badiola/Oihana Orbegozo - Maddi Unanue/Naroa Agirre.
- Amaia Vicario/Ainhoa Urien - Nagore Aramendi/Oihana Unanue.

**Lehenengo mailan**
- Amaia Araiztegi/Maddi Mendizabal - Patri Espinar/Eneritz Arrieta.
- Miren Larrarte/Maider Mendizabal - Olatz Arrizabalaga/Leire Etxaniz.

## Astorek jantziko ditu pilotariak

Astorek emakume pilotarien lehen ekipamendua aurkeztu du aste barruan, Arrasaten. Emakume Master Cup txapelketako finalerdietan eta finaletan izango diren kirolariek jantziko dute lehen aldiz ekipamendu hori: "Emakumeek emakumeentzat egindako jantzia da", adierazi du Imanol Muñoz Astoreko marketin-zuzendariak.




Emakume pilotarien ekipamenduaren aurkezpena. GOIENA



Sari banaketa ekitaldiko talde erretratua. IÑIGO ZAITEGI

# Zubizarretak eta Expositok erraz irabazi dituzte finalak

**PILOTA** Antolatzaileak pozik geratu dira Bergarako Lau t'erdiko Soraluce Sariak emandakoarekin

**X.U** BERGARA

Bergarako Lau t'erdiko Soraluce Sariko bederatzigarren edizioak baditu irabazleak. Martitzenean jokatu zituzten finalak, eta partidu erabakigarrietan aurreikusi baino lehia txikiagoa izan zen, bai promesa mailan, eta baita nagusien kategorian ere; Expositok eta Zubizarretak ondo menderatu zituzten kontrarioak.

**Amateur mailan, puntakoak**

Beste behin, Euskal Herriko amateur mailako pilotari onentsuenak batu dituzte Bergaran, eta baita promesa mailako pilotari trebeak ere. Bada, martitzeneko finaletan irabazleek kontrarioak baino koska bat gorago daudela erakutsi zuten.

Promesa mailan Expositok 7 eta 22 irabazi zion Uriberi: "Nabarmena izan zen bi pilotarien artean dagoen aldea, Expositok aukera gutxi eman zizkion Uriberi bere ezker bolea erabiltzeko, eta pilota behetik jokatuta, eta indarrez emanda, erraz irabazi zuen", adierazi du Reyes Azkoitiak.

**Zubizarretak ere erraz**

Nagusien kategorian ere nahiko azkar erabaki zuten finala, Zubizarretak 22 eta 7 irabazi zioneta Zubiriari: "Zubizarretak min handia egin zion sakearekin, guztira zortzi tanto egin zizkion horrela. Txapelketa oso borobila egin du, eta merezimendu osoz jantzi du txapela". Markagailuari begiratuta ezin esan emozio handiko finalak izan zirenik, baina pilotariek oso tanto politak egin zituzten, eta harmailetan batutako zaleek gozatu ederra hartu zuten: "Gustura geratu gara aurtengoak emandakoarekin, ikusle asko etorri da partiduetara".

## PILOTA Udaberri Sariko finalak jokatuko dituzte Aretxabaletan

Joan den asteburuan jokatu zituzten Udaberri Sariko lehendabiziko finalak, Donostian. Eta, asteburuan final gehiago egongo dira jokoan, hainbat jaialditan banatuta. Horietako bat Aretxabaletan jokatuko dute gaur, egubakoitza. Eta hor, Erañak eta Igartuak etxeko zaleen aurrean jokatuko dute finala, Eibarko pilotarien aurka (19:00).

## PILOTA Rezusta eta Elezkano bigarren puntuaren bila, bihar

Finalerdietako ligaxkaren barruan joan den zapatuan Labriten lehen aurrerapausoa eman eta gero (18-22 Ezkurdiaren eta Zabaletaren kontra), Beñat Rezustak eta Danel Elezkanok Olaizola II.a eta Imaz izango dituzte aurrean, berriro ere agertoki berberean, Iruñean. Bi bikoteek hasi dute ondo ligaxka hau.


Aurtengo Huhezinema film laburren jaialdiaren antolatzaile taldeko kide batzuk. IBAN DEL CAMPO

# Huhezinema, urtez urte hazten doan zine jaialdia

Martxoaren 21etik 23ra bitartean egingo dute MUko Ikus-entzunezko fakultateak antolatzen duen film laburren Huhezinema jaialdia; filmen proiekzioez gainera, efektu bereziei buruzko 'Master-class'-a eta euskal websailen topaketa egingo dute

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETA
Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko fakultateak hamaikagarrenez egingo duen Huhezinema jaialdiak euskal film laburren sortzaileen eta zaleen topaleku bihurtuko du Aretxabaletako Arkupe kultura etxea datorren astean. *Ikusteko jaioak gara* da aurten aukeratu duten leloa. "Hamaikagarren aldia da, eta euskaraz zenbaki horrek daukan esanahiarekin lotu daiteke. Horrek ez du esan nahi jaialdi guztia lelo horren menpe dagoenik baina nolabait jaialdiaren izaera batzen du, eta helburu bera du Irungo Marina Garciak egin duen kartelak ere. Lehiaketa bat deitu genuen kartela aukeratzeko, eta emankorra izan da jasotakoa; izan ere, 55 proposamen jaso ditugu. Garciak aurrera begira dauden pertsonen multzoa irudikatu du bakoitzaren begirada agerian utziz; aproposa iruditu zitzaigun leloarekin bat egiteko", azaldu du Iban del Campo irakasleak eta antolatzaileak.

**Hamahiru ikasletako lan-taldea**
Del Campok laugarren mailan irakasten duen *Kultur ekitaldien antolaketa* izeneko ikasgaiaren barruan prestatzen dute jaialdia. "Erronka itzela da urtero antolatzaile taldea aldatzea, baina hori da jaialdiaren berezitasuna, eta era berean, zailtasuna: ikasleek antolatzen dutela guztia irakasleen laguntzarekin. Oso pozik nago taldearekin eta osatu dugun egitarauarekin".

**Zinemaz gozatzeko aukera asko**
Hiru sailetan banatuta dauden –Ofiziala, Kutixia, hau da, orain arte Basque Culinary izena izan duena, eta MUko ikasleena–, eta askotariko istorioak, generoak eta aurrekontuak dituzten film laburren proiekzioak dira jaialdiaren ardatz. "Kutixi sailean gastronomiari buruzko hiru minututako filmak eskainiko ditugu; sail ganberroena da hori. MUkoa gure ikasleendako erakusleihoa da; eta Sail Ofizialean eskarmentu handiagoko sortzaileek egindako hamar film eskainiko ditugu egubakoitzean; han izango dira zuzendari guztiak. Horiez gainera, Donostiako Zinemaldiarekin elkarlanean nazioarteko zine eskoletako lanak ere ikusgai izango dira. Aurten gainera, sari gehiago daude; horien artean, Mundukide Fundazioaren laguntzarekin, giza eskubideen gaia ondoen lantzen duenarentzat".

Publiko guztiarentzako jaialdia da. "Ekitaldi batzuk ikasleentzako pentsatuta daude baina guztientzako daude Arkupeko ateak zabalik; era berean, filmetan erabiltzen dituzten efektu berezien inguruko erakustaldia izango da Herriko Plazan. Drama FX-eko profesionalek, *Handia* eta *Errementari* filmetan egin duten lana azalduko dute aretoan eta hainbat adibide erakutsiko dituzte gero, plazan".

## Egitaraua

**Martxoak 21, eguaztena**
- **10:00-10:30:** Kutixi saileko filmen proiekzioa.
- **10:45-13:00:** MUko Ikasleen saileko filmen proiekzioa.
- **16:00-20:00:** Zine efektu bereziei buruzko *Master-class*-a Drama FX enpresaren eskutik.

**Martxoak 22, eguena**
- **10:30-13:00:** Orona Saria eta EIECINE nazioarteko film laburren proiekzioak.
- **16:00-19:00:** Euskal websailen topaketa.

**Martxoak 23, egubakoitza**
- **16:00-17:30:** Sail Ofizialeko film laburren proiekzioaren lehen zatia.
- **18:00-19:45:** Sail Ofizialeko filmen proiekzioaren jarraipena.
- **20:15-21:00** Saribanaketa ekitaldia.
- **21:00-22:30** Luntxa.
- **22:30-24:30** Hartz taldearen kontzertua

Ekitaldi guztiak Aretxabaletako Arkupen izango dira; doan eta publiko guztiarentzako zabalik.

**'IKUSTEKO JAIOAK GARA' LELOA DU HAMAIKAGARREN HUHEZINEMA JAIALDIAK**

# Musika eskaintza zabala dakar hastear dagoen Beratu jaialdiak

Martxoaren 18tik 25era bitartean, kontzertuak, tailerra, disko azoka, hitzaldiak eta mahai-ingurua izango dira

**A.A.** OÑATI
Musikaren alde hurbila erakutsi gura du Oñatiko Udalak, herriko askotariko eragileekin eta Ahotsenearekin elkarlanean domekan abiatuko duten Beratu jaialdiak. Musika entzuteko askotariko aukerez gain, musikaren ertz ezberdinak bizitzeko modu berri bat proposatu gura dutela diote bultzatzaileek; horretarako, publiko zabalarentzako eta profesionalendako askotariko eskaintza egin dute.

Ahozko tradiziotik abiatuta kantuak sortzen dituzten Maria Arnal i Marcel Bagés katalanek domekan Santa Ana aretoan (19:30) egingo duten kontzertuarekin abiatuko da. Iaz kaleratu zuten memorian eta transmisioan oinarrituta dagoen *45 cerebros y 1 corazón*, urteko disko onenen artean aukeratu zutena adituek. Emozioa, jarrera eta talentua batuta emanaldi biziak eskaintzen dituzte. Jaialdiaren informazioa eta sarrerak erosteko aukera, *Beratu.eus* atarian.


Maria Arnal eta Marcel Bages Santa Ana aretoan izango dira domekan. BERATU

# Eskolarteko idatzizko bertso txapelketa bikain

Arizmendi Ikastolako Almen gunean jokatu zen martitzenean Gipuzkoako kanporaketa, eta saio didaktikoa ere eskaini zieten parte-hartzaileei. Haurrak bertsolaritzara gerturatzeko helburuaz antolatutako ekimena izan zen

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Debagoieneko bertso eskoletako bertsolari gazteak eta ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleak batu zituen Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. Arizmendi Ikastolako Almen gunean jokatu zuten, martitzenean, Gipuzkoako eskolarteko idatzizko kanporaketa.

Juanjo Respaldiza, Ikastolen Elkarteko Bertsolaritza arduradunak zera adierazi zuen: "Gipuzkoako hirugarren eskualdean egin dugu, eta parte-hartzea oso ona izan da. Parte-hartzaile kopurua handiagoa izaten da Lehen Hezkuntzan DBHn eta Batxilergoan baino; ohikoa da, izan ere, bertsolaritza ikasgai moduan dute horiek…".



Debagoieneko eskolarteko idatzizko bertsolaritza txapelketako irabazleak. AMAIA TXINTXURRETA

### Saio didaktikoa

Parte-hartzea handia izan zen eskolarteko idatzizko bertsolaritza txapelketan; izan ere, 150 eta 160 neska-mutiko artean aritu ziren. Horrez gain, Oihana eta Haizea Arana bertsolari eskoriatzarrek saio didaktikoa eskaini zuten Eñaut Martikorenarekin batera. Bertsotan edozeinek egin dezakeela eta egunero praktika daitekeela jakinarazi zieten horiek gaztetxoei.

### Bertsolaritzaren onurak

Tradizio handiko txapelketa da, 30 urtetik gora dituena, eta hainbat asmo batzen dituela adierazi zuten antolatzaileek. Dena den, helburu nagusia, ikasleak bertsolaritzara begira jartzea dela azpimarratu zuten: "Eremu asko lantzen dira bertsolaritzaren bitartez, ikaslea horretaz konturatu ere egin gabe: hizkuntza, jarrera, kritikotasuna… Arlo asko ukitzen ditu bertsolaritzak, eta horren bitartez, gaztetxoa jantzi egiten dugu bizitzarako".

### Bertsoekin gozatuz

Unai Gaztelumendi epaimahaiko kide izan zen, eta adierazi zuen maila ederra izan zela: "Bertso-jartzaileen adina kontuan hartuta maila ona zegoen. Agerian geratu da nork egin duen ilusioz, nork gogorik gabe… Hori erraz nabaritzen da. Halako txapelketak egitea oso ondo dago bertsolaritzarekiko zaletasuna pizteko, eta beste pauso bat emateko bidea da. Umeak lanera bultzatzen dituen edozein jarduera, nik neuk, positibotzat hartzen dut".

## 'Kulturrizketak' saioan, Kike Amonarriz eta Xabier Amuriza

Hizkuntzaren gainean hausnartu zuten aurrez aurre jarrita, eta Goiena telebistan ikus daiteke asteburuan

**I.B.** ESKORIATZA

Bakoitzak bere esparrutik, eta bakoitza bere garaian, baina euskararen inguruan lan mordoa egin duten Kike Amonarriz soziolinguista, eta Xabier Amuriza idazle eta kulturgilea izan ziren atzo, eguena, Goiena telebistak ekoizten duen *Kulturrizketak* saioan. Protagonistak euskararen bueltan aritu ziren hizketan, euskararekin izan duten harremanaz, hizkuntzaren gaineko hausnarketaz…

Amonarriz eta Amurizaren arteko elkarrizketa; bihar, zapatua, 16:00etan eta 23:30ean eta domekan, 14:30ean eta 21:45ean eskainiko da Goiena telebistan. Horrez gain, *Kulturrizketak* saioa ikusteko beste bide batzuk ere badaude: *goiena.eus* atarian edo tabletetarako prestatuta dagoen *Goiena Nahieran* plataforman.

Hurrengo saioan, aldiz, Aitziber Garmendia eta Miren Gaztañaga aktoreak izango dira aurrez aurre; martxoaren 22an emitituko da hori.

Goiena Klubaren txokoa

**Martxoko sariak!**

**Izaroren CDa sinatuta + John Anduezaren liburua**
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ

**Otarrea**
**Bidezko merkataritzako produktuak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**
**E-postaz:** klubo@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Sariaren Izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Euroliga Goiena Klubean!**
BASKONIA vs. brose bamberg
**BASKONIA - BROSE BAMBERG**
Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu.
Martxoaren 21ean 20:30ean.
**PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 19RA ARTE**
**Posta elektronikoz:** klubo@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Baskonia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**
**Bergarako Udalari esker**
Erramu zapatu bezperako bertso jaialdirako sarrerak ditugu.
**Bergara | Seminarixoa | Martxoaren 23an | 22:00etan**
**Oñatiko Udalari esker**
*"Delorean"* + *"Lumi"* taldeen kontzerturako sarrerak ditugu.
**Oñati | Gaztelekua | Martxoaren 24an | 22:30ean**
**PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 7RA ARTE**
**Posta elektronikoz:** klubo@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Bertsoak / Kontzertua" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako otordua**
MAIALDE JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
943 25 05 05 klubo@goiena.eus
KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko…
Bazkidetu orain. Urteko kuota 56€.
Deitu: 943 25 05 05. klubo@goiena.eus
goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

## Jose Javier Urrutia Orobengoa

2018ko martxoaren 7an hil zen, Eskoriatzan, 64 urte

Ederlango Oliako mekanizatuko zure lankide ohiek
ez zaitugu ahaztuko.

Arrasaten, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Antonia Navarro Ortuño

Kepa eta Unai Parot preso politikoen ama

Etxerat

Arrasateko Etxerat.
Arrasaten, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Isabel Bernal Hernandez



Oñatin hil zen martxoaren 11n

Vitigudinotik Oñatira,
Oñatin denon bihotzetara;
Goizegi kimatutako bizitza oparoan,
ahaztu ezinezko
senide, bidaide, adiskide.

Beti gugan, izeba!

Irazabal familiako ilobek.
Oñatin, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Berta Osa Alberdi



Felipe Zangituren alarguna

2015eko martxoaren 19an hil zen.

Beti gogoan izango zaitugu.

Zure familia.
Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Antonio Rodriguez Ruiz



2016ko martxoaren 15ean hil zen, 68 urte zituela.

Gure bihotzean zaude.
Segi lotan, aita,
lasai eta bakean.
Asko maite zaitugu.

Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Elvira Martinez Mora



2018ko martxoaren 8an hil zen, 87 urte zituela.

Etxeko egin gintuzun eta
hazi zure maitasunez
beti izango gara "tus niñas"
eskerrik asko bihotzez.

Madariaga-Mujika familia.
Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Andoni Eguren Zornoza



2018ko martxoaren 13an hil zen.

Nahiz eta gure artetik joan, beti gogoan izango zaitugu.

ausolan

Auzo Lagun Koop. E.
Arrasaten, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Andoni Eguren Zornoza



lagun kuttuna

Hara eta hona beti
umore onean;
Beti egongo haiz, Ando
gure aldamenean.

Lagunok.
Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Andoni Eguren Zornoza



2018ko martxoaren 13an hil zen, 50 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenetan
eramango zaitugu betirako.

Agur, Andoni.

Eguren lehengusu-lehengusinak.
Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Angel Martinez



'Rioja'

2018ko martxoaren 9an hil zen, 62 urte zituela.

Horren bihotza maitagarria
pieza bateko gizona
lagun ezin hobea
joan zara ixil-ixilik
baina betik gurekin izango zara,
gero arte, Angel.

Zure kuadrilla.
Aretxabaletan, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Angel Martinez Carcedo



Udal Euskaltegiko ikaslea

2018ko martxoaren 9an hil zen, 62 urte

Leintz Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleok
bat egiten dugu senideen saminarekin.

Aretxabaletan, 2018ko martxoaren 16an.

OROIGARRIA

## Felix Lasagabaster Etxeberria



2018ko martxoaren 9an hil zen, 86 urte

Joan zara
baina gurekin gelditu da
bizitza aurrera eramateko
zuk zeukazun poztasuna.

Emaztea: Mariloli. Zure lagunak: Arantza eta Pako,
Mertxe eta Bizente, Luzia, Beatriz, Maripaz.
Eskoriatzan, 2018ko martxoaren 16an.

## ESKER ONA



### Isabel Bernal Hernandez

2018ko martxoaren 11n hil zen, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 17an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Oñatin, 2018ko martxoaren 16an.

## URTEURRENA



### Antonio Bikuña Igartua

2017ko martxoaren 23an hil zen.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 17an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

## URTEURRENA



### Juan Guridi Arriaran

2017ko martxoaren 12an hil zen, 84 urte

Urteurreneko meza martxoaren 17an, zapatua, izango da 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren elizan.

—

Heriok egin zizun hots
eta utzi gintuen hotz,
baina zu gure baitan eramateak
ematen digu bero eta poz.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

## ESKER ONA



### Elvira Martinez Mora

Feliciano Lopezen alarguna

2018ko martxoaren 8an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

## URTEURRENA



### Paulino Martinez Estevez

Raquel Gallegoren alarguna

2017ko martxoaren 25ean hil zen, 85 urte

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

Beti izango zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

## URTEURRENA



### Ignacio Aranzabal Gabilondo

2017ko martxoaren 3an hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

Gure ondotik joan zinen baina beti izango zaitugu gure bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

## ESKER ONA



### Andoni Eguren Zornoza

2018ko martxoaren 13an hil zen, 50 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

## ESKER ONA



### Pepita Beain Biain

Valeriano Goñiren alarguna

2018ko martxoaren 13an hil zen, 93 urte

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko martxoaren 16an.

## URTEURRENA



### Jesus Ezkurra Murua

Martxoaren 19an hil zen.

Denbora aurrera doa;
urte batzuk zu gabe, jada.
Baina urteak joan ahala,
aldatzen ez den zerbait bada:
zure maitasunak aurrera egiteko
ematen digun indarra.

—

Haren aldeko meza domekan izango da, martxoaren 18an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

## ESKER ONA



### Maria Teresa Arabaolaza Arregui

2018ko martxoaren 4an hil zen, 89 urte

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 17an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Oñatin, 2018ko martxoaren 16an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE *EGUNEZ***

| | |
|---|---|
| Egubakoitza, 16 | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| Zapatua, 17 | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 |
| Domeka, 18 | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| Astelehena, 19 | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| Martitzena, 20 | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 21 | FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26 |
| Eguena, 22 | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |

**BERGARA *EGUNEZ***

| | |
|---|---|
| Egubakoitza, 16 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Zapatua, 17 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Domeka, 18 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Astelehena, 19 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Martitzena, 20 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 21 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Eguena, 22 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |

**OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK***

| | |
|---|---|
| Egubakoitza, 16 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Zapatua, 17 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Domeka, 18 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |

**ARRASATE *GAUEZ EGUNERO***

*(22:00etatik 09:00etara)*

2018ko abenduaren 31ra arte:

IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

**BERGARA *GAUEZ EGUNERO***

*(22:00etatik 09:00etara)*

2018 osoan:

MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Aimar Mendizabal Altzelai**
Martxoaren 22an, 4 urte. Zorionak, maittia! Iritsi da eguna. Goazen ondo pasatzera! Patxo erraldoi bat, etxekoen partetik!



OÑATI
**Enara Guridi Murua**
Martxoaren 22an, 9 urte. Zorionak, Enara! Ondo pasatu zure eguna! Patxo bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
**Aiora Agirre Igarza**
Martxoaren 21ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Unax Larrea Gantxegi**
Martxoaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Unax! Primeran pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat, maite zaitugun guztion eta, bereziki, Anerren eta Noraren partetik.



BERGARA
**Elene Perez Zabaleta**
Martxoaren 20an, 7 urte. Zorionak Elene, txapelduna! Ondo ospatu eguna eta belarritik tirakadak familia osoaren partetik. Bereziki, Irati, Nora, Erik, Jurgi eta Ane.



BERGARA
**Sare Larrañaga Barrenetxea**
Martxoaren 19an, 7 urte. Zorionak, Sare! Zazpi kandela eta zazpi tirakada handi, politt hori! Ondo-ondo pasatu. Patxo!



OÑATI
**Alaitz Isasti Arkauz**
Martxoaren 17an, 5 urte. Zorionak, politt hori. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
**Narel Jauregi Mendibil**
Martxoaren 17an, 7 urte. Zorionak, Narel! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



OÑATI
**Miren Bikuña**
Martxoaren 17an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Sara Garcia**
Martxoaren 17an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat. Ondo pasatu zure eguna. Aitita-amamak eta familia osoaren partetik!



ARRASATE
**Uxue Belategi Galdos**
Martxoaren 16an, urtebete. Zorionak, pospolintxo! Urtebete bazterrak alaitzen. Ondo pasatu eta txoko-marrubizko patxo potolo bat, Goiatzen eta Maddiren partetik.



ANTZUOLA
**June Soto Axpe**
Martxoaren 15ean, 11 urte. Zorionak, *preziosa*. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Musu handi-handi bat, Iratiren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARAMAIO
**Janire eta Laia Sanz**
Martxoaren 15ean. Zorionak, Janire eta Laia! 10 eta 8 urte bete dituzue! Ederto pasa dezazuela zuen eguna! Etxekoen partetik, patxo eta besarkada handi bat!



ANTZUOLA
**Iraia Angeles Telleria**
Martxoaren 15ean, 8 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna etxeko danon eta, batez be, Malenen partetik. Patxo handi bat!



ARRASATE
**Markel Bereziartua Zabala**
Martxoaren 15ean, 5 urte. Zorionak, artista! Bost urte honezkero, denbora ihesi doala! Segi bizitzaz gozatzen eta gure bihotzak alaitzen, Markel!



ANTZUOLA
**Maialen Alonso Rodrigo**
Martxoaren 15ean, 7 urte. Zorionak, potxola, Unairen eta familia osoaren partetik! Asko maite zaitugu.



BERGARA
**Helene Sanchez**
Martxoaren 15ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Egun polita pasatzea opa dizugu. Pilo bat maite zaitugu. Muxu handi bat. Etxekoak eta, bereziki, Haizea eta Tata.



BERGARA
**Libe Unamuno Lete**
Martxoaren 15ean, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Muxu potolo-potolo bat, familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
**Jasone Zabala Ibarra**
Martxoaren 14an, 39 urte. Zorionak, amatxo, zure urtebetetzean! Muxu handi bat, etxeko guztien eta, batez ere, Inar printzetxoaren partetik!



ESKORIATZA
**Beñat eta Nikole Esparza Some**
Martxoaren 14an, 4 urte! Zorionak, bikote! Musu handi bat etxeko danon partetik! Oso ondo pasatu eguna.



ARRASATE
**Maialen Txurruka Agirre**
Martxoaren 14an, 8 urte. Zorionak, maittia. Ondo-ondo pasatu egun politt hau. Zortzi muxu handi-handi, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Laia Castillo Romero**
Martxoaren 13an, urtebete. Zorionak, poxpolintxo! Egun polita pasatu! Muxu handi bat, etxeko guztien eta, batez ere, Danelen eta Oihanen partetik.



OÑATI
**Peio Iciar Garcia**
Martxoaren 11n, 4 urte. Zorionak, Peio! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat, etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Xabi Andres**
Martxoaren 11n, 3 urte. Zorionak, pototo! Segi gure bizitzak argitzen! Asko maite zaitugu!



OÑATI
**Liher Ferreiro Garcia**
Martxoaren 11n, 3 urte. Zorionak, prexioxo! Jada 3 urte. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu erraldoi bat, familiako danon eta, bereziki, Aimarren partetik.



OÑATI
**Maiane Barrena eta Naia Intxausti**
Martxoaren 11n, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi-handi bat bixoi, etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Maddi**
Martxoaren 10ean, 3 urte. Zorionak, titi!



OÑATI
**Inhar Guridi Muñoz**
Martxoaren 10ean, urtebete. Zure ahaide Txantxiku eta Kaxkarinen partetik, zorionak zure lehen urtebetetzean!



BERGARA
**Irati Aperribai Mujika**
Martxoaren 10ean, 7 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo potolo asko, danon partetik.



ARRASATE
**Ekhi Madinabeitia Lasa**
Martxoaren 10ean, urtebete. Zorionak, sagutxo! Urtebete jada! Muxu potolo bat, etxekoen partetik!



ANTZUOLA
**Maddi Acosta Segurola**
Martxoaren 9an, 4 urte. Zorionak, Maddi! Jadanik 4 urte. Pauleren eta etxeko guztien partetik, muxu pilo bat!



ESKORIATZA
**Aner Orobengoa Nevado**
Martxoaren 8an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenik heldu da zure eguna! Ondo pasatu eta besarkada bat, etxeko guztien partetik!

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

## TXUTXU-MUTXUAK





**1. Afaltzeko elkartu ziren**
Antzuolako Andramanuelak taldeko kideek elkarrekin afaldu zuten Martxoaren 8a ospatzeko. Aldarrikapenerako eta jairako unea hartu zuten.

**2. Aloñan zuhaitzak landatzen**
Aloñako Lagunak taldekoak haritzak eta lizarrak landatzen egon ziren aurreko domekan. Era berean, inguruetako itxiturak konpondu zituzten.

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 16

**ELGETA 'Ipuinen Ordua'**
Boluntario taldearen eskutik, bi saio, adinaren arabera.
*Liburutegian, 16:55ean.*

**OÑATI 'Gurea eta Aloña abesbatzak**
Erretiratuendako emanaldia.
*Santa Anan, 18:00etan.*

**ARRASATE Poesia musikatua**
*Hots hiru ahots bakarrean* delako saioa egingo dute Itxaro Bordak eta Itsaso Gutierrezek, euskaraz, Martxoaren 8aren harira. Debaldeko emanaldia.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**OÑATI 'Laburbira'**
Euskarazko zortzi film laburren emanaldia: *Ilunpetan*, *Nigth shift*, *Higadurak*, *Ejecutor*, *Tazan*, *Areka*, *Kreba* eta *Zulo*.
*Kultura etxean, 19:30ean.*

**BERGARA Arragoa folk taldea**
Saint Partricks bezperako emanaldia egingo dute.
*Irish Pub tabernan, 20:00etan.*

**OÑATI Bide Bakarra eta Irkaia taldeak**
Emanaldia egingo dute.
*Gaztetxean, 22:30ean.*

## ZAPATUA 17

**ARRASATE Baserritarren azoka**
Ohiko postuak eta Karapaixo tailerra egongo dira.
*Seber Altuben, 09:00etan.*

**DEBAGOIENA 'Mintzaekintza'**
Mintzalagunendako irteera. Bedoñako aztarnategia bisitatuko dute. Ostean, txakolina nola egiten den azaldu die Felix Etxagibelek.
*Bedoña auzoan, 09:30ean.*

**OÑATI IX. Koben Eguna**
Troglobioak ezagutzeko irteera egingo dute Arrikrutzen. Aurrez eman behar da izena, 943- 08 20 00 telefonoan.
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**OÑATI 'Hurretik' tertulia**
*Oñatiar izateari* buruzko tertulia irekia.
*Gaztelekuan, 10:30ean.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
San Andresen egingo dute bigarren saioa.
*Arimazuri plazan, 10:30ean.*

**OÑATI Duatloi txikia**
10:30ean benjaminak,10:50ean alebinak, 11:15ean infantilak eta 12:00etan, sari banaketa.
*Foruen plazan.*

**ARETXABALETA Ipuin kontaketa**
*Joxe Moxe Kitarraren etxean gertatutakoak* delako saioa egingo du Ixabel Agirresarobek, neska-mutikoendako.
*Liburutegian, 11:30ean.*

**BERGARA Abileziak motor gainean**
Erakustaldia egingo dute.
*Seminarioko patioan, 12:00etan.*

**BERGARA Pol-Polen 75. urteurreneko liburua**
Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzitako liburua aurkeztuko dute. Egilea bertan egongo da.
*Udaletxean, 12:30ean.*

**ELGETA Gaztetxearen urteurren eta itxiera jaia**
13:00etan poteoa, 15:00etan kantu bazkaria eta 19:00etan elektrotxaranga.
*Elgetan.*

**OÑATI 'Hurretik' tertulia**
*Oñatiar izateari* buruzko tertulia irekia egingo dute.
*Makalena elkartean, 15:30ean.*

**ARETXABALETA Karaoke festa**
Gaztetxoendako ekintza.
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Rise Up eta Stronger Together taldeak**
Hardcore doinuak. Debalde
*Haizea tabernan, 18:00etan*

**ARRASATE Irabiatuak egiten**
Gaztetxoendako tailerra.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Karapaixo gaziak**
Gaztetxoendako sukaldaritza tailerra.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Alizia' musikala**
*Herrialde miresgarrian badago wifia* musikalaren emanaldi bikoitza: 16:30ean eta 19:30ean. Lehenengorako badaude sarrerak.
*Torresoroan.*

**BERGARA '13 y martes' antzezlana**
Glu-Glu Produkzioaken antzezlana. Ugaitz Alegria, Leire Ucha eta Diego Perez oholtzan. Sarrerak, zortzi euro.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Jasan eta D-Skarga taldeak**
Debalde.
*Mitarte plazan, 20:30ean.*

**ANTZUOLA Azkaiter Pelox**
Unai Azkarate musikari bergararrak abian du *Azkaiter Pelox on the road 2018* bira.
*Torresoroan, 23:00etan.*

## DOMEKA 18

**ELGETA Mendi irteera Gorlara**
Kantsatzeke mendi taldearekin hamalau kilometroko ibilaldia.
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**ARETXABALETA 'Mari Leka eta Panpoxaren abenturak' antzezlana**
Zirtaka taldearen lana, umeendako. Sarrerak, hiru euro.
*Arkupen, 12:00etan.*

**ELGETA 'Elgeta Erdi Aroan'' bisita gidatua**
Herritar talde batek antolatuta herria Erdi Aroan zelakoa zen ezagutzeko.
*Mendizaleen plazan, 12:30ean.*



**OÑATI Musika bandaren kontzertua**
Irekia.
*Santa Anan, 12:45ean.*

**BERGARA Txistulari bandaren kontzertua**
Emanaldia egingo du
*Udaletxeko arkupeetan, 13:00etan.*

**ESKORIATZA Eguzkiari buruzko astronomia tailerra**
Hainbat tresna erabiliko dituzte: ikus-entzunezkoak, eguzkia behatzeko tresnak eta eguzki erlojua, besteak beste.
*Kultura etxean, 17:00etan.*

**ARETXABALETA Dramazko pelikula**
Gaztetxoendako.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**OÑATI Bertso paper lehiaketako sari banaketa ekitaldia**
Nerea Ibartzabal bertsolaria eta Eneko Arrate aktorea egongo dira sariak ematen.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARRASATE Mahai-futbol txapelketa**
Gaztetxoendako.
*Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Karapaixo gaziak**
Gaztetxoendako tailerra.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI Maria Arnal eta Marcel Bages**
Beratu jaialdia. Sarrerak, zortzi euro.
*Santa Anan, 19:30ean.*

**ESKORIATZA 'Zazpi senideko' antzezlana**
Ander Lipusen lana. Ximun Fuchs eta Manex Fuchs dira protagonistak. Sarrerak, lau euro.
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 19

**ESKORIATZA 'Eman eskua etorkizunari' batzarra**
Ekainaren 10ean egingo den giza-kateari buruzko informazioa.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**BERGARA '13 bergarar Huascaran 78 espedizioan' pelikula**
Pol-Pol mendi taldearen 75. urteurreneko ekitaldia. Irekia.
*Pol-Polen lokalean, 19:00etan.*

## MARTITZENA 20

**OÑATI Ikasketak homologatzen laguntzeko zerbitzua**
Etorkinendako zerbitzua. Aurrez hartu behar da izena udal bulegoetan.
*Udal bulegoetan, 15:00etan.*

**ANTZUOLA Barnetasunaren heziketa helduendako**
Nork bere barrena ezagutzeko eta hobeto sentitzeko baliabideak lantzeko saioa.
*Olaranen, 18:30ean.*

**ANTZUOLA 'Zergatik euskaraz... musika munduan'? mahai-ingurua**
Iker Barandiaran kazetariak gidatuta, Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabel, Anari eta Huntza taldeko Josune Arakistain musikariak izango ditu alboan.
*Torresoroan, 18:30ean.*

**OÑATI Euskaraldia: abiatze-saioa**
Bigarren saioa egingo dute. Irekia.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Emakumeen ahalduntzea eta adimen emozionala' saioa**
Martxoaren 8aren harira. Irekia.
*Irizarren, 18:30ean.*

**BERGARA 'Trango Himalaia Bertikala' diapositiba emanaldia**
Iñigo Mujikaren emanaldia, Pol-Pol mendi taldearen 75. urteurrenaren baitan.
*Pol-Polen lokalean, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 21

**ARETXABALETA 'Botikak hartzerakoan erantzukizuna'**
Clemente Domingo eta Goizane Mendizabal erizainekin.
*Basotxon, 17:00etan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**
Gabriela Ybarraren *El comensal* liburuaren gaineko saioa egingo du gaztelerazko taldeak.
*Liburutegian, 18:30ean.*

**ARRASATE Gestazio subrogatuari buruzko mahai-ingurua**
Itziar Alkortak, Josebe Iturriotzek eta Maria Garciak egingo dute berba. Dinamizatzailea June Fernandez izango da. .
*Kulturaten, 19:00etan*

**ANTZUOLA Alberto Iñurrategiren solasaldia**
Mendi Astea. Sarrerak, bost euro.
*Torresoroan, 19:00etan.*

**BERGARA Bertsolaritzan garatutako umorea aztergai**
Ane Labakaren hitzaldia.
*Jardunen, 19:00etan.*

**BERGARA 'McKinley 6.190 metro' diapositiba emanaldia**
Ramon Loitiren saioa, Pol-Polen 75 urteak ospatzeko.
*Pol-Polen lokalean, 19:00etan .*

## EGUENA 22

**ELGETA 'Hitzez Pitz' solasaldia**
Oraingoan, Miren Amurizaren idatziak izango dituzte abiapuntu, 10:30ean eta 17:15ean.
*Liburutegian.*

**OÑATI 'Ostegun kontalariak'**
Oihana Etxagibelen saioa, 3-5 urte arteko umeendako.
*Haur liburutegian, 17:30ean.*

**ARRASATE Tronboi, tuba eta bonbardino emanaldia**
Arrasate Musikaleko ikasleak.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ANTZUOLA Xabier Paternainekin solasaldia**
Mendi Astearen baitan.
*Torresoroan, 19:00etan.*

**BERGARA 'Eskia munduan zehar' hitzaldia**
Aitor Zabartek, Aitzol Mendizabalek eta Jon Sasigainek egingo dute berba.
*Pol-Polen lokalean, 19:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

**Lady bird**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**La busqueda del santuario sagrado**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

ZABALOTEGI

**La niebla y la doncella**
Domeka: 19:30.

**Gatos**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

KULTURA ETXEA

**El cuaderno de Sara**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Bigfooten semea**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

ARKUPE

**El cuaderno de Sara**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Sagu eta Pagu (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ

GORBEIA

**El cuaderno de Sara**
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Bajo la piel del lobo**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45.
Domeka: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Historia de una indecisa**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 20:00.
Zapatua: 22:00.

**Un pliegue en el tiempo**
Egubakoitza: 17:30, 19:40, 22:25.
Zapatua: 18:10, 20:20, 22:30.
Domeka: 18:10, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Tomb Raider**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

**La tribu**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:00.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Sin rodeos**
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua: 16:00, 20:00, 22:00.
Domeka: 16:00.

**Errementari**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Loving Pablo**
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00

**La forma del agua**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

**El hijo de Bigfoot**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua: 16:00, 18:00.
Domeka: 16:00.

**Winchester**
Egubakoitza: 18:45.
Zapatua eta domeka: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 20.20.

**Gorrion rojo**
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 17:00, 20:00.
Domeka: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

**Perdido**
Egubakoitza: 17:00, 20:40, 22:30.
Zapatua: 16:00, 18:00, 22:30.
Domeka: 16:00, 18:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

**Mazinger Z**
Domeka: 12:00.

**La abeja Maya**
Domeka: 12:00.

**Jumanji**
Domeka: 12:15.

**Coco**
Domeka: 12:15.

**Ferdinand**
Domeka: 12:15.

**Cavernicola**
Domeka: 12:15.

## KRITIKA

**Gorrion rojo** ★★☆☆☆
**Zuz.:** Francis Lawrence. **Herr.:** AEB (2018). **Aktoreak:** Jennifer Lawrence, Joel Edgerton, Charlotte Rampling

# Iruzurren mundua

**ANTONIO ZABALA**

Gaurko filma AEB-n eta Sobietar Batasunaren arteko espioi norgehiagokaren inguruan kokatzen da. Gai horri buruzko filmak ikusi ditugunok argi daukagu oso mundu arriskutsua dela, eta sortzen diren ezuste egoera latzei aurre egiteko oso ongi trebatuta egon behar dela, baita nortasuna berezia eduki ere. Hori da, Dominika Egorovaren kasua. Sobietar Batasuneko espioi zerbitzuaren aldetik prestakuntza zorrotza jasotzen ikusiko dugu, eta horren ondoren, lana dela eta estualdiz beteriko munduan nola mugitzen den. Joko nagusi baten barruan azpijoko asko dago, iruzurra nagusi da, eta, jokalari guztiek, engainuak eta iruzurrak antzematen ahaleginduko dira. Engainuak eta iruzurrak non dauden asmatu beharko dute.

*Gorrion rojo* giro honetan murgiltzen da, baina ez modu errealistan edo John Le Carrek idazten dituen istorioen antzera. Paul Verhoevenek egindako pelikuletara gehiago hurbiltzen da. Erotismoa, indarkeria eta biraketa eroak ematen dira istorioan. Francis Lawrencek ikuskizun erakargarria, dibertigarria eta bihurria egin gura izan du, baina zati batzuetan bakarrik lortzen du. Beste batzuetan ez du helburua betetzen. Hanka-motz geratzen da. Hori horrela, filmak zatika funtzionatzen du. Era berean, sendotasun txikiko istorio baten aurrean gaudenaren sentsazioa geratzen zaigu pelikula ikusi ostean.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA



AINTZANE OIARBIDE

## Ama

Inon baldintzarik gabeko maitasunik bada, amaren bihotzean da. Horrela sentitu arazi nauzu bizitza osoan, ama, baldintzarik gabe maitatua. Inoiz maitasun gutunen lehiaketan parte hartuko banu maitasun istoriorik handienaren protagonista zu izango zinateke. Hutsune handia utzi didazu, ama, otsailaren amaieran joan zarenean, baina egunero zure ahotsa entzuteari utzi badiot ere, zure baldintzarik gabeko maitasunak nire barruan dirau betirako.

Ez da topikoa zu bakarra zinela esatea, bakarra irribarrean, bakarra jendearekiko harremanetan, espresioetan, begietako distiran eta, batez ere, ingurukoak maitatzen bakarra. Aita izarretatik keinuka ari zitzaizun eta martxoko uzta bazinen ere uzta jaso baino lehen joan zara bere besoetara.

Indarra izatea eta duintasuna edukitzea zer den ere bukaeraraino erakutsi diguzu. Emakume maitagarria eta indartsua aldi berean, barrutik bakarrik sortzen den indar horietakoa zenuen ezaugarri. Ez gara iritsiko inoiz zure mailara horretan, baina hitz ematen dizut ez dudala etsiko. Hainbeste maite zenituen loreak ikusten ditudan bakoitzean zure irribarrea iritsiko zait. Maite zaitut amatxo.

BUKATZEKO



Petti musikaria Balerdi Balerdi taldearekin Ruper Ordorikaren omenezko kontzertuan. LORALDIA JAIALDIA/DAVID HERRANZ

# Azukre koxkorrak Bilbon, Ruper Ordorikarendako

Loraldia jaialdiaren barruan egin zuten 'Izar&Star' kontzertuan musikari oñatiarraren kantuen bertsioak eskaini zituzten Bilboko Kafe Antzokian eguaztenean; Fermin Etxegoien kazetariak aurkeztuta, askotariko musikariak izan ziren taularen gainean

**Aitziber Aranburuzabala** OÑATI

Bob Dylan, David Bowie, Van Morrison, Beatles, Rolling Stones, Neil Young, Errobi eta beste hainbat musikari eta talde omendu izan ditu Javier Corral *Jerry* Bilboko musika kazetariak 2011an abiarazi zuen *Izar&Star* ekimenak. Eguaztenean egin zuten azkena, Ruper Ordorikaren kantuak oinarri hartuta, oraingoan.

**Oñatiko musikariari omenaldia**

"Ordorikaren miresle handia da Corral eta aspalditik zuen haren omenez saio bat egiteko nahia", dio Fermin Etxegoienek, eta zera gaineratu du: "Ordorikak aurrez parte hartu zuen ziklo horretan Elvis Costeloren kantuen bertsioak egiten, eta garai hartan argitaratu zuen *Azukre Koxkorrak* euskal kantuen bertsioak batu zituen lana. Udazkenean kontatu zidan *Jerry*-k zuen asmoa, eta aurkezle lanak egitea proposatu. Aurkezpen soil bat egin beharrean Ruperzale domestikoen ordezkari moduan aurkeztuta nire burua, gitarra eskuetan eta bakarrizketa formatuan, Ordorikaren ibilbidea gainbegiratu nuen nire bizipenekin harilkatuta. Urduri nengoen baina asko gozatu nuen".



Etxegoien. LORALDIA JAIALDIA/DAVID HERRANZ

**Bakoitzak bere Ordorika**

Tarteka aurkezlea agertokira igotzen bazen ere, musikariek elkarri lekukoa hartuta eskaini zuten bi ordutako *Rupertorioa* Kafe Antzokian. Bakoitzak bere izaerara moldatu zituen kantuak, originaletik gertuago batzuk, eta esperimentalagoak besteak. *Banekien* abestiarekin Ixiar Orejak eta Don Inorrez taldeak zabaldu zuten zerrenda; segidan igo zen Mikel Uraken bilbotarra.

Bernardo Atxaga idazlea izan zen hurrengoa. *Etiopia* liburutik abiatuta, eta Athletic eta Leganesen arteko partidu bati keinua eginda, ohikoa duen irudi serioarekin apurtuz, barrez jarri zuen publikoa; gaueko sorpresa harrigarrienetakoa izan zen. Petti eta Balerdi Balerdi taldeak indartsu defendatu zuten ondoren, *Rupertorioko* beste hiru ale eder; eta Miren Narbaizaren Mice taldearen proposamenak arreta piztu zuen jarraian. Ken 7 taldeak borobildu zuen gaua publikoak ere ozen abestu zuen *Ene Begiek* abesti ezagunarekin.

"Bitxia, antologikoa, etorri beharrekoa", horiek, argiak piztu zituztenean ikusleek ziotena. Aretoa beteta zegoen, baina, publikoan hutsune bat sumatzen zen, Ordorika falta zen.

